

HAINBAT TELEBISTA KATE, KANAL BERRIETAN

Antena-jartzaileen lanaren ostean, herritarrek berriro sintonizatu behar dituzte telebistak / 2

Xabi Marzana, Arrasateko Elkoro dendako teknikaria, etxe bateko teiatuan antena egokitzen, eguaztenean. XABIER URZELAI

"Hau luzatzen doa eta familiekin oso kezkatuta gaude"

Zaldibarko zabortegitik gertu bizi diren elgetarrek diote lurra berriz erortzeko arriskua dagoela / 32




Elgetako Egoarbitza baserriko senar-emazteak, eguaztenean. LARRAITZ ZEBERIO

Basurde gainpopulazioari aurre egiteko, ehiztari talde bat lanean Arrasaten / 10

280 korrikalarik parte hartuko dute Antzuolako 8 Miliak lasterketan domekan / 39

SINADURAK

	ANDERE ARRIOLABENGOA / 16
	MARIA AGIRRE / 8
	ANA CARPINTERO / 25
	ENERITZ URRUTIA / 12
	ANDER ETXEBERRIA / 48



Epilepsia, itzaletik argitara pasatzen ari den gaixotasuna

Irantzu Varela kazetari feministari elkarrizketa

Telebista berriz sintonizatu behar

Zenbait telebista kate frekuentziaz aldatu dituzte aste honetan; tartean, Goiena telebista; orain, antena-jartzaileen txanda da: zenbait antena kolektibotan egokitzapenak egin beharko dituzte, eta gero, norberak kanalak berriz sintonizatu

Eneko Azurmendi ARRASATE

Goiena telebista, Euskal Telebistako lau kateak, T5, A3... horiek denak ikusteko, antena-jartzaileari deitu behar zaio. Eta ondoren, sintonizatu egin behar da telebista. Aukera dago euskarazkoak diren kanalak (Goiena telebista, Euskal telebista...) lehen, bigarren edo hasierako zenbakietan jartzeko.

Orain arte 52. kanalean emititu du Goiena telebista, baina aste honetan lanak amaituta, 25. kanalean emititzen hasi da. "Hainbat tontorretan ditugun antenak egokitu ditugu kanal berriari emititzeko, eta, gainera, egokitzapen hau aprobetxatu dugu ekipu berriak jarri eta seinalearen kalitatea ere hobetzeko", adierazi du Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak.

Kontuan izan behar dugu Lurreko Telebista Digitalaren seinalea (LTD) jasotzen duten etxeetan izango duela soilik eragina frekuentzia aldaketak. Telebista Euskaltel bidez ikusten dutenek ez dute inolako egokitzapenik egin beharko.

Egokitu eta berriz sintonizatu

Posible da orain Debagoieneko etxebizitza askotan Goiena telebista ez ikustea. Berriz Goiena telebista ikusteko, gure etxebizitzak duen antenari erreparatu beharko diogu: seinalea antena kolektibotik jasotzen duten lekuetan, egokitzapen batzuk egin beharko dituzte telebista orain arte moduan ikusten jarraitzeko. Egokitzapen-lan horiek antena-jartzaileek egin beharko dituzte eta horretarako deitu egin behar zaio antena-jartzaileari. Behin

lanak amaituta, norberak etxeko telebista berriz sintonizatu beharko du, telebista kateak berriro topatzeko. Telebistako urrutiko kontrolarekin berriz sintonizatu da telebista. Sintonizazio hau automatikoa edo manuala izan daiteke; manuala egiteko, gogoratu behar da Goiena telebista 25. kanalean dagoela. Sintonizatu ostean, gogoko kanalak norbere gustura ordenatzeko aukera eskaintzen du telebistak. "Hori dela eta, aukera edukiko dugu euskarazko kateak, tartean Goiena, lehen lerroan jartzeko, eta, modu horretan, eskuragarriago izango ditugu. Beraz, hori egitea gomendatzen diet debagoiendar guztiei", adierazi du Agirrek.

Familia bakarreko etxeetan edo gehienez hiru familiako etxeetan, antena berriz sintonizatu

nizatzearekin nahikoa izango da, antena-jartzaileak ez baitu egokitzapenik egin beharko.

Dirulaguntzak eskatu daitezke

Antena-jartzaileek egingo dituzten lanak finantzatu ahal izateko, dirulaguntzak eskatzeko aukera dago. "Antenetan egin beharreko moldaketek profesionalen esku egon behar dute eta, beraz, antena-jartzaile modura bere lizentzia daukan profesional bat izan beharko da aldaketa horiek egingo dituen. Hori jakitea garrantzitsua da; izan ere, Espainiako Gobernuak dirulaguntzak eman-gotitu gastu horiei aurre egiteko", adierazi du Agirrek. Dirulaguntza horiek www.televisiondigital.gov.es webgunean eskatu daitezke.

Eskoriatza, salbuespena

Eskoriatzan ez du eraginik izango kanal aldaketak. Izan ere, Eskoriatzako herriguneak seinalea kable bidez hedatzeko sare propioa dauka -Elorretako auzoan izan ezik-. "Eskoriatzako herriguneko %95ek seinalea kable bidez jasotzen du. Beraz, egokitzapen honek ez du eraginik izango han", dio Agirrek.

Debagoieneko gainontzeko herrietan eragina izango du aldaketa honek, eta egokitzapenak egin beharko dira. Dena den, edozein zalantza izanez gero, 943 25 05 05 telefonora deitu daiteke. Prozesu honek bere denbora beharko du, baina ekainaren 30a baino lehen liberatu-

ta egon behar du 700 MHz bandak. Hala, adituek aholkatu dute egokitzapenak ahalik eta azkarren egin ditzaten herritarrek.

Goiena telebista, 10.000 ikusle


Goiena telebista, zuntz optiko-kablea- zein LTD bidez -antena- 10.000 lagunek ikusi eta entzuten dute egunero. CIES erakundeak 2019an egindako azken neurketak ematen du datu hori. Bestalde, geroago eta gehiago dira Goiena telebistako edukia Internetetik -ordenagailuz, eskuko telefonoz zein tabletaz- kontsumitzen dutenak. Hala, 2019an, Goiena telebistako 3.680 bideo igo ziren *Goiena.eus*-era eta, orotara, 552.586 ikustaldi izan zituzten bideo horiek, aurreko urtean baino %31 gehiago.

'Goiena.eus', goranzko joeran

Aldi berean, *Goiena.eus* webguneak ere goranzko joerari eutsi dio 2019an. Izan ere, 2018arekin alderatuta %21,23 igo da webguneak izan dituen bisita kopurua, eta, guztira, 2.860.000 saio izan ditu. 550.000 erabiltzailetik gora izan ditu urtean zehar eta 7.700.000 orrialde baino gehiago ikusi dituzte, guztira, irakurleek.

GOIENAK ZALANTZAK ARGITZEKO TELEFONOA JARRI DU DEBAGOIENDARREN ESKURA: 943 25 05 05

Zelan ikusi berriro Goiena telebista



1

Egokitzapenak antenan


Antena kolektibotik jasotzen badu zure telebistak seinalea, antena-jartzaileak egokitzapenak egin beharko ditu. Behin lanak amaituta, ikus dezakezun oharra jarriko du antena-jartzaileak zure atarian.



2

Berriz sintonizatu

Telebista berriz sintonizatu beharko dugu kanal berriak topatzeko. Kanalen bilaketa hau modu automatikoan edo manualetan egin dezakegu urrutiko agintearekin. Gogoratu 25. kanalean dagoela Goiena.



3

Kanalak ordenatu

Berriz sintonizatu ostean, gogoko kanalak norbere gustura ordenatzeko aukera eskaintzen digu telebistak. Hain zuzen, Urrutiko agintearekin editatu kanalak eta jarri gogokoen artean Goiena telebista ere.

"Aldaketa egin barik ezingo da Goiena ikusi"

JESUS MARI ELKORO
MILAR ELKOROKO JABEA

Aste osoan dei mordo bat jaso dutela aitortu du Elkorok.

Aldaketa antena kolektiboa duten telebistetan bakarrik egin beharko da, ezta?

Hori da. Emisoreak aldatu egin behar dira tokiz, eta gero, antena kanal berrietara egokitu beharko da.

Norberak egin ahal izango ditu egokitzapen horiek?

Antenako egokitzapenak antena-jartzaileek egin behar dituzte, nahi eta nahi ez. Izan



E.A.

ere, oso gauza konkretu eta bereziak dira. Aparatu mota ezberdinak daude eta horien arabera ezberdina da egin beharreko egokitzapena ere. **Zer da ezinbestekoa?** Antena-jartzaile bati deitu eta antena egokitu. Izan ere, hori egin arte ezin izango da Goiena telebista ikusi. Ekainaren 30a baino lehen egokitu ez duenak ez du ikusiko. Beraz, antenak egokitzen jarraituko dugu, ahal dugun azkarren.



Enpresako lehendakaria eta gerentea, bailarako udal ordezkari batzuekin. A.A.

Komunikazio estrategia, garai berrietara egokituta

Zubillaga-Oñati Hiltegiak "zerbitzu pertsonalizatua" eskainiko duten irudi, webgune eta komunikazio kanal berriak aurkeztu ditu: Whatsapp zenbakia eta Flickr, Facebook, edo Youtube sare sozialak, esaterako; lehen sektorea indartzea da helburu nagusia

Eneko Azurmendi OÑATI

Garai berriei aurre egiteko, salto komunikatibo handia egitea erabaki du erakundeak, eta, bezero eta kontsumitzaileei zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko eta harreman hori beste hurbiltasun batekin egiteko, irudi, webgune eta komunikazio kanal berriak aurkeztu ditu erakundeak. "Irudi berriak ikuspegi modernoagoa eskaintzea bilatzen du, eta hori islatuko da gure webgune berrian", azaldu du Iraia Sola gerenteak. Webgunea Zubillagahiltegia.com da, eta enpresaren Youtube, Face-

book eta Flickr sare sozialetara sartzeko aukera eskainiko du. Bestalde, Zubillaga-Oñatiren gaineko informazioa jasotzen duen eta hilabetero bidaliko den buletin digitalean izen emateko aukera ere egongo da webgunean bertan.

Beste berritasun bat Whatsapp zerbitzua izango da. Horren birtatez, aurrerantzean hiltegiako bezeroek bertako arduradunekin kontaktu zuzena edukitzeko aukera izango dute 688 76 02 73 zenbakian. Horrez gain, zubillaga@hiltegia.com helbide elektronikoa ere eskuragarri edu-

kiko dute edozein eskari egiteko edo informazioa emateko.

Hil, zatitu eta banatu

Zubillaga-Oñatik hiltze, zatitze eta banatze "zerbitzu pertsonalizatua" eskaintzen die Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako bezeroei. "Eskaintzen den zatitze eta banaketa zerbitzu pertsonalizatua abereen potentzial guztia ateratzeko bideratua dago. Abereek ez sufritzea eta ahal bezain gutxi estresatzea garrantzitsua da kalitatezko haragia lortzeko, eta Zubillaga-Oñatiko azpiegitura eta lan tek-

nika garatuak horretara daude bideratuta, animalien ongizatea bermatuz".

Horrez gain, hiltegiako arduradunek azaldu dutenez, zatitze gelan egiten den lanari esker, "bertan hiltzen dena zatitu eta produktuari balio erantsia emateaz gain, bezeroari azken produktua formatu eroso eta egokian jasotzeko aukera ematen zaio".

Hori dela eta, izendapen berriak hiltegi eta zatitze zerbitzua eskaintzen duela adieraziko du, eta, modu horretan, "enpresan egiten diren bi ekintza nagusiek presentzia hartuko dute". Banatze zerbitzuari dagokionez, bezeroari ganadua osorik, kanaletan edo ontziratuta jasotzeko aukera eskaintzen dio enpresak.

'Okelaren jatorria baserria'

Irudiarekin batera, eslogan berria ere aurkeztu dute: *Okelaren jatorria baserria*. "Izan ere, baserririk gabe okela kontsumitzea ezinezkoa izango baita".

Behiak, ardiak eta zaldiak

Zubillaga-Oñatik 9.000 abelburu inguru ekoizten ditu urtean, eta horietatik %95 abelgorriak dira. Gainontzekoak, ardiak eta zaldiak. 250.000 kilo pasatzen dira Zubillagako zatitze gelatik, eta 900 ustiatzari ematen zaie zerbitzua kopuru horrekin.

Zubillaga-Oñatik baserrietan hazten diren animaliak era egokian prozesatzen dituela aitortu du Solak: "Euskal Okelaren kalitatea bermatzen du". Izan ere, erakundearen helburu nagusia "haragiaren sektorea iraunkorra izatea" da.

%100 publikoa den enpresa

Oñatiko Zubillaga auzoan dagoen Zubillaga Hiltegia SL enpresa 1983tik dago funtzionamenduan,

eta 12 udalerririk bultzatutako zerbitzu enpresa publikoa da –Debagoieneko bederatiak, Legazki, Urretxu eta Zumarraga–. "Lehen, Debagoieneko Mankomunitateak gestionatzen zuen hiltegia, baina hausnarketa bat egin zen ikusteko sektoreari laguntzeko ze erreminta mota izan beharko litzatekeen hiltegia. Ikusten zen egunerokotasunean funtzionatzeko moduetan errazagoa izango litzatekeela SL bat izatea eta, bide batez, aukera ematen zuen nahi beste udalerek parte hartu ahal izateko", azaldu du Solak.

Udalerrri bakoitzak partizipazio kopuru ezberdin bat dauka, bere biztanleria eta abelburu kopuruaren arabera. Aurten, 2020an, 180.000 euroko ekarpena egin dute guztira 12 udalerririk –190.000 eurokoa izan zen 2019ko ekarpena–. "Inbertsioak egiteko eta kuotak ordaintzeko erabiltzen dugu ekarpen hori, besteak beste", dio gerenteak.

Gipuzkoan, lau hiltegi

Estruktura juridiko ezberdinak dituzten lau hiltegi daude Gipuzkoan. "Oñatikoa da %100 publiko den bakarra. Tolosakoaren jabetza udaletxearena da baina enpresa pribatu batek darama kudeaketa. Donostian langileen kooperatiba estiloko bat dago –Matadero Frigorífico Donostiarra SAL izenekoak–. Azkenik, Zestoan abeltzainen kooperatiba bat dago –Urkaiko–, azaldu du Solak.

ZUBILLAGA-OÑATI HILTEGIAK IKUSPEGI MODERNOAGOA ESKAINI GURA DU IRUDI BERRIAREKIN

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 14AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
AIERT ARIETA-ARAUNABEÑA KAZETARIAK YASER HAMED,
FUTBOL JOKALARIARI, EGINDAKO ELKARRIZKETA

goiena
Zu hemen zaude.





Kamioiak Epeleko zabortegira hondakinak eramaten, zabortegia itxi aurretik. GOIENA

Momentuz, Epele ez da alternatiba

Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegia 2018tik itxita egonik eta Mutiloakoak ere ateak itxiko dituela iragarrita, Zaldibarko zabortegiak hartzen zituen hondakinak jasotzeko Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela zabortegirik adierazi du Jaurlaritzak

Miren Arregi ARRASATE

Joan den ostegunean Zaldibarko zabortegian izandako lur-jausiak eragindako hondamendiak galdera asko ipini ditu mahai gainean; besteak beste, nork hartuko dituen lehen Zaldibarko zabortegi kolapsatuak hartzen zituen hondakinak. Galdera horrek are garrantzi handiagoa hartu du, astean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok Gipuzkoa laguntza emateko gertu dagoela azaldu ondoren eta Eusko Jaurlaritzak EAEko zabortegiei elkarlana eskatu ostean.

Beraz, non kudeatuko dira orain arte Zaldibarrera isuri diren hondakinak? Epeleko zabortegia da aukera horietako bat? Horren haritik, Epeleko zabortegiaren jabe den Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak adierazi dute une honetan Epele ez dela alterna-

tiba. "2018tik itxita dago zabortegia; beraz, momentu honetan, obra zibilik egin ezean ezinezkoa da Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian hondakinak sartzea", adierazi du Mankomunitateko presidente Maite Antonek. Gainera, Jaurlaritzak EAEko zabortegiei eginiko laguntza eskaerari dagokionez ez dakitela ezer adierazi du: "Guk ez dugu ezer jaso. Laguntza eskaeraz dakiguna komunikabideen bitartez iritsi zaiguna da". Epeleko zabortegiaz gain, Gipuzkoak Mutiloako Lurpe zabortegia du funtzionamenduan une honetan. Hala ere, atzo, "gainezka ego-

2018KO IRAILETIK ITXITA DAGO EPELEKO INDUSTRIA HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN ZABORTEGIA

teagatik" martxoaren lehen itxiko dutela iragarri ostean, Gipuzkoak ere ez luke behar horiei erantzuteko azpiegiturarik izango. Hasieran, Zaldibarko hondakinak hartzeko aukera Gasteizko Gardelegiko zabortegia litzatekeela zabaldu zen eguaztenean, betiere, materialak arriskutsuak ez balira. Baina atzo, Ingurumen sailburuordeak adierazi zuen Zaldibarko zabortegiko hondakinak arriskutsuak direla eta EAEn ez dagoela horiek hartzeko tokirik, eta pentsatzen ari zirela nora eroan.

Itxiera baten kronika

Aurrez esan bezala, Epelen, konpostaje plantaren eta garbigunearen ondoan, bada industria hondakin ez-arriskutsuen zabortegi bat. Bertan, industriako eta eraikuntzako hondakinak jaso izan dira, 1993an zabaldu zenetik, 2018ko irailera arte. Epelekoa ez

LABen salaketa, kamioien harira

LAB sindikatuko ordezkariak salaketa formala ipini dute Lan Ikuskaritzan. Sindikatuak salatu duenez, Gipuzkoatik eramandako lau kamioiek, bina Oñatitik eta Eibartik, desinfektatu gabe jarraitzen zuten ezbeharra gertatu eta sei egunera.

Zaldibarko lur-jausia gertatu zenean, ostegun arratsaldean, Eibar eta Oñatiko suhiltzaileen parkeko lau kamioi hurbildu ziren istripu lekura eta lanean aritu ziren desagertutako langileak topatuguran. Zaldibarrera eramane ziren kamioiak ez zirela egoki garbitu salatu du LAB sindikatuak, eta horrek arriskuan jartzen duela kamioi hauek erabiltzen dituzten suhiltzaileen osasuna.

Gaur batzartuko dira gaiaren inguruan LABeko, Foru Aldundiko eta Osalaneko ordezkariak, Donostian.

dago amiantoa jasotzeko prestatua. Itxieraren arrazoiez galdetuta, Debagoieneko Mankomunitateko presidente Maite Antonek azaldu du urtez urte erabiltzaile kopurua murriztuz joan zela, zabortegia ekonomikoki ez-bideragarri bihurtu arte. "Zabortegia itxi aurretik, orduan ustiatzen ari ginen bigarren zelda bete zenean, zabortegia kanpo-erabiltzaileei ixtea erabaki zuen orduko Mankomunitateko Gobernu Juntak".

Epeleko zabortegiaren itxierarekin lotuta eta Zaldibarko gertaeraren haritik, Oñatiko alkate ohi Mikel Biainek sare sozialean esan du 2015-2019 agintaldian Mankomunitatean ordezkari zuten bitartean "Jaurlaritzatik presio handiak jasan" zituztela Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegia "ixteko". Biainen esanetan, Jaurlaritzatik oso baldintza zorrotzak jarri zizkieten zabortegiari eta hango erabiltzaileei. "Konbentzimendua geneukan arazo nagusia isurtegi publiko izaera zela; pribatuei ez zizkietela horrelako baldintzak exijitzen. Atzean enpresa pribatuen interesak zeudela ikusten genuen. Orduan entzun nuen lehen aldiz Verter izena". Orduko Mankomunitateko ingurumen batzordeburu Lander Arregik ere gogoan du "baldintzak zorrotzak" zirela. Bere iritziz, baina, "presioak ez ziren inolaz ere politikoak, baizik eta teknikoak eta administratiboak". Arregik administratiboki aldaketa egon

zela dio eta horrek ekarri zuela erabiltzaileei dokumentazio gehiegi eskatu beharra. Erantsi du, gainera, Europak baduela industria hondakinak modu pribatuan kudeatzearen aldeko jarrera. Azkenik, Arregik adierazi du zabortegiaren egoera aldatuz joan zela azken urteetan. Alegia, eraikuntzatik jasotzen zen hondakin kopuruak behera egin zuen industriakoak bere horretan jarraitzen zuten bitartean. Baina bien arteko oreka mantendu beharra zegoen eta horrek bultzatu zuen zabortegia industriako hondakin gutxiago onartzera".

Hemendik aurrera, zer?

Epeleko zabortegiak, gaur egun, beste hiru zelda ustiatzeko Eusko Jaurlaritzaren baimena du. "Horiek ustiatu ahal izateko, ordea, aurrez zeldak inpermeabilizatu eta egokitze obrak ezinbestean egin beharko lirateke, eta baita betetako zeldak zigilatze obrak ere", diote Mankomunitateak. Gaineratu dute zabortegia martxan jartzeko edo ez jartzeko erabakia hartzeko dutela oraindik. "Zaldibarko pasa aurretik ere bi aukera genituen mahai gainean: zabortegia Mankomunitateak kudeatuta martxan ipintzea, bata; eta zabortegiko bigarren zeldaren zigilatze lanak egin eta behin betiko ixtea, bigarrena".

Mobilizazioak

Gertaerarekin lotuta, mobilizazioak egin dituzte astean Debagoienean. Oñatin eguaztenean egin zuten; egunean, Arrasaten. Gainera, zapaturako, manifestazioak deitu dituzte, Ermutik, Eibartik eta Elgetatik abiatuta. *Zaldibar argitu orain!* lelopean egingo dute hori.

EPELEKO ZABORTEGIAREN ETORKIZUNA ERABAKITZEKE DAUKA MANKOMUNITATEAK

Amiantoaren ondorioak azaleratzeko berbaldia

Aurreko mendean enpresetan oso ohikoa zen material kutsakorren gaineko jardunaldia antolatu dute datorren asterako. Jesus Uzkudun amiantoaz kaltetutako elkarteko bozeramaileak eskatu du "biktimak konpentsatzeko plan bat" egitea

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA
Amianto hiltzaile isila. Ondorioak Debagoiengan izeneko mahai-ingurua antolatu dute hainbat sindikatuk datorren eguaztenerako, otsailak 19, Arrasaten. Kulturateko areto nagusian izango da, 18:30ean. Bertan izango dira CCOOko Alfonso Rios, ELAko Izaro Mujika, LABeko Iker Espolosin, Asviameko (amiantoaz kaltetutako Euskadiko elkarteak) bozeramaile Jesus Uzkudun eta Maitane Arteaga erizaina. Ainhoa Larrañaga MUko irakasleak gidatuta. Zehaztasunak eman dituzte Bergarako Arcelor enpresaren sarreran.



Mahai-inguruaren berri eman zuten sindikatuetako ordezkariak. MAIALEN REGUEIRO

Jesus Uzkudunek adierazi zuen Union Cerrajerako –gaur egungo Arcelor– hainbat langile amiantoaren eraginagatik "hil edota larri gaixotu" zirela. Bestalde, Arcelor eta Antzuolako Goizper kooperatiba amianto arriskua duten enpresen erregistroan –RERA– daudela gogorarazi zuen Uzkudunek. Haren arabera, bi enpresa horiek ez zituzten sartu erregistro horretan amiantoaz kaltetu ziren edo kaltetu zitezkeen langile guztiak, "gutxi batzuk" baizik.

Uzkudunek salatu zuen amiantoarekin "isilpeko itun" moduko bat egon dela haren eraginak isilarazteko eta esan zuen Debagoieneko beste enpresa batzuetan ere erabili zutela amianto. "Argi dago enpresa guztiek ez zituztela bete oinarrizko segurtasun eta garbiketa neurriak 1940ko hamarkadatik 1980ra arte; arriskuak ezagutzen zituzten eta gorde egin zituzten", esan zuen Uzkudunek.

Konpentsatzeko plan bat

Asviameko bozeramaileak eskatu zion Eusko Jaurlaritzari amiantoaren biktima guztiak

konpentsatzeko plan bat egin dezala, amiantoaren biktima diren langileei, autonomoei eta langileen familiartekoei ordaintzeko, "Nafarroako Gobernuak sortu duenaren modukoa", eta bi erakundeei eskatu zien neurriak hartzeko 2032a baino lehen amianto behar den moduan desagerrarazteko, eta ez lurpean gordetzeko, "Europatik eskatzen" ari diren moduan. Horren harira, adierazi zuen horretarako teknika egokiena "inertizazioa" dela.

Uzkudunek salatu zuen Lan Ministerioa, Lan Segurantza, Osakidetza, Lan Ikuskaritza eta hainbat epaile eta mutua "errealitatea isilarazten" ari direla eta, horregatik, "egoeraren berri" eman nahi dutela datorren astekeo mahai-inguruan.

Hauteskundeetatik eratorriko den hurrengo euskal Gobernuari eskatu zion gaiarekiko orain arte izan duten "jarrera aldatzeko".

Asviame elkarteak 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan amiantoaren eraginez hildako 35 lagun zenbatu ditu eta 2020an, orain arte, beste bost.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatzeko sistemak

- Loreontri-euskariak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inagarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Garaian egiten dabilzan azoka, eguenean. JONE OLABARRIA

Bailarako lehen enplegu azoka, "arrakastatsua"

Enpresen eta pertsonen arteko "topagunea" izateko asmotan antolatu dute Debagoieneko enplegu azoka; guztira, 33 stand izan dira Garaia Parke Teknologikoan, 31 enpresak hartu dute parte eta 420 elkarrizketatik gora egin dituzte

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak Foru Aldundiaren laguntzarekin batera antolatu duen Debagoieneko enplegu azoka egiten dihardute atzo eta gaur artean, otsailaren 13a eta 14a, Garaia Parke Teknologikoan.

Lehen aldiz antolatu duten azokak eskualdeko enpresen eta pertsonen arteko "topagunea"

izan gura du: "Enpleguaren inguruan eskaerak eta beharrak batzea da helburua, eta talentuak eta enplegu aukerak bat egitea bilatzen du". Mankomunitateak azaldu dutenez, azoka irekita dago lan bila ari den edo lanez aldatu nahi duen edozein pertsonari, eta profil "oso ezberdinetako" langileentzat aukerak daudela adierazi dute.

Azoka "jendetsua"

Balorazio orokorraz galdetuta, "positiboki" mintzatu da Mankomunitateko Garapen agentziako arduradun Koldo Azkoitia: "Lehen aldiz antolatu dugula kontuan hartuta, balorazioa erabat positiboa da. Jende ugari gerturatu da, bai aurretik izena eman eta elkarrizketa hitzartuta zutelako, baita stan-

detako eskaintzak ezagutzeko asmoz".

Hain zuzen, stand horietan 31 enpresak hartu dute parte, eskualdeko bi enpresa talderekin batera: Debagoieneko Enpresa Komunitatea eta Enpresaren. Enplegu publikora sarbidearen inguruko informazioa ere eskaintzen dabilta.

Profil ezberdinetako 76 lan eskaintza dira guztira artatuko direnak eta 420 elkarrizketa inguru adostu dira alde aurretik. Dena dela, izenik eman ez duten pertsonak ere badute oraindik bertaratzeko aukera, curriculumak uzteko eta enpresak ezagutzeko, standetan bertan.

Sektore askotan

Hainbat sektoretako enpresak dira lan eskaintza hauetan: merkataritza, zaintza, ostalaritza, automatizazio industrialak eta robotika, teknologia adimenduna, ingurumen zerbitzuak eta elektronika. Garapen Agentziatik adierazi dutenez, hori da, hain zuzen ere, azoka "berezi" egiten duena: "Profil oso anitzeko jendearen bila gabiltza. Sektore ezberdinetarako eskaintzak daude, baita profil tekniko edo ikasketa oso anitzak dituzten pertsonentzako aukerak. Hori esango nuke dela azoka hau beste batzuetatik bereizten duena".

Aurreko lanketa, oinarrizkoa

Azoka aurretik, pertsonak eta enpresei zuzendutako hainbat tailer landu dira; enpresei zuzendutako ekimenen baitan, *Talentua nola erakarri* taileraren 13 enpresak beraien erakargarritasuna nola hobetu landu zuten. Azkoitiaren esanetan, halako ekimenak "behar-beharrezkoak" dira: "Enpresa handiek

euren jarraikortasuna bermatzeko profil beharrezkoak identifikatu eta lantzen dituzten bezala, enpresa txikiek ere lantzeko aukera izan dezaten gura genuen".

Pertsonak zuzendutako ekimenean aldiz, *Zure talentua erakutsi* taileraren lan bila dabilzan pertsonak norbere burua enpresaren aurrean aurkezteko klabeak landu zituzten. Oñatin 11 lagunek hartu zuten parte, Bergaran 36k eta Arrasaten 20 inguruk: "Beraien burua aurkezterakoan kontuan hartu beharreko alderdiak azaldu ziren, eta, curriculumaz haratago, jarrera eta azalpenen garrantzia".

Formazioaren garrantzia

Azkoitiak azpimarratu duenez, formazioa da "gakoa" lan mundura aurkezterakoan, eta lan bila dabilzanak bide horretara animatu nahi izan ditu: "Gure bailararen kasuan aukera paregabea dugu Lanbide Heziketan, izugarriko azpiegitura dugu, prestakuntza anitza eskaintzen dute. Edozein pertsonari gomendatuko nioke bere profil profesionala hobetze aldera".

Azoka ostean, Topaguneak

Azokan parte hartu duten enpresek Topaguneak izeneko ekimenean ere parte hartu ahal izango dute, beraien lan eskaintzen hedapen egokirako bide ezberdinak eta online presentzia hobetzeko ekintzak aztertu eta lantzeko helburuarekin.

"PROFIL ANITZETAKO LANGILEAK BILATZEN DITU AZOKAK; HORI DA BEREZI EGITEN DUENA"

Hainbat ekintza Oñatin, Euskal Errepublika aldarrikatzeko

"Burujaibetza lortzeko bidean", hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskal Herri osoan Ehun mugimendu herritarrak

J.O. DEBAGOIENA

"Euskal Errepublikaren eguna antolatzeko jaio den mugimendu herritarra" da Ehun. Pasa den azaroan aurkeztu zuten, Donostian, eta "Euskal Herriko herri, auzo, lantoki, lagunarte

eta norbanakoak ehuntzeko bozkazioa duen mugimendua" bezala definitu zuen bere burua.

Mugimendu horren baitan, "Euskal Errepublika eguneroan eragiten diguten arazo eta kezak konpontzeko bidea" dela

sinetsita, eta "Espainia eta Frantzia ez bezala, Euskal Errepublika guztion eskubideak bermatzeko aukera zentzudunena izanik", hainbat ekitaldi antolatu dituzte biharko Euskal Herri osoan zehar.

Hala, otsailaren 15a Euskal Errepublikaren "alde lan egiteko eguna" bezala finkatuta, otsail osoan zehar ere ekintza ugari egin dituzte Oñatin: eguaztenean, otsailak 12, energia berriztagarrien sorkuntza eta erosketara bideratutako Goieneko koopera-

tibak burujabetzarako bidean egindako lana eman zuen ezagutzera kultur etxean.

Era berean, otsailaren 5ean, Izarkom Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatibo eraldatzailea lantzen ari den elkartearen ezagutzeko aukera ere izan zen.

Asteburura begira, bihar, hilak 15, burujabetzaren alde lanean dabilzan proiektu ezberdinak ezagutzeko azoka egingo dute. Askotariko arloetan burujabetza lantzen ari

diren elkarteek euren proiektuak ezagutaraziko dituzte herriko plazan, goizeko hamaiketan. Besteak beste, Goieneko, Izarkom, Koop57 eta Ortuzabal proiektuak izango dira bertan.

Hain zuzen ere, Ehun-etik azaldu dutenez, "euskal mugimendu errepublikazaleak arrakasta izango badu, behetik gora egin behar du, goitik behera behar", eta herritarrak animatu dituzte mugimendura batu eta "burujabetzarako bidean ehuntzera".

Txoko Feministako leihatilarekin gertatutakoaren harira

KRISTINA KARDENAL

ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK
ESKORIATZA

Hasteko, leihatilan jarritako karteekin Udaleko arduradunak deseroso zeudela eta, bertan horiek jarri zituzten pertsonak ikertuko zituztela jakin genuen. Egun bat geroago, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldea ginela argi adierazten zuen orria zintzilikatu zen, ezkututzea ez baita inoiz gure helburua izan. Ez da zaila gu ginela antzematea.

Harrituta gaude gauzak egiteko modu honekin; izan ere, gure ustez, egokiena litzateke herriko talde sozial eta feminista batekin komunikazio emankorra mantentzearen alde dagoen Udalarekin harremanak.

Bestalde, Udalaren webgunean plazaratutako komunikatuari dagokionez, honako hau ondorioztatu dezakegu: leihatilarekin lotutako funtzioetatik haratago joan garena pentsatu izana. Hala ere, geuk argi daukagu ez dugula horrelakorik egin.

U30eko greba aldarrikatzean, aldaketak bultzatzeko prest dagoen ahots oro animatu dadin nahi izan dugu, hori izango baita kultura patriarkala suntsitzeko bidean eman beharreko hasierako pausoetako bat.

Bestalde, "eremu publikoa politizatu izanaren" iritzia ere bazterten dugu.

Iruditzen zaigu pertsonen eskubideak eta planetaren iraunkortasuna bermatzeko bidean tresna baliagarria dela greba.

Politika arlo sozialaren kudeaketa da. Bertatik abiatuta, noski greba orokor hau politikoa dela. *Greba politikoa* eta *greba partidista* kontzeptuak nahastu egin direlakoan gaude. U30eko greba orokorra Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deiturikoa izan da; ez alderdi politikoei egindakoa.

Leihatilaren jatorrirra bueltatuz, inaugurazioaren egunean, taldea definitzen zuten bost nortasun ikur adierazi genituen; horietako bat bere izaera apartidista zen.

Gure gizartean zabaldu den prekaritatea eta honek pertsona ororen bizi baldintzetan dituen eragin latzak ikusita, nork gobernatzen duen kontuan hartu gabe grebara batuko gineteke.

Azkenik, eskerrik beroenak galdetzeraz eta elkartasuna adieraztera hurbildu zareten gutzioi!

Euskal oasia, zabortege

ANA SEBAL AGIRREGABIRIA

LAB SINDIKATUA
BERGARA

EAJk ez die erantzun greba orokor arrakastatsuan egindako aldarrikapenei

eta GOIENA (ere) erabili dute grebaren arrakasta ezkutatu eta zaborra zabaltzeko. Ke laino zikin bat zabaldu nahi zuten, pentsioez, lan baldintzez, komertzio txikiak, zerbitzu publikoen kalitateaz, zaintzaz edo ingurumenaz ez hitz egiteko.

Hara non azken egunotan beraien euskal oasia zabortege handi bilakatu zaien, hara non kapitalismoaren tripak begi bistan gelditu diren. Zaldibarren gertatutakoa oso larria da, hamarkadetan Urkulluren euskal oasiaren alfonbra azpian ezkutatuko zabor

guztia bat-batean begi bistan gelditu da; zoritxarrez, tragedia horretan bi langile gehiagok bizia galdu dute –aurten, Euskal Herrian 18 dira dagoeneko, 18!– eta dozenaka mila herritarren osasuna arriskuan dago.

Zer ezkutatu dute alfonbra azpian? Ezkutatu dituzte pobrezia larrian dauden 400.000 euskal herritar –%25 umeak, jateko ere larri dabilzanak; Save The Children-en datuak–; zabortegean ezkutatu dituzte dozenaka mila pentsiodun, pobrezia egoera larrian daudenak –

neguan etxea berotu, medikamentuak ordaindu eta jateko arazoak dituztenak–, gehienak emakumeak eta asko alargunak –emakume pentsiodunen %33k 500 eurotik behera irabazten du–; zabortegean ezkutatu dituzte 150.000 pertsona langabe, asko egoeran betikotzen ari direnak; zabortegean ezkutatu dituzte lan egin eta pobrezian jarraitzen dutenak –gero eta gehiago–, etxeko langileak, langile *uberizatuak*, eta abar; zabortegean ezkutatu dituzte gazte gehienak lan prekarioak eta etxebizitza lortzeko eskubidea eskoria artean gelditu da; zabortegea botatzen ari dira kalitatezko zerbitzu publikoak osasuna, hezkuntza, zaintza, etxebizitza; Zaldibarkoa bezalako zabortege toxikoei erakusten dute disfraz berdearen atzean gure herria amianto eta lindanozko zabortege bilakatu dutela.

EAJko buruzagi jaun-andreak, Urkullu jauna, ez zaitezte ke lainoen atzean ezkutatu. Ez ezazue EITB, guztion komunikabidea, patronalaren eta gobernuaren pikete informatibo gisa gehiago erabili. Eman aurpegia, eman erantzuna greba orokorreko aldarrikapenei. Guk kalean jarraituko dugu lan, pentsio eta bizitza duinen alde.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

MARIA AGIRRE

Abandonatuta

Hitzak dena esaten du. *Abandonatuta* berba erabili dute Zaldibarren desageritutako bi langileen familiartekoeak, hondamendia gertatu eta 48 ordura. Ez informaziorik, ez erakundeen aldetik babes keinurik: bakarrik eta minduta azaldu dira. Noraezean eta, batez ere, bakarrik. Azkenean, komunikabideetara jo behar izan dute, laguntza eta erruki bila.

Abandono hitza barruraino sartu zait, eta mina nire egin dut, beste jende asko ere hala ikusi dut. Eta min horretatik oso urrun ikusi ditut agintari politikoak, oro har; oso urruti. Ezbeharraren egunean bertan Realaren garaipena ospatzeko kamiseta txuri-urdina jantzita sare sozialetan argazkia zintzilikatzea ez zitzaidan egokia iruditu. Handik egun gutxira, mendi puntara iritsi izana ospatzeko argazkia sarean jartzeko unea ere ez zen, inondik inora, eta normalean txio-txioka izaten den txoria isilik ikusteak haserretu ninduen.

EZ INFORMAZIORIK, EZ ERAKUNDEEN ALDETIK BABES KEINURIK: BAKARRIK ETA MINDUTA AZALDU DIRA

Adibide gehiago eman daitezke eta, nola ez, enpresaren jokamoldean ere bada zer aztertu, baina komunikazioa lantzen eta ikasten ari direnentzat utziko ditut. Gertatu denak komunikazioan nola ez jokatu eta gardentasunak

zer beharko lukeen izan azaltzeko balio dezakeelakoan. Komunikazio estrategia, argazkitik aldentzeko beharra, agintariak inoiz ez lukete ahaztu behar herritarren bizimodua hobetu, arazoak konpondu eta, batez ere, behar denean elkartasuna adierazteko daudela.

Lerro hauek idazterakoan, Alberto eta Joakin langileen berririk ez da. Eta, tamalez, egunak pasa ahala, zerrenda beltza luzatu egin daiteke. Urtea latz hasi da, zentzu horretan. 13 izan daitezke urtea hasi denetik Euskal Herrian hildako langileak. Erraz esaten da.

Aste honetan entzun nion elkarrizketa batean Alberto Alonsori, Osalaneko zuzendariari, lan istripuak gizartearen arazorik nagusienetakoa direla gaur egun, eta arazo horri heldu beharra dagoela. Berririo diot, Osalaneko buruaren hitzak dira.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ez da bekatu

PILAR KALTZADA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Euskara ikasten lagundu zidan adiskideak halaxe erantzuten zidan nire hanka-sartze etengabeengatik barka eskean hasten nintzaionean. Ongi ikasi nuen, antza, orain *barkatu* entzuten dudana ia guztietan *ez-da-bekatu* bat entzuten baitut nire buru barruan, esaldia osatuz.

Iruñean artzapezpikuaren egoitzaren elkarretaratzea egin zuten aurrekoan gizon eta emakume batzuek -100dik gora, albistea eman zuen telebistako berri-emailearen arabera-. Leihoak eta atek itxita egin ziren protestak

iraun zuen bitartean, itxura zenez, Jainkoaren ordezkariak zeregin hobea baitzuten egun horretan, urteetan zehar apaizen abusuak pairatu dituztenak entzutea baino.

Orain gizon eta emakume helduak dira, makina bat urte igaro direlako barnetegietan, sakristian, mendi-txangoetan edo katekesi-orduetan pairatu zuten infernu hori jazo zenetik.

Denborak, baina, ez ditu bizi izandakoaren ertzak ezabatu eta kontatzen hasten direnean, ume koxkor batzuk baino ez dira atzera berririo.

Bakarka izaten zen, baina baita jendaurrean ere. Eskola-inguruan gehienetan, baina ez bakarrik hor. [...]

Apaizek erasotu, abusatuta eta bortxatu egin zituzten.

Iraindu, kolpatu, mespretxatu egin zituzten. Urteetan izan zen hori guztia, eta Elizak berak bazekien, kasu askoren berri jasotzen dituen artxiboak lekuko. Zenbat dira abusatutako haurrak? Egundorretan kalera irten direnak baino askoz gehiago. Zenbat dira apaiz abusatzaileak? Ez dakigu. Jakitea da, besteak beste, eskatzen dutena.

Justizia, egia eta erreparazioa eskatzen dute. Kasurik onenean, barka eske simple bat, baina ez dute jaso orain arte, batere nahikoa ez dena.

Barkatu? Ez, ez da bekatu: delitua da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Ekologiaren lehen urratsak antinuklearrekin egin ziren"

BERTHA GAZTELUMENDI ZINEGILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE 1970eko eta 1980ko hamarkadetan energia nuklearren kontra sortu ziren mugimenduen ibilbidea jorratu du Bertha Gaztelumendi (Irun, 1962) kazetari eta zinegileak *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa* filmean. Arrasaten ikusteko aukera izan da asteon; datorren martitzenean Oñatin izango da eta martxoaren 18an Bergaran. **Bilboko Zinebi jaialdian aurkeztu zenuten filma, joan den azaroan. Ze erantzun izan du?**

Oso gustura gaude. Ez genuen espero halako erantzun onik izaterik. Emanaldi gehienetan, ikus-entzule gehienek esaten digute oso gustuko izan dutela, beharrezkoa zela halako bat egitea, kontatu beharreko istorioa zela...

Ordubeteko dokumentala da, testigantza asko jasotzen ditu... Ez da bereziki testigantzetan oinarritutako lana. Saiatu gara ahalik eta ikuspuntu eta



Zinegile irundarra, Donostian. DONOSTIA ZINEMALDIA

diskurtso guztiak jasotzen, mugimendu antinuklearra oso plurala eta aberatsa izan zelako. Bestetik, garai hartako dokumentu asko bildu ditugu: hainbat argazki, Super 8 kamerarekin hartutako

irudiak, benetako harribitxiak... Garai hartan, jende askok ez zuen irudiak hartzeko makinarik eta manifestazioetako argazkietan agertzea ez zen horren erraza, Franco hil berri, garai zailak

ziren. Lan handia izan da hori guztia batzea eta muntatzea, baina oso polita ere bai. Gaur egungo irudiak ere ageri dira. **Garai hartako gizartearen onespina lortu zuen mugimendu sozialaren erretratu bat egin nahi izan duzue.**

Sabinok [Ormazabal, gidoigilea] eta biok hori nahi izan dugu. Horretan saiatu gara. 1970eko eta 1980ko hamarkadako mugimendu indartsu eta irudimentsu hori islatu nahi izan dugu. Protestak egiteko modu berezia zeukan. Eta Europarekin eta munduarekin konektatuta zegoen. Horren isla izan zen eguzki irribarretsua, munduko 50 hizkuntza baino gehiagotara itzuli zena *Nuklearrik? Ez eskerrik asko!* leloarekin. Emozio eta sentimendu bati lotuta zegoen. Energia nuklearraren kontra egoteak esan nahi zuen lurraren defentsaren alde egotea. Ekologiaren lehen urratsak egin ziren Euskal Herrian. **Mugimendu hark eta gaur egun klima larrialdiarekin kezkatuta sortzen ari diren gazteenak badute antzekotasunik?** Lurrarekiko eta lurraren defentsarekiko konpromisoa berdina da. Baina gizartea erabat ezberdina da. Egiteko eta informazioa jasotzeko eta

zabaltzeko moduak erabat ezberdinak dira. Guk lehen dena egiten genuen kalean. Gaur egun, komunikazio teknologiaren bidez zabaltzen da informazio asko eta eztabaidatzen da asko.

Zuen eskaera da 1979an Tuteran manifestazio antinuklear baten Guardia Zibilak tiroz hil zuen Gladys del Estal Ferreño biktima gisa onartua izan dadila?

Biktima da eta Estatuak oraindik ez du biktimatzat aitortu. Gaurko gazte gehienek ezagutu ere ez dute egingo orduko mugimendua, orduko gertaerak, Gladys del Estalen heriotza... Bestalde, naturaren eta ingurumenaren alde munduan hiltzen direnen alde egitea ere nahi izan dugu; haien gaineko informazio gutxi heltzen zaigu.

Jose Maria Ryan zentral nuklear hartako ingeniari-burua ETAK hil izana izan zen mugimendu antinuklearraren mugarrietako bat. Jaso duzue?

Gladys [del Estal] gogora ekartzea izan da pelikularen ardatz nagusietako bat, baina, orduko mugimenduaren eta gizartearen gorabeherak ere jaso ditugu. Gatazka horretan geratutako hildako guztiak jasotzen dira. Kontakizuna, gertaeren kronika zintzo baten ildotik bideratu nahi izan dugu.

ITURRI ONETIK

Brigade Locoren bigarren diskoa, Bergarako plazan

Brigade Loco taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du Bergaran, jaialdi handi baten, maiatzaren 23an, jaien aurreko zapatuan. Berezia izango da, ez baita oso ohikoa disko baten aurkezpena herriko plaza nagusian egitea. Gainera, bergararrek Azken Sustraiak, Barne Guda, Perlata eta Odolkiak Ordainetan izango dituzte ondoan. 20:00etan hasiko da jaia. San Martin plazan taberna bat jarriko dute. Taldeak azken hilabeteetako atsedena hautsiko du kontzertu horretan.

ALBISTE IZAN ZEN

2013-02-17

Hasiera bikain eta ikusgarria 8 Miliek Antzuolan

Hasiera bikaina eman zion 8 Miliek Antzuolako mendi lasterketak orain dela zazpi urte. Antolatzaileen aurreikuspen guztiak gainditu zituen eta eguraldia eta giroa ezin hobekak izan ziren. 255 korrikalari izan ziren helmugan eta Iker Oliveri eta Elena Calvillo izan ziren azkarrenak. Jose Ignacio garitano omendu zuten. Antzuolatik Irimoko tontorrera igo eta itzuli. Gailurra elurtuta egon izanak ikusgarriago egin zuen proba.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

#ZaldibarArgitu 'trending topic' izan da

Traol erabiliena izan da, asteon, euskaraz txiokatzen duten erabiltzaileen artean: *@txargain*: "Hondamendi baten gestio negargarria salatzea sarraskijalea izatea bada, banaiz sarraskijalea, eta ohore handiz".

@OlaiaMatxain: "Batzuen inkompetenziaren aurrean herriak erantzun du! Zuen eredu hankaz gora jarri eta gure bizitzan alde egiten jarraituko dugu".

@Gasteiztar1: "Ermua, Eibar, Zaldibar, Markina... Guztietan haserrea, aldarrikapena eta kezka: #ZaldibarArgitu".

"Ehiztariak gara, ez soldatapeko hiltzaileak"

Basurde gainpopulazioari aurre egiteko, 'Arrasto' izeneko ehiztari talde bat dabil Arrasateko inguruko eremuetan lanean. Irailtik hona 76 basurde ehizatu dituzte; eurentzat zaletasuna da, eta diote ez direla baserritar guztien beharrak asetzera heltzen

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Basurdeen gainpopulazioarena arazo larria da, eta badaude are larriagoa izateko zantzuak: gero eta ehiztari gutxiago daude, ez dago erreleborik, mendiak gero eta zikinago daude, basurdeak gero eta ugariago ugaltzen dira, baserritarrek ez dute lehen zeukaten konpromisoa... dena nahiko utzita dago, eta horrek ez du arazoa hobetzen" dio Arrasto taldeko presidente Igor Elorzak.

Basurdeek eragiten dituzten kalteak askotarikoak direla azaldu du: "Kalte nabariena baserritarrei eragiten dizkiete: euren larreak hondatzen dituzte, eta ostean, ez da ganaduarentzako bazkarik hazten. Belarra berriz hazteko lan handia egin behar da, eta hori gertatu bitartean baserritarrek kalte ekonomikoak jasaten dituzte. Baina kalteak ez dira baserritarrentzat. Auto gidariei ere egiten diete kalte, auto-istripu ugari eragiten dituzte eta".



Elorza –goian, ezkerretik hirugarrena– eta Arrasto taldekoak basurde batekin. ARRASATE

Aldundiaren baimenarekin

Duela 40 urte inguru sortu zen taldea eta gaur egun 30 ehiztari inguru daude bertan. "Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena daukagu astean hiru aldiz ehizan egiteko: eguenetan, zapatuetan eta domeketan. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriaitza aldean aritzen gara, baina bailaran badaude talde gehiago: Bergaran, Eskoriatzan... bakoitza bere esparruan aritzen da".

76 basurde

Lanik ez zaie falta, eta datuek hori erakusten dute. Irailtik hona, 76 basurde harrapatu dituzte; azken laurak, asteburu honetan, Aretxabaletako Izurieta auzotik gertu. Basurdeak ehizatu ostean euren aprobetxatzen dituzte, baina diote basurdeen kalteak euren ordaintzen dituztela. "Ehizatu ostean larrutu eta despiezatu egiten ditugu, ostean jateko. Lagunen artean banatzen ditugu, opariak egiten ditugu, afariak egiten ditugu... baina guztia ez da debalde. Ehi-za lizentziak ordaintzeaz gain, diru kopuru bat ordaintzen dugu, eta bertatik ordaintzen dira, besteak beste, basurdeek baserritarrei eragiten dizkieten kalteak. Ez dugu ezer kobratzen lan hau egiteagatik; ordaindu, ordea, bai".

Zaletasuna vs ofizioa

Baserritarrei zerbitzua eman arren, guztiak ez daude pozik

euren lanarekin. "Asteburu honetan, adibidez, Muru inguruko baserritar batek deitu zigun, bere baserri inguruan basurdeek kalteak eragin ostean. Hara joan ginen, eta lau txerri ehizatu genituen. Baina beste batzuk kezu dira, euren baserrietara heltzen ez garelako".

Horren harira, argi dute ehizatzearena eurentzat zaletasuna dela, eta ezin direla alde guztietara heldu: "Ehiztariak gara, ez soldatapeko hiltzaileak. Baina baserritarrek ulertu behar dute hau zaletasuna dela eta gure mugak ditugula; ezin ditugu behar guztiak ase. Gu ez bagara heltzen, Aldundiak edo politikariek eman beharko diete erantzuna".

Estigma eta erreleborik eza

Taldekideen batez besteko adina ia 60 urtekoa da, eta Elorzak dio ez dagoela apenas erreleborik. "Bagaude bizpahiru gazte taldean, baina gehienak 50 eta 60 urteren bueltan daude. Badago 91 urteko bat, gazteak baino sasoitsuago dagoena. Baina, orokorrean, ehiztariak oso estigmatizatuta gaude. Ekologisten eta animalisten kontzientzia gora doa, eta jendearen gorrotoa pertsonalki jasan izan dut. Duela gutxi, Udalaiz inguruan uxaldi (batida) bat egiten ari ginela 'Putaseme' deitu zidaten; baina galdetu diezaizuela baserritarrei ea ehiztariak 'putasemeak' garen".



X.G.

12.000 euroko hamar sari

2013ko Gabonetako lehen saria banatu ostean, zortea eta dirua banatzen jarraitzen dute San Andresko Garai loteria saltokikoek. Azkena, zapatuan: Irudiko zenbakiak bigarren saria zuen; hamar txartel saldu zituzten eta erosle bakoitzak 12.000 euro poltsikoratuko ditu. Zenbaki hori urte osoan zehar saltzen dute, eta bezero fidel askori tokatu zaie oraingoan.

Ludoteka ibiltariaren azken geldialdia Musakolan, bihar

Goiena komunitatea

Txatxilipurdi / ARRASATE

Aurreko astean, 23 parte hartzaile animatu ziren. Heldu batzuk ere animatu ziren eta jarrera parte hartzaile eta gertuko izan zuten; hezitzaileen aldetik mila esker! Aurreko astean proposatutako ideia ere aurrera eraman zuten, eta krepak egin zituzten. Datorren asterako proposamenak ere bota zituzten, horietako asko sukaldaritzarekin lotuta. Bestalde, jolas aktiboak egiteko gogoia azaldu zuten: *Just Dance*, salto-salto... Zapatu honetan bikain pasatzeko, animatu eta gerturatu goizeko hamaiketara Musakolako gazte txoko atarira.



ANABEL DOMINGUEZ ('NOTICIAS DE GIPUZKOA')

Komuna jartzeko elkarlan bila

Udal Gobernuak "lidergoa" hartu nahi du Elorregin komuna jartzeko. Aurrekontu parte hartzaileetatik 115.000 euro bideratu dituzte bidegorrian komunak jartzera, eta Elorregi aukeratu dute horretarako. Jada eskutitz bana bidali diete Oñatiko eta Bergarako alkateei komuna elkarrekin finantzatzea aztertzeko, eta Foru Aldundia ere inplikatzeko nahiko lukete.

Mozorroak janzteko atzera kontaketa hasi da

Aratusteak ate joka daude, eta arrasatear askok jada hasita dituzte prestaketa lanak. Zapatua, hilak 22, izango da egun handia, pregoiarekin, desfilearekin eta arratsaldeko ekintzekin, eta martitzenean gatzetxoentzako ekintza ugari izango dira

Xabi Gorostidi ARRASATE


Mozorrotzea gustuko duten arrasatearrek gertuago dute urteko hitzordu kuttunena. Horietako asko hasiak dira mozorroak eta karrozak prestatzen, eta astebe-te barru egingo du eztanda jaiak. Azken urteetako tradizioarekin jarraituz, Arrasate Musikaleko ikasleen Inauterietako kontzertuarekin hasiko da egitaraua, otsailaren 21ean, egubakoitza. 18:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian, eta sarrerak 2 euro kostako dira.

Zapatua izango da egun handia, askotariko ekintzekin. Iazko edizioko irabazleek pregoia irakurriko dute Biterin, 12:00etan, eta ostean hasiko da festa giroa herri osoan zehar zabalduko duen desfilea. Taldeka mozorrotutakoei laguntzeko, Arrasate Musikaleko txarangak jarriko du giro musikatua. 13:00etan banatuko dituzte mozorro onen sariak: kuadrilla onenari, karroza onenari eta tabernari

onenari plaka eta urdaiazpiko bana emango dizkiete; eta gizonetzko eta emakumezko onenei, plaka eta gazta bana. 18:00etan, txarangakoek kaleak alaitzeari ekingo diote berriz, eta 19:30ean eta 22:30ean Iratzar taldeak dantzaldia egingo du Herriko Plazan. Zapatuko ajea kentzeko, berriz, antzerki emanaldi dotorea egongo da domekan. Txalo taldekoek *Ene ba!* antzezlanaren taularatuko dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Eta martitzenean berriro itzuliko da festa. 17:00etan, mozorro desfilea hasiko da Biterin, eta ordu berean, Ingurumena *Zaindu* ikuskizuna eskainiko dute Potxin eta Patxin pailazoen Amaia Udal Antzokian. 17:30ean, Samasiku txarangakoak kaleak alaitzen hasiko dira, eta 18:30ean, erraldoi eta kilikiak aterako dira kalera. 19:30ean, Alaiki taldekoek dantzan jarriko dute Herriko Plaza, eta 21:00etan, klasiko bat: sardinen hileta Herriko Plazan.



Bi lagun mozorrotuta Biteri plazan. GOIENA



Lexuri Doyagueren Irriherri marrazkia. ARRASATEKO UDALA

Kartel onena, Lexuri Doyaguerena

Azken urteetako tradizioarekin jarraituz, Aratusteetako kartel lehiaketa antolatatu du Udaleko Kultura Sailak. Aurtengo edizioan Lexuri Doyague arrasatearra izan da garaile, *Irriherri* izeneko diseinuarekin. Hamazortzi lagunek hartu dute parte lehiaketan.

Merke 2020 Merkaua

OTSAILAK 14 eta 15. Herriko kaleetan zehar.



Otsailak 14:



• 18:00 ANTZERKIA ETA KONTZERTUA
Kia eta bere ukelelearen eskutik (Kids&Us), Kulturateko areto nagusian, 3-7 urte

Otsailak 15:



• 12:30 KANTU KOLORE, Herriko Plazan



• 18:30 MERKEMERKAUKO ELEFANTEAK, herrian zehar





Hainbat auto Zarugalde kalean zehar; kale hori da zarata gehien pairatzen duenetariko bat. XABI GOROSTIDI

Zirkulazioa da herriko zarata eragile nagusia

Udalak zarataren aurkako ekintza plana garatu du, Eurocontrol enpresa adituarekin batera. Neurketa zehatz batzuk egin ostean, trafikoak zein lekutan eragiten duen aztertu dute, eta ekintza plan bat definitu herriko zarata murrizteko

Xabi Gorostidi ARRASATE

2002an egin zuen Udalak Arrasateko lehen zarata-mapa. 213/2012 dekretuaren arabera, 10.000 biztanleko herri guztiek egin behar dituzte zarata-mapak, eta, hori eguneratze aldera, zarataren aurkako ekintza plan bat garatu berri du Udalak, Eurocontrol enpresa adituarekin laguntzarekin.

Trafikoak eta industria jarduerak herrigunean eragiten duten zarata maila neurtu zuen enpresa horrek 2017an, eta emaitzek argi uzten dute bien artean trafikoak dela eragile nagusia. Egunez, errepideetako trafikoaren eraginez 65 dezibeliotik gorako zarata-mailak jasaten dituzten biztanleen kopurua %28 ingurukoa da; arratsalde %18koa da; eta gauez, %25ekoa da -azken hau 55 dezibeliotik gora-. Egunez eta arratsalde ez dago 65 dezibeliotik gorako industriako zarata-maila jasaten duen biztanlerik, ezta gauez 55 dezibeliotik gorako mailak ja-

saten dituenik ere. Udalerriko kaleei dagokienez, honako hauek jasaten dute eragin akustikorik handiena: Nafarroa etorbidea, Alfontso VIII kalea, Araba etorbidea, Kontzezino kalea, Uribarri etorbidea, Zarugalde kalea, Otalora Lizentziaduna kalea eta Gipuzkoa etorbidea.

Ekintza sorta

Neurketak egin ostean, ibilgailuen kutsadura akustikoa leuntzeko proposamen sorta bat jasotzen du enpresa adituak egindako txostenak. Horien artean daude, besteak beste, ibilgailu elektriko edo hibridoaren erabilera areagotzea, zarata gutxitzeko zoladura bereziak jartzea, gauez herrigunetik pa-

satzen diren ibilgailu pisutsuak murriztea, gauez salgaiak banatzeko jardueren zarata-mailak murriztea, errepidean langa edo pantaila-akustikoak jartzea. Beste multzo batean sartzen dira gaueko aisialdi lokalen zarata maila kontrolatzea, eremu publikoetan egiten diren kontzertu eta ekintzen zarata maila murriztea eta herritarrek zaratarekin lotuta dituzten keak kudeatzeko zerbitzua hobetzea.

Herrian egindako neurketak

Plan horren osagarri gisa, Udalak lau neurketa egin ditu, herrigunean daude zarata kasu batzuk neurtzeko. Hauek dira neurtu dituzten kasuak: Eroski supermerkatuko zamalanak Zerrajera kalean; Mondragon kaleko merkatuaren funtzionamendua; San Juan jaiekin lotutako kontzertuak eta ekitaldiak musika-eskolaren inguruan; eta kale-garbigailuen eta garbiketarekin lotutako lanak, hain zuzen ere.

INDUSTRIAREKIN LOTUTAKO ZARATAK EZ DU ERAGINIK HERRIGUNEKO BIZILAGUNENGAN



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Argitu

Pasa dira egun batzuk mugikorrean argazki batzuk jaso nituela, eta hara non Zaldibarko zabortegiko lurra lehertu eta erori zela iritsi zitzaigun denon belarrietara.

Beste informazio askorik gabe, bi langile bertan preso gelditu ziren, eta gaur da eguna beraien gorpuek bertan preso jarraitzen dutela, desagerturik.

Gauzak berez gertatu direla diote modu naturalean; betikoa, eskuak garbitu eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeari nahi dute.

Eta zer da egia? Zer gezurra? Auskalo, baina argi dago beraiek ez dutela presarik ezer argitzeko.

Badaude hor, nonbait haserre, inpotentzia eta amorruaz jarraitzen duten biktimen senideak. Helene Alberdik azpimarratzen duen bezala: "Argi dago ez dutela guk dugun presa gorpuak hortik ateratzeko".

Ez dago eskubiderik; desoreka bat dago erakutsi nahi dutenaren eta benetan gertatzen ari denaren artean.

Zaldibar argitu!

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

San Felipe Elkarlaguntzaren batzarra

Ezohiko batzar nagusia egingo dute domekan, hilak 16. Kulturateko areto nagusian elkartuko dira; 11:30ean lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena. Hain zuzen, zazpi puntuko gai zerrenda jorratuko dute.

Autodefentsa feminista tailerra, hilaren 29an

ABAE taldeak doako tailerrak ematen jarraitzen du; hurrengoa otsailaren 29an, Musakolako kiroldegian, 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko, deitu 669 66 33 66 telefono zenbakira.

Baserritarren azokan, xaboi osasungarria egiteko aukera

Ekoudaletx-eko lagunak gidatuko dute *Detox* jaboia egiten ikasteko tailerra. Azaleko toxinak kentzeko, kimikoak xurgatzeko eta poroak garbitzeko balio du, eta, nagusiki, aktibatutako ikatzekin dago osatuta.

Horrez gain, hamazortzi salmenta-postu izango dira Seber Altube plazan zapatuan egingo duten baserritarren azokan, eta horien artean bi ekoizle berri izango direla aurreratu du Toki Garapen Saileko teknikari Nerea Lazpiurrek: Marokoko gozogintza egiten duen Ouissal Amalal eta Bedoñako Errastikoa baserriko Naiara Uriarte; hark ere ogia eta gozogintza produktuak salduko ditu.

Urtarrilaren 30ak utzitakoa baloratu du greba batzordeak

"Balioan jarri beharreko eguna izan zen urtarrilaren 30ekoa. Mugimendu desberdinen arteko aliantzaren bidez antolatu genuen greba eguna. Lantokiz lantoki dozenaka asanblada egin genituen. Asanblada bakoitza garaipean bat da. Eztabaida sustatu zen, injustizia eragiten duten politika publikoez hitz egin zen. Herri langilearen aldarrikapenak sozializatu genituen", azaltzen zuten prentsara bidalitako oharrean -*Goiena.eus*-en osorik irakur daiteke-. Besteak beste, grebak lantegietan, komertzioetan eta hezkuntzan izan zuen eragina nabarmendu zuten, baita zaintzaren alorrean egiteko geratzen diren urratsak ere bai.

Merkemerkaua izango da aste bukaeran

Gaur eta bihar, Ibai-artek Merkemerkaua egingo du. Gaur 16:30etik 20:30era eta bihar 10:00etatik 20:00ak bitartean, udazken eta neguko stock azoka izango da. Horrez gain, umeentzako ekintzaz betetako egitaraua ere antolatu dute

Amaia Aranegi ARRASATE

Ibai-arte merkatari elkarteak antolatuta, gaur eta bihar egingo da udazken eta neguko stock azoka Arrasaten. Gaur arratsaldean eta bihar egun osoan zehar, herriko kaleetan zehar saltokiak kalera aterako dira.

Oraingoan, hogeita hamar saltoki irtengo dira euren establezimendu aurrera edo komertzio-guneetara udazken- eta negu denboraldiko produktuak beherapenekin eskaintzera; denda bakoitzak erabakiko du beherapenen portzentajea. Astebururako, Merkemerkauaz gain, umeentzako beste ekintza batzuk ere antolatu ditu Ibai-artek.



Udazken eta neguko stock azoka. GOIENA

Egitarau zabala

Gaur, arratsaldeko seietan, Kids&Us-ek antolatuta, Ibai-arteren eta Udalaren laguntzarekin, *Gina Ginger and Charlie Chives* antzezlanana eta *Kia eta bere Ukelelearen* umeentzako kontzertua egongo da Kulturaten. 3 eta 10 urte arteko umeentzako da eta sarrera doakoa da.

Bihar, 12:30ean, Kantu Kolorek eskainitako ikuskizuna egongo da Herriko Plazan. *Honolulu* musikala eskainiko dute, koreografia eta dantza berrieekin, eta adin guztietako haurrak dantzan jarriko ditu. Horretaz gain, Kantu Koloreren kantekin, haurrek hainbat ikasgai landuko dituzte: zuhaitzak, koloreak, hilabeteak, animaliak... ondo pasatzen ari diren bitartean.

Eta arratsaldeko sei eta erditan, Maiatzaren Bata plazatik abiatuta, argiz apainduriko lau metroko elefantea eta beste lau elefante txiki musikaz lagunduta Herriko Plazara abiatuko dira, herriko kaleak girotzeko.

Gaur eta bihar bitartean, denetako beherapenez eta Ibai-artek antolatutako ekintzez gozatzeko aukera egongo da.



Azaroko tailerra. ARRASATEKO UDALA

'Euskara familian' tailerrak egin dira

Emun-en, Ekogunea-ren eta Irrien Lagunen teknikarien eskutik eta herriko ikastetxeen laguntzarekin, euskararen transmisioa eta erabilera bultzatzeko tailerrak egin ziren azaroan. Tailerretan, gurasoek eta haien 4-8 urte arteko seme-alabek hartu zuten parte eta baliabideak eskaini zitzaizkien haurrek eta gazteek familiako komunikazioan euskara hauta dezaten.

RPS: 146/18

Oraindik bracketekin?

BRACKET BAKO ORTODONTZIA daukagu

Ikusten ez diren* alienatzaile berritzaileei esker, bracket bako tratamendua izango duzu.

Zatoz informatzera...

*Mundu mailan liderra den marka.

CLINICA DENTAL BERGARA

- ESTETIKA
- INPLANTOLOGIA
- LOAREN APNEA
- HELDUAK ETA HAURRAK
- FINANTZAKETA



Beñat Barberena fitxatu berri du Ointxe! klubak

Ointxe! klubeko harrobikoa da Barberena, lau urtez Txinan egon da, eta orain, Arrasaten dagoen bitartean Ointxe!-n arituko da jokoan: "Ilusio handia egiten dit berriz hemen jokatzek, taldekideak ezagutzen ditut eta maila handia dago taldean"

Amaia Aranegi ARRASATE

Beñat Barberena Ointxe! klubeko harrobikoa da, urte asko ibili zen taldean jokoan, baina duela lau urte Txinara joan zen lanera. Bertan, aisialdian saskibaloian jokatzen jarraitu du eta torneo batzuetan ere aritu da. Gainera, berak lan egiten duen eskolan talde profesional bat sortu zuten eta haiekin ibili zen. Baina azken bi urteetan, bere kabuz ibili da saskibaloian jokatzen. Hala ere, Arrasatera etorri izan denean taldearekin entrenatzeko aukera izan du: "Faltan igarri izan dut horrelako talde batean jokatzeko eta Arrasatera etorri naizen bakoitzean Ointxe!-rekin entrenatu izan naiz. Duela bi urte, denboraldiaurrea beraiekin egin nuen, eta oso talde polita eta maila handikoa daukate".

Barberena urte hasieran oportetn etorri zen Arrasatera eta entrenatzaileari beraiekin entrenatzeko esan zion. Orain



Ointxe!-ko kideak entrenatzailearen azalpenak entzuten. GOIENA

Txinan dagoen arazoarengatik, bere distritua koarentenan jarri dute eta horrek ez dio bermatzen bertan etxera sartzen utziko diotenik; beraz, hegaldia balio gabetu egin zuen: "Jokalari bat kanpoan dago ikasketengatik,

eta, bat gutxiago direnez, laguntzeko prest nagoela esan nion entrenatzaileari".

Buruan partidu bat jokatzeko Barberenak, baina bi gutxienez jokatuko ditut: "Domeka honetan nire urtebetetzea da eta

oso polita izango da festa giroan saskibaloian jokatzeko. Oraindik ez dakit noiz itzuliko naizen Txinara; beraz, oraingoan, seguru bi partidu jokatuko ditut. Asmoa Arrasaten nagoen bitartean Ointxe!-n jokatzeko da".

Taldea, indartsu

Denboraldiaren erdia jokatu da EBA mailan, Ointxe!-k emaitza onak lortu ditu eta laugarren postuan dago sailkapenean. Iazko denboraldiko talde berdintsuak ari dira lehiatzen EBA mailan, baina, bi denboraldiak alderatuz, orain "anbizio handiagoz" dabilzala dio Iñaki Ogara entrenatzaileak.

Denboraldi honetan, jokalariek ez dute lesio garrantzitsurik izan, eta jokalariek garrantzitsuak falta izan ziren asteburuan bi partiduak galdu zituzten. Postu onean dago taldea eta entrenatzaileak merezitako lekuan daudela aitortzen du. Orain, mailari eusten saiatu behar dute, eta etxetik kanpo dituzten partidu zailetan ondo jokatu. Emaitza onak lortzeko lanean dihardu taldeak, eta maila mantenduz gero liga irabazten saiatuko dira.

Ilusioari eustea helburu

Taldea gogotsu eta ilusioz dago eta ilusio hori transmititu nahi dute. Horrengatik, Iturripeko partiduetara eta baita kanpo koetara jarraitzaileak erakarri nahi dituzte. Emaitza onak ez dira beti lortzen, baina, hala

ere, ilusio hori mantentzea lortu nahi du taldeak. Denboraldi hasierako helburua sailkapenean goian egotea zen eta horrela jarraitzeko lanean daude.

Jokalariek lan "bikaina" egiten ari direla dio entrenatzaileak, eta pozik dago jokalariekin: "Taldea sendoa osatu dugu; Martin Buesa, Dani Lorenzo, Simon Mancebo eta Aitor Carrera bezalako jokalariek ekarri genituen eta jadanik bi urte daramatzate gurekin". Klubak, zuzendaritza eta jokalariek konprometituta daude taldearekin eta egindako lanaren saria igoera faserara igoztea izango litzatekeela dio entrenatzaileak.

Taldeari dagokionez, "ezin-hobeto" dagoela dio. Fisikoki eta mentalki oso ondo ikusten ditut jokalariek eta familia giroan horrela mantentzea da helburua.

Asteburu honetan etxean jokatu dute; domekan 18:30ean Iturripen jokatu dute, sailkapenean hamaikagarren postuan dagoen Solares taldearen aurka. Partidu berezia izango da, etxekoen indarra gertutik jasoko dute eta Beñat Barberena jokalaria jokoan arituko da taldearekin batera.

"ILUSIO HANDIA EGITEN DIT TALDEAN BUELTAN EGOTEAK, MAILA HANDIA DAGO TALDEAN"

Arrasate eskubaloia taldeak Iturripen jokatu du zapatuan

Aurreko astean kanpoan jokatu ondoren, zapatuan 16:30ean Gure Auzune taldearen aurka lehiatuko dira

A.A. ARRASATE

Arrasateko eskubaloia taldeak aurreko astean ezin izan zuen garaipena lortu. Etxetik kanpo, sailkapenean bigarren postuan dagoen Basauri taldearen aurka lehiatu ziren eta ez zuten partidua irabazi.

Aurkari zailak izan zirela adierazi du Arrasate eskubaloia taldeko kapitain Josu Herrero: "Basauri talde gogorra da eta bagenekien partidua zaila izango zela. Izan ere, goian dauden taldeen aurka jokatzeko zaila izaten da".



Arrasate eskubaloiko jokalaria. GOIENA

Arrasate eskubaloia taldea bosgarren postuan dago sailkapenean eta bost partiduetatik lau galdu dituzte.

Orain, bederatzi partidu dituzte aurretik eta inguruko taldeekin ibiliko dira lehiatzen; kapitainak partidu "garrantzitsuak" direla dio.

Partidu gehienak etxean izango dituzte eta kapitainak partidu horiek guztiak irabazi behar dituztela dio: "Arrasaten izango ditugun partidu guztiak irabazi behar ditugu. Etxean jokatzeko errazagoa da, jende asko etortzen da animatzera eta, gainera, lekua ezagutzen dugu; bertan entrenatzen gara".

Zapatuan 16:30ean Gure Auzune taldearen aurka lehiatuko dira, Iturripen." Aurkari partidu bat irabazi dute liga osoan eta gu irabaztera goaz".

Emaitza onak lortu dituzte Arrasateko atletek asteburuan

Gipuzkoako txapelketa absolutuan eta Zaragozako txapelketan aritu dira lehiatzen Arrasateko atletak asteburu honetan.

Malen Ruiz de Azuak -Valencia Sport- 4,32 metroko marka lortu zuen pertika-jauzian. Maialen Axpek -Atletiko San Sebastian- 4,12 metroko marka eskuratu zuen.

Gipuzkoako txapelketan bi urre, zilar bat eta brontze bat eskuratu zituzten. Salto hirukoitzean, Iñigo Uribarrenek urrea eskuratu zuen 15,22 metrorekin. Eneko Carrascalek zilarra 14,92 metrorekin. Eta Alain Egiak brontzea 13,49 metrorekin. Pertika-jauzian, Istar Dapenak urrea lortu zuen 5 metrorekin.

ARTk errugbi inklusibo saioa egingo du domekan

Hilaren 16an, domeka, urritan sunen bat duten neska-mutikoekin errugbi saioa egingo dute Arrasateko Rugby Taldeko kideek. Atzegi elkartearekin elkarlanean antolatutako ekimen hau Mojategi errugbi zelaietan izango da, 11:00ak eta 12:30ak bitartean. Bertaratzen direnek errugbiaren nondik norakoak eta bere balioak ezagutzeko aukera izango dute. Izen ematea 943 42 39 42 telefonon egin behar da, Jonengatik galdetuta. *Errugbi barneratzailea* izenburupean egingo dute saioa domekan eta errugbia "inklusioko tresna baliagarria" dela dio Julen Barrutia entrenatzaileak.

Bloom taldeak hiru kontzertu ditu aurretik

Bloom talde arrasatearrak urte eta erdiko ibilbidea du, hiru kontzertu eskaini ditu herrian eta beste hiru eskainiko ditu herritik kanpo; bihar Añorgako gaztetxean, martxoaren 6an Oñatin eta martxoaren 14an Villabuenako gaztetxean

Amaia Aranegi ARRASATE

Mikel Bolinaga –gitarra–, Julen Altuna –baxua–, Eneko Aspiazu –bateria–, Hasier Larrea –gitarra– eta June Ollakarizketa –abeslaria– dira kideak. 2018ko urrian sortu zuten taldea eta abeslaria aurreko urteko martxoan sartu zen. Guztiak lehenago beste talde batzuetan ibilitakoak ziren eta elkartzen hasi ziren abestiak entseatzeko. Astero musika elkarrekin entseatzeko ohitura bilakatu zen eta taldea sortzea erabaki zuten.

Taldearen izena erabakitzeko, hogeitaz hamar zerrenda zuten, eta, azkenean, adostasunera heldu eta Bloom –loratu– izena jarri zioten.

Musika estiloari dagokionez, ez dira estilo zehatz baten finkatzen. "Gure artean desberdinak gara eta abestiaren estiloak nahiko desberdinak dira, kontzertuetan eskaintzen ditugun abestiak estilo anitzekoak dira", diote taldekideek. Bost abesti propio dituzte bukatuta –lau euskaraz eta bat ingelesez– eta hamar bertsiorekin abesten dituzte. Beste sei abesti bidean daude eta lanean ari dira amaitzeko.

Ez daukate lokal propioa

Epe laburrera begira dituzten kontzertuen arabera elkartzen



Bloom taldeko bost kideak. BLOOM

da taldea, eta, kontzertuak dituztenean, bi edo hiru aldiz elkartzen dira entseguak egiteko. Bloom taldeak ez dauka lokal propioa eta itzarote-zerrendan dago: "Herrian aktibo dagoen taldea gara eta ez daukagu lokal propioa". Taldeko kide bat beste talde batean dago, eta, horri esker, gaztetxean entseatzeko aukera izaten dute.

Taldeak hiru kontzertu eskaini ditu: uztailaren Irati tabernan egin zuten debuta Perlata taldearekin batera, Elkartasun Egunean Taupa tabernan jo

zuten eta santamasetan gaztetxean izan ziren: "Oso pozik gaude, asko disfrutatzen dugu kontzertuetan eta taldean dautzuen giroa oso ona da".

Epe laburrera begira, beste hiru kontzertu eskainiko ditu talde arrasatearrak: bihar Añorgako gaztetxean izango dira, martxoaren 6an Oñatiko Ikatz tabernan eta martxoaren 14an Villabuenako gaztetxean.

Bloom taldea lanean jarraitzeko gogotsu dago eta etorkizunera begira abestiak grabatzeko asmoa daukate.

Ikusmen murriztua esperimintatzeko aukera

Ikusmen murriztua duten pertsonen errealitatea ikusteko aukera egongo da Kulturaten

A.A. ARRASATE

Retinosis Gipuzkoa Begisarek antolatuta, erretinosi pigmentarioa duten pertsonen errealitatea ezagutzeko aukera egongo da Kulturaten. Itsutasunera heldu gabe, bizimodu normala egitea zaila egiten zaie gaixotasun hau pairatzen duten pertsoneri; horregatik, egoera hau biztanleriari zabaldu eta gizartea sentsibilizatzeko helburuarekin antolatu dute.

Erretinosi pigmentarioa

Endekapenezko gaixotasuna da eta kanpo ikusmena nahiz ikusmen zorrotasuna murriztuz doa poliki-poliki bizitza guztian zehar.

Pertsona hauen errealitatea ulertzeko, hamabost betaurreko egongo dira mugikorreko aplikazio bati lotuta. Horrela, egoera erreal bat ikusiko dute gai-



Erabiliiko dituzten betaurrekoak BEGISARE

xotasun honek dituen zailtasunekin. Otsailaren 17tik 21era bitartean, ikusmen murriztua esperimintatzeko aukera egongo da Kulturateko klaustroetan, astelehenetik larunbatera bitartean, 17.30etik 20:30 bitarteko ordutegian.

Assata taldeak kontzertua eskainiko du Irati tabernan

Assata talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du bihar, otsailaren 15a, Irati tabernan. Azaroan, erritmo dantzagarriak eta musika beltzaren ukituak dituzten zazpi abestik osatzen duten *Dantzatu, madarikatuok!* diskoa argitaratu zuten. Bihar, gaueko hamaiketan Irati tabernan izango dira eta sarrera doakoa izango da.

Txotxparta jaiak, Ttakun txalaparta taldearen eskutik

Arrasateko Ttakun txalaparta taldeak 6. Txotxparta jaiak antolatu du martxoaren 6rako. Zabolain sagardotegian afora egingo dute, alboka, pandero eta txalapartaz girotuta. Prezioa 40 euro da –autobusa barne–. Izen ematea Jai Zale tabernan egin daiteke martxoaren 3a baino lehen. Aurretik esanda, menu beganoa ere egongo da aukeran.



Zure gustuko azala izan nahi duzulako

Aurpegi tratamenduak, laserra eta terapia mediko-estetikoak

Guk lagunduko dizugu, dei egiguzu!

AMAGARA

Estetika Zentroa



Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



Iazko Aratusteetako irudia. IMANOL SORIANO

Arreta osoa mozorroek eurenganatzeko sasoia

Aurten ez da bazkalaurreko kalejirarik izango, trikitalari taldea ezin izan dute-eta osatu. Bazkaria bai, bazkaria egonkortu da eta egingo dute hirugarren urtez jarraian. Mozorro desfilea eta lehiaketa egingo dituzte gero, eta txokolate jana eta disko-festa

Julen Iriondo ARAMAIO

Hurrengo zapatuan, hilak 22, izango da Aramaion Inauteri ospakizuna, eta bezperara arte dute aukera herritarrek mozorro lehiaketan izena eman ahal izateko –udaletxean–. Hain justu ere, ohi bezala, hori izango da egitarauko puntuetako bat.

Bazkalaurrekoa, beraz, bakoi-zaren kontu joango da aurten,

trikitalariak girotutako kalejirarik ezean. 14:30ean batuko dira gero, eskolako jangelan bazkaltzeko. 17:30ean ekingo diote eskolatik plazarako bideari, eta 18:00etan hasiko da mozorro lehiaketa –banaka edo taldeka, dirusariekin–, txokolatadarekin jarraitzeko, Alaiak jubilatuta taldekoen eta Itur Zuriko emakumeen laguntzarekin.

Bazkarirako txartelak

Aratusteetako bazkarirako txartelak aurrez erosi behar dira. Martitzena, hilak 18, izango da horretarako azkeneko eguna. Udaletxean erosi behar dira txartelak, 09:00ak eta 14:30ak artean, eta helduen menurako 17 euro ordaindu beharko dira; 10 urtetik beherakoen otordurako, berriz, 10 euro.

Eskolako ospakizuna, martitzenean

Herriko festaren ostean, eskolan martitzenean, hilaren 25ean, ospatuko dituzte Aratusteak. Ohi bezala, gai bat aukeratu eta harekin lotutakoak izango dira talde guztien mozorroak, mailaz maila. Natura salbatzeko eginbeharra izango duten superheroiak izango dira, aurten, neska-mutikoak. 14:30ean abiatuko dira plazara, ikuskizuna egiteko han.



Eskolako neska-mutikoak, iazko Aratusteetan. JULEN IRIONDO



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Konde Basoko Iluek, aurrera

Bazaar Xanmapelezuin taldearekin abestu zuten zapatuan Errekaleorren, eta, azken epaiaren arabera, Aitor Ugartek, Paula Amilburuk, Martin Abarrategik eta Xabi Igoak kontrarioek baino hobeto egin zituzten lanak; beren bi saioak irabazita, finalerdietan izango dira Aramaiokoak. Herriko beste taldea ariko da bihar, zapatua, gasteiztarren aurka, Izarra elkartearen.

Aramaion egongo da zenbait egunez Puntu Berde Mugikorra

Hilaren 19an, Untzillan egongo da, 11:00etatik 12:00etara; Barajuenean, 12:00etatik 13:00etara; Azkoagan, 13:00etatik 15:00etara; Uribarrin, 15:00etatik 16:00etara. Hurrengo egunean, 11:00etan Gantzagan hasi eta Etxaguenen eta Arexolan ere egongo da, ordubetz, 14:00ak arte. Hilaren 21ean eta 25ean, Ibarren egongo da, 11:00etatik 13:00etara.

Hilaren 24an batuko da berriro Irakurle Klub Feminista

1.362 km euri izango da oraingoan esku artean izango duten liburua. Goizalde Landabasoren eta Garami Goiaren lana aztertzeko saioa 18:00etatik 20:00etara izango da, kultura etxean. Emakume ahaztuak, desagerraziak, erreferentziakoak izan beharko luketen baina itzalean gelditu ziren emakumeak aldarrikatzen ditu liburua.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Hondakin industrialak

Hitz hauek idazteko unean, Zaldibarko luizian harrapatutako bi langileek desagertuta jarraitzen dute. Espero, hitzok argia ikusten dutenerako beraien familiek merezitako bakea lortu izana, inoiz lortzea posible bada, behintzat.

Astean, A-8tik pasatzea tokatu zait, ezbeharra gertatu zen toki beretik. Hotzikara batek zeharkatu du nire bizkarrezurra. Gorputzak ezin izan du ekidin hondakin industrialen tonen azpian bi pertsona daudela eta beraien gorpuak bilatzen dabiltzan langileak ere beraien osasuna arriskuan jartzen ari direla sentitzea.

Baina bada euskaldunok egin beharreko hausnarketa sakon bat. Gure herria herri industrial da. Hegotik iparrera eta ekialdetik mendebaldera, enpresa industrial txiki eta ertainez beteta dago gure paisaia. Bi langileen gorpuak desagertuta dirauten bitartean milaka zabor tona sortu dituzte lantegi horiek. Zer egin behar dugu hondakin industrial horiekin guztiekin?



Ander Fernandez Pacheco, Gernikarekin jokatzeko. J.B.MONTERREY

UEFAren Erregioen Kopa amaitu, Gernikara buelta

Ander Fernandez Pachecok Euskadirekin jardun du selekzio amateurren arteko txapelketan. 2-3 galdu dute Galiziaren kontra, eta amaitu dute, ondorioz, euren ibilia. Gernikaren helburuetan zentratuko da Pacheco aurrerantz; bertan dihardu aurten

J.I. ARAMAIO

Bigarren B Mailako Amorebietako taldeko jokalaririk izanda, Hirugarren Mailako Sestaon egin zuen Ander Fernandez Pacheco aramaiorrek aurreko denboraldiaren bigarren zatia, zornotzarrek utzita. Ondo joan zitzaizkion gauzak, bederatzik gol egin zituen eta bigarren itzulian.

Denboraldi amaieran Amorebietara itzuli zen, eta eurekin entrenatzen egin zituen denboraldiaurreko bi aste. Inigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak, baina, denboraldi honetan han minutuak izatea oso zail izango zuela jakinarazi zion, eta beste aukera bat bilatu behar izan zuen, ondorioz: "Amorrazioa eman zidan hori lehenago esan ez izanak. Gustura ibili nintzen Sestaon, jarraituko nukeen, baina bi fitxaketa eginak zituzten ordurako". Eta Gernikan hartu zuen ostatu: "Oso gustura nago hemen ere; taldearekin pozik nago, eta herrian ere asko maite dute futbola".

Bere garaian Beasainen izan zuen entrenatzailea, Urtzi Arrondo, Gernikan egotea izan zen aramaiorrek bertara joateko arrazoietakoa bat, zituen beste eskaintza batzuk baztertzuz. Bigarren B Mailatik jaitsi berri, baina, taldeak ez zuen hasiera ona egin: "Jaitzierarekin, jokalaririk asko taldea utzi zuten, eta berri pila bat ailegatu ginen. Asko kosta zitzaigun elkar eza gutzea eta talde moduan egitea". Kontua da Arrondo bota egin zutela, eta Oscar Vales jarri zuten entrenatzaile: "Orain nahikoa ondo ari gara".

Gernikarrak seigarren dira, gaur egun, Hirugarren Mailako laugarren multzoan, eta hiru puntura dute igoerako *play off*-a

EUSKADIK GALIZIARI EGINDAKO BI GOLAK ANDER FERNANDEZ PACHECOK SARTU ZITUEN

jokatzeko aukera ematen duen laugarren postua –hirugarrena, bederatzira; Pachecoren iazko taldea, Sestao, da liderra. Liga mailaz igotzeko borrokatzeko aukera ematen duten postuetan amaitzea da helburua.

Arlo pertsonalean, "dena jokatzeko" ari dela eta, pozik dago Aramaiokoa, nahiz eta pubalgia batekin arazoak izan –ez dio jokatzeko eragozten, eta hobera doa. Golei dagokienez dabil iaz baino panggalago; hiru egin ditu: "Baina asistentziak ematen eta parte hartzen ari naiz".

Selekzioarekin ere bai

Euskadiko selekzio amateurrekin UEFAren Erregioen Kopa jokatzeko aukera ere izan du Pachecok. Abenduan sailkapena lortu eta astean Galiziaren kontra jokatu dute Madrilen. 2-3 galdu dute, eta kanporatuak izan dira, ondorioz. Alde batetik, pozik egoteko moduan dago, baina, Aramaiokoa, bereak izan ziren eta Euskadiren bi golak.

Klubaren Arteko Txapelketaren finalerako sailkatu da Olaizola

9-22 irabazi zion Zeanuriko Beitiari, eta finalera begira eskuak berreskuratzea da orain bere ardura nagusia

J.I. ARAMAIO

Euskal Herriko Klubaren Arteko Txapelketaren finalerako –Orozkorekin– sailkatu zen aurreko asteburuan Julen Olaizola, Zeanuriko Danel Beitiari, euren frontoian, 9-22 irabazita. Bi zati izan zituen partidua. Aramaiorren pilotarekin jokatu zuten aurrenekoa; pilota bizia zen. "Biok gara indartsuak, eta oso parekatua joan zen lehia; asko ibiltzea eskatzen zuen pilota hark", zioen Olaizolak.

8-10 zihozten, luzea eta gogorra zihozten partidua; biek nabari zuten nekea, etxeakoak gehiago. Pilota aldatu zuen Beitiak, berea atera zuen, aurrekoa baino motelagoa: "Jokoan arriskatzea erabaki zuen, baina bera ez da aurrelari petoa, eta niri etorri zitzaidan hobeto pilota hura".

Olaizolak mendean hartu zuen kontrarioa; dena atera zitzaion



Julen Olaizola. J.I.

aurrean, eta txoratzen zegoen amaieran: "Ez daukat hitzik".

Hiru aste barruko finalerako eskuak berreskuratzea izango da orain inportanteena: "Esku biak apurtuta amaitu dut"; Zizurreko txapelketan ez jokatzeko erabaki du, ondorioz.

La Sportiva taldean ariko da Aitor Ugarte denboraldi berrian

Mendiko eskian euskal selekzioarekin buru-belarri, Aitor Ugartek ortzi-mugan du mendiko lasterketen denboraldia ere; aurreko sasoiaren emandako maila bikainaren ondoren, gainera, La Sportiva taldearekin ariko da aramaiorrek. Duela bi aste egin zuten taldearen aurkezpena, Bartzelonan, eta martxoan izango du lehen lasterketa.



Aitor Ugarte, DKS sarietan. I.SORIANO

Herrian triala ezagutzen

Orixol elkarteak antolatuta, triala aramaiorrei ezagutarazteko ekimena egin zuten aurreko asteburuan. Aretxabaletako Oztoko klubeko kideak gonbidatu zituzten, eta erakustaldia egin zuten plazan jarritako oztopoekin. Nahi zuten orok kirol hau probatzea ere bazen ekimenaren helburua, eta zenbait lagun animatu ziren. Antolatzaileak gustura geratu ziren.



I.SORIANO

Eguzki plaka bidezko energia sortzeko gertu

Dozena bat aretxabaletar etxean eguzki plakak jartzearen alde agertu dira eta horien nondik norakoak ezagutzen izan dira Arrasateko Ekitermik enpresan, erabakiarekin aurrera egiteko; taldea zabalik dago edonori, eta argibideak emateko gertu

Mirari Altube ARETXABALETA

Energia berriztagarriak "gero eta beharrezkoagoak" direla jakitun, etxean eguzki plakak jartzearen alde agertu da hainbat aretxabaletar. Arrasateko Ekitermik enpresara jo zuten argibide bila, eta, hainbat bilera egin ondoren, eguzki plakak bertatik bertara ezagutzen izan dira oraintsu.

Teknikoki zailtasunik ez

Orain dela urtetxo batzuk jarri zituen eguzki plakak etxean Oier Etxebarria aretxabaletarrak. Hark sustatu du horren aldeko harra beste batzuegan eta seizapzi bat laguneko taldetxo osatu dute. Efizientzia energetikoan adituak diren Ekitermik enpresako Xabier Lizaurrek dio gero eta gehiago direla interesa agertzen dutenak.

Lizaurrek azaldu du plakak jartzeko aukera ezberdinak daudela: "Etxe bakarrean edo bizilagunen erkidegoan. Kasu horretan, bizilagun guztiek ez daukate zertan parte hartu, gura dutenek bakarrik; eta gero, besteek ere interesa agertuz gero batu". Teknikoki ez duela zailtasunik azaldu du: "Sorkuntza bat dago eta instalakuntza elektriko batean legez kableak jartzea da kontua. Instalakuntza eginda dagoen une beretik hasiko gara jasotzen onurak".

Onurak zeintzuk diren ere aipatu du: "Gure kontsumoaren energia zati bat era berriztagarriaren sortutakoa da. Sorkuntza era lokalean egiten da eta inolako menpekotasunik gabe. Eta ekiditen dugu kanpotik datorren energiaren zati bat kontsumitu beharra, fakturan ere igarri egiten dela".

Zenbat energia sor daitekeen jakiteko norberaren kontsumoa eta instalakuntza egiteko erabiliko baliabideak hartu behar direla kontuan gaineratu du: "Europa aldean badabilta bul-



Hainbat herritar eguzki plakak ikusten Ekitermik enpresan. MIREN ARREGI

"Kontsumitzen dena sortzea da kontua"

IÑIGO IÑURRATEGI
HERRITARRA

Aurten, eguzki plakak jarriko ditu etxean.

Jartzeko gertu?

Bai, bai, guk erabakia hartuta dugu. Ekitermik-era etorri gara gertutik ezagutzera.

Zergatik erabaki hori?

Erabaki inteligentea dela esango nuke, gaur egun energia kontuak zelan dauden ezagututa. Koherentzia kontua da, eta ekonomikoki ere badu interes puntua; etekinik ez da ateratzen, baina defizitariora

tzatzen halako instalakuntzak eta hemen baino eguzki gutxiago dute; hortaz, ez da aitzakia".

Laguntzak badaude

Eguzki plakak jartzeko hainbat erakundek dituzte laguntzak.



M.A.

ere ez da. Kontsumitzen dudana sortzea izango litzateke kontua; era berean, saretik ez gara joango eta argindar faltarik ez dugu izango sekula.

Zer behar da horretarako?

Teilatuia izan behar da, eta teilatuan lekua. Eta gero, norberaren kontsumo beharren azterketa egin behar da, jakiteko zenbat plaka behar diren autokontsumo maila batera iristeko.

Udalak IBIaren hobariaren bidez laguntzen du eta Energiaren Euskal Erakundeak ere iragarri ditu beste batzuk. Edozein argibide gura izanez gero edo izena eman, taldea zabalik dago: eguzkialagun@outlook.com.



ALEko eta Iturbideko ordezkariak Eslovakiako irakasleekin. MAIDER ARREGI

Eslovakiako lau irakasle ALE ezagutzera etorri dira asteen

Azaro eta abendu artean, ostera, Aretxabaleako hamabi ikasle izan ziren han, Erasmus proiektuari esker

M.A. ARETXABALETA

Orain dela hiru urte sinatu zuen hitzarmena Aretxabaleta Lanbide Eskolak Eslovakiako ikasle batekin Erasmus proiektuaren bueltan, eta horren emaitza da osasun arloko lau irakasle etorri izana: "Sistemak alderatu ditugu, hemengo metodoa ezagutu eta interesak elkarbanatu", adierazi dute.

Hainbat bisita egin dituzte aste guztian; besteak beste, Aspacen eta Arrasateko Iturbide egoitzan egon dira. "Aspacen harrera beroa egin ziguten eta gertutasunak atentzioa eman

ziren, baita antolatze ere", adierazi du ALEko irakasle Lourdes Mendiak.

Elkartrukearen emaitzarekin pozik agertu dira. "Erasmus proiektua ona da, beste sistema batzuk ezagutzeko bide ematen die eta. Bestelako gaitasunak eta konpetentziak ere eskuratzen dituzte", diote Eslovakiakoek.

Mendia ere bat etorri da: "Ikasleendako erronka handia izan zen hara joatea, eta oso gustura itzuli dira". Hamabi lagun egon ziren iazko urte bukaeran, bi erizaintza laguntzaile ikasleak eta hamar automozioakoak.

Kontsumo greba feminista berbetarako gai, martitzenean

Berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako kultura berri bat eraikitzearen beharraz jabetuta, *Kontsumo greba feministarantz martxoan eta beti!* tailerra antolatu du Berdintasun Sailak Setem Hego Haizea GKEarekin elkarlanean.

Ekologistak Martxan elkarte-kideak etorriko dira datorren martitzenean, hilaren 18an, Arkupera (bigarren solairuko aretoa, 18:30), gaiaren gaineko argibideak ematera eta solasaldia bideratzera. "M8 aukera ona izan daiteke kontsumitzaile feminista gisa ahalduntzeko eta gure kontsumo-erabakien bidez dugun indar horretaz jabetzeko", adierazi dute.

Maskarak egiten irakatsiko dute Gu Haziak Gara-koek

Aratuste jaietan janzteko maskarak diseinatu eta josteko ikastaroa eskainiko dute Gu Haziak Gara elkarte-kideek gaur, egubakoitza, Iralabarri plazan duten egoitzan (17:00-19:30). Atzera utzitako materiala erabiliko dute horretarako, eta Joana Manzidor artistak gidatuko du eskola.

Argibide gehiago gura izanez gero edo izena eman, hona hemen bideak: guhaziakgara@gmail.com eta 681 65 59 39. 12 urteko beharako neska-mutikoez guraso baten laguntzarekin parte hartu beharko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Prezioa 15 euro da, erabiliko den materiala barne.



Udal ordezkarriak, gurasoak eta umeak, sukaldariak eta Txapel Txin eta Txintxin, datozen jaiegunen berri ematen. MIRARI ALTUBE

Aratusteak iragartzera dator Txapel Txin bihar

Berrikuntza asko izango dira zapatuan; besteak beste, musikak girotutako kalejirak, herri bazkaria komentuan eta indartutako txapel lehiaketa. Aratuste-domekarako ere badaude nobedadeak: bazkari 'golfoa' eta nerabeendako ekintzak, esaterako

Mirari Altube ARETXABALETA

Aratuste jaiak ondo pasatzera gonbidatzera etorriko da bihar, otsailaren 15a, Txapel Txin. Hamahirugarrenez egingo den jaiari *San Valentxin* jarri diote izena eta berrikuntza askorekin dator, Karnabalen Lagunak talde antolatzaileko kideek diotenez: "Beti berdina egiteak nekatu egiten du, eta aldatzeko ordua

zen". Aratusteetan ere izango dira nobedadeak.

Musikak girotutako eguna

"Oso erromantiko" etorriko direla Txapel Txin eta Txintxin aurten aurreratu du Ibai Zangitu antolatzaileak: "Maitasunaren geziak jaurtitzeko gertu". Egunez ospatzeko jai antolatu gura izan dutela azaldu du, eta

hori indartu dute hainbat kalejirarekin; besteak beste, izango dira erraldoi txikiena –umeek eta gurasoek gidatuta gaiteroen laguntzarekin–, kamioi gainean musika lagun egingo duten *Love, truck, party*-a eta elektrotxaranga-garena.

Aurten, herritarrak ere gonbidatu gura izan dituzte bazkaria, eta 60 lagun animatu dira

"herriko sukaldari ospetsuenek" gertatutako dieten paella-janera.

Torrada lehiaketarik, oster, ez da egongo, "azken urteetan behera egin duelako parte-hartzaile kopuruak", baina, horren ordez, txapel lehiaketa indartu dute sari hobeeekin: "Txapelak jantzi ditzatela herritar guztiek, eta originalak badira, askoz hobeto!". Iluntzean, Txapel Txinek plazan egingo duen pregoiarekin Aratusteetan murgilduko ditu herritarrak.

Lexuri Doyagueren kartela

Bestalde, mozzorro jai iragarriko duen kartela aukeratu du epaimahaiak: Lexuri Doyague arrasatearrak egindakoa, hain zuzen ere. Lehiaketa horrek ikusmina sortu du eta kanpotik ere hainbat jaso dituztela iragarri du Inma Miguelek, Kultura teknikariak; besteak beste, Valentziatik eta Ciudad Realdik: "Hemezortzi izan dira jasotakoak, eta kalitate handikoak".

Beste lehiaketa bat ere izango da, aurreko urteetan legez. Aratuste giroa erakusten duten bi balkoi sarituko dituzte eta saria izango da Aretxarten erabiltzeko 100 euroko bina bonu. Izena aurrez eman behar da, Arkupen –943 08 10 01–, eta balkoiek apainduta egon beharko dute hilaren 21etik 25era bitartean. Eta Aratusteetako ospakizunei ekingo diete hilaren 21ean, Leizarra musika eskolako Egunakoz Argal jaialdiarekin.

Nerabeendako ekintzak

Berritasunen artean dago Iturrigorri pilotalekuan egingo duten bazkari *golfoa*. Karnabalen Lagunek antolatuta, 410 bat lagun elkartuko dira. Eta Udalak antolatuta kiroldegian egingo den bazkarian ia 600 lagunendako

lekua izango dute: "Txartel gutxi batzuk oraindik geratzen dira", adierazi du Miguel teknikariak; horiek erosteko azken eguna gaur izango da, egubakoitza, Arkupen.

Nerabeendako ekintzak antolatzearen alde egin du Udalak azken urtean, eta Aratuste-domekan ere izango dituzte hainbat ekitaldi. *Photocall*-a izango dute arratsaldean, Moto DJaren emanaldia plazan, afari merienda komentuan –norberak eroandako jatekoarekin– eta txokolate-jana gauerdian.

Martitzenean jarraituko du jai giroak, eta orduan, ikastetxeetako neska-mutikoen txanda izango da.

Ainhoa Cabero zinegotziak jaietara gonbidatu ditu herritarrak: "Animatu guztiok Aratusteetara eta jaiok ondo ospatzera!".

Txapel Txin eguna

- **12:00** Kalejira erraldoi txikiekin eta gaiteroekin.
- **13:00** *Love truck party* kalejira.
- **14:30** Herri bazkaria komentuan.
- **Ondoren**, bingo musikatua.
- **18:00** AZ Gaubelak Herriko Plazan.
- **18:30** *Love truck party* kalejira.
- **19:00** Pregoia eta txapel lehiaketa, Herriko Plazan.
- **Ondoren**, txorizo mokadutxo eta sagardoa.
- **19:30** Orkresta elektrotxaranga kalean.

Igelen kontuak ezagutzen

Corrado Masacci txotxongilo-egile ezagunak igelak erakutsi dizkie neska-mutikoei egunotan. *Igelaren itxuraldaketa* erakusketarekin anfibio horren metamorfosiaren gaineko kontuak erakutsi dizkie, baita txotxongiloen gaineko sekretuak ere. Datorren astean ere egingo ditu bisita gidatu gehiago, eta erakusketa hilabete bukaera arte egongo da Arkupen.



ARANTZAZU EZKIBEL

'Liburutegiko sekretuak' kontaktuko ditu Ane Gebarak

Liburutegiak sekretuz beteta daudela dio Ane Gebara ipuin-kontalariak, eta horien berri emango du bihar, zapatua, Haur liburutegian (11:30). "Etorri eta nik kontaktuko dizkizut, batzuk ahots sendoarekin eta beste batzuk ahopeka. Zatoz zure buru eta belarriak sekretuz betetzera!". 4 eta 8 urte bitarteko umeendako kontaketa izango da.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



2019ko Zuhaitzaren Egunean, herritarrak Txarapean zuhaitzak landatzen. IMANOL SORIANO

Zuhaitzaren Eguna egingo dute etzi, domeka

Otsailaren 16an, domekan, Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute herrian. Eta aurten, hain zuzen ere, zazpiko futboleko zelai berriaren inguruan landatuko dituzte zuhaitzak: espezie ezberdinetako hogeita hamabost ale

Narora Urien Berrio ARETXABALETA
Otsailaren 16an, Zuhaitzaren Eguna ospatuko da Aretxabaletan. Urtero bezala, zuhaitzak landatuko dituzte herriko hainbat partaiderekin batera. Landaketa lanetan Basabeazpiko, Almengo eta Kurtzebarriko ikasleek hartuko dute parte. Horiakin batera, aurreko urteetan bezala, Aretxabaletak Landaketa Taldie eta Makai Basogintza arituko dira landaketa eta koordinazio lanetan.

35 zuhaitz inguru

Aurten, gainera, Ikerlanek espezie ezberdinetako zuhaitz autoktonoak emango ditu landaketa egiteko. Guztira, 35 bat zuhaitz landatuko dira. Ikerlanen eskutik 27 bat, gutxi gorabehera: pagoak, haritzak, urkiak eta astigar arruntak. Makai Basogintza taldeak jarriko ditu gaintzekoak: likindabarrak eta lizarrak. Beste urte batzuetan baino zuhaitz gutxiago landatuko dira aurten. Izan ere, 2017an

73 zuhaitz inguru landatu ziren Mondragon Unibertsitate inguruan, 2018an 50 zuhaitz Ibarra futbol zelaiaren ondoan eta 2019an 40 zuhaitz inguru Txarapean.

Hala ere, aurtengoa landaketa berezia izango da, zuhaitz autoktonoak landatzeko aukera egongo baita. "Hainbat zuhaitz landatuko ditugu aurten ere, eta partaidetza handia espero dugu. Egun hau berezia izaten da guztiontzat, herritarren elkarlana eta aldi berean ingurumenaren zaintza sustatzen baita", azaldu dute antolatzaileek.

Deialdia herritarrei

Urtero bezala, zuloak aurretik prestatuko dira, zuhaitz bakoitzaren joango den tokia adierazi

HOGEITA HAMABOST ZUHAITZ LANDATUKO DIRA, ZAZPIKO FUTBOL ZELAI BERRIAREN INGURUAN

eta prestatuz. Landaketa otsailaren 16an, domekan, izango da. Zuhaitzak landatzera deitu dituzte herritarrak Udalak antolatutako Zuhaitzaren Egunaren baitan. Hamaiketean Herriko Plazan elkartu eta zazpiko futbol zelaiaren ingurura joango dira landatzera. Lanak bukatutakoan mokadutxoia egongo da parte hartu duten herritar guztientzat. Antolatzaileek herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte eta Udaleko Ingurumen Sailak ekimenean parte hartzera gonbidatu ditu ikasleak, irakasleak zein gurasoak, baita gainerako herritarrak ere, egun horrek aurreko urteetan izan duen arrakasta lortze aldera. "Beste urte batzuetan 150 pertsona inguru bildu gara, eta aurten ere kopuru hori edo gehiago biltzea espero dugu. Ume zein gurasoek asko disfrutatzen dute elkarrekin, eta, aldi berean, herriarentzat onuragarria den zerbait egiten ari dira", azaldu dute antolatzaileek.



Zazpiko futbol zelaiaren entrenamendu saio bat. M.A.

Zazpiko futbol zelai berriaren arauak zehaztu ditu Udalak

Edonork erabili ahal izango du, ordutegi baten barruan, eta UDAk lehentasuna du erreserbatzeko orduan

M.A. ARETXABALETA

Markole auzoan dagoen futbol zelaia edonork erabili ahal izango du eta horrek ordutegi bat duela jakinarazi du Udalak. Hona hemen: asteleheneetik egubakoitzera 07:00etatik 21:30era; zapatuetan, 08:30etik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 09:00etatik 20:00etara. Uda partean itxiera ordu horiek malguagoak izango direla aipatu dute.

Erreserbatu ere egin ahal izango da, eta, horretarako, Ibarra kiroldegira joan beharko da: 943 03 98 42 telefono zenbakira deituta edo kirola@aretxabaleta.eus

helbidera idatzita. Eta erreserbatutako ordu bakoitza 40,45 euro ordaindu beharko da. Kiroldegiko abonatu ez denak hango aldagelak erabili ahal izango ditu; horretarako, 2,01 euroko sarrera ordainduko du.

Bideo-kamera bidez zainduta

Erabilzaileek betebeharrak ere badituztela gogorarazi dute: zelaia eta materiala behar bezala zaindu beharko dute eta debeatuta egongo da sua egitea, beirazko botilak eta edalontziak sartzea eta han jatea. Zelaian bideozaintza-sistema jarri dute.

Emakumeen frontenis txapelketa egingo du UDAk, zazpigarrenez

Martxoa gerturatu ahala emakumeen frontenis txapelketa antolatu izan du UDAk Udalaren laguntzarekin, eta aurten ere badator, zazpigarrenez. Iturri-gorri pilotalekuan jokatuko dituzte partiduak bi aste bukaeratan; hona hemen egunak: otsailak 29 eta martxoak 1, 7 eta 8. Martxoaren 8an, domeka, hain zuzen, izango da finala.

Izena emateko epea zabalik izango dute otsailaren 25a arte eta bikoteak 10 euro ordaindu beharko ditu; hona hemen horretarako helbidea: emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com.

Bertako produktuekin egindako saskia izango da bikote irabazlearentzako saria.

OHARRAK

Kintoen dantza saioa

2001ean jaiotako neska-mutilek dantza saioa eskainiko dute domekan, Herriko Plazan (19:00).

Kantari grabaketa

Kantari karaoke saioaren grabaketak egingo ditu Goiena telebistak aste bukaeran Arkupen; zapatuan goizez (11:00-14:00) eta domekan arratsaldean (15:30-19:30).

Odol ateratzera

Arabako odol bankuko autobusa joango da Durana kalera hilaren 20an, eguena, eta herritarrek odola emateko aukera izango dute (16:45-20:00).

Kike Amonarriz, oholtzan, Ondarroan egindako *Jakinduriek mundue erreko dau!* ikuskizunean. ESKORIATZAKO UDALA

Bi diziplina, batuta: zientzia eta bertsolaritza

'Jakinduriek mundue erreko dau!' ikuskizuna izango da zapatu honetan, 19:30ean, Zaldibar antzokian. Zientzialariek egingo dituzten hitzaldietatik bertsoak aterako dituzte Uxue Alberdik eta Andoni Egañak, Kike Amonarrizen gidaritzapean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatutako *Zientzia argitan, egia ala gezurra* egitasmoaren bigarren edizioa martxan da. Zientziaren dibulgazioa helburu duen egitasmoari eguaztenean eman zitzaion hasiera, egitarauko lehenengo hitzaldiarekin. Hain zuzen, Ignacio Lopez-Goñik *Mikrobioak gure bizitzan* izeneko hitzaldia eskaini zuen. Gaur, berriz, sexuaren mitoez hitz egingo du Laura Moran sexologoak, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Hala ere, egitarauko hitzordu bereziena bihar, zapata, izango da. Izan ere, zientzia eta bertsolaritza uztartuko dira *Jakinduriek mundue erreko dau!* ikuskizunean.

Maila handiko protagonistak

Ikuskizun berritzailea eta bitxia izango du zapatuko saioak. Eta ez hori bakarrik; izan ere, zientzia eta bertsolaritza uztartzeaz batera, protagonista apartak batuko dira bertan: Uxue Al-

berdi eta Andoni Egaña, bertsolariak; Iker Badiola, Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko ikertzailea eta irakaslea; Eider Bilbao, Plentziako Itsas Estazioko ikertzailea; Onintze Salazar, Euskalmeteko meteorologoa; eta zientzialariak. Aurkezle eta gidaria, berriz, Kike Amonarriz izango da.

"Itxuraz elkarren artean oso urruti dauden zientziak eta bertsolaritzak lotura aurkituko dute ziklo honetan ohiko mugak gainditu eta jendartera iristeko, *Jakinduriek mundue erreko dau!* saioaren bitartez. Bost urteko ibilbidea egin ondoren Bizkaian eta Gipuzkoan zehar, lehen aldiz helduko da saioa Eskoriatzara", adierazi du Aran-

txa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Hitzaldietatik bertsoak ateraz

Hamar minutuko hiru hitzaldi egongo dira. Hitzaldiak euskaraz izango dira eta ikertzaileek eta zientzialariek eskainiko dituzte. Honako hauek izango dira gaiak: *Serrano urdaiazpikoak jabugo bihurtzen*; *Itsasoa, plastikoaren gotorlekua*; eta *Aldapan gora*. Hala, gai horien bueltako hitzaldi bakoitzaren ostean, Kike Amonarrizek bertsolariei oinarriak eta doinuak ezarriko dizkie, bertsoak bota ditzaten. Horrez gain, *Bertsozientzia* saioan, ikusleen jakinduria neurtuko da, modu berezi samarrean.

"Ikuskizun landua da ikusiko duguna, eta, une dibertigarriaz gozatzeaz batera, publikoak ere izango du bere parte-hartzea. Sarrerak doan izan arren, alde aurretik Manuel Muñoz kiroldegian eskatu daitezke, antzokiaren edukiera mugatua baita", adierazi du Unzuetak.

'BERTSOZIENTZIA'
EKITALDIA 19:30EAN
IZANGO DA, ZALDIBAR
ANTZOKIAN, BIHAR,
ZAPATUA

Eskoriatzako neska-mutilak, abesteko eta dantzatzeko prest

300 neska-mutiko inguru batuko dira asteburuan Arkupe aretoan, Kantari saiorako grabaketak egiteko

I.B. ESKORIATZA

Kantari saioaren zazpigarren ediziorako grabaketak zapatu honetan, otsailaren 15ean, 11:00etan, hasita eta otsailaren 16an, domekan, 15:30ean hasita egingo ditu Goiena telebistak. Zapatuan lau saio grabatuko dituzte eta domekan, berriz, beste lau; guztiak, Aretxabale-tako Arkupe kultura etxearekin areto nagusian.

Aretxabale-tako eta Eskoriatzako 300 neska-mutiko inguru izan ziren joan den asteburuan entseguak egiten, eta, abestu

beharreko euskal kantak ondo ikasita eta dantza egiteko pauso landuak ere prest, asteburu honetan egingo dituzte grabaketak.

Hori horrela, euskal kantuen festa izango da bertan, eta, besteak beste, Huntza taldearen *Aldapan gora*, Gatiburen *Euritan dantzan*, En Tol Sarmientoren *Musikaren doinua*, Pirritx, Porrotx eta Marimotsen *Iritsi da eguna* eta beste hainbat kantu abestu eta dantzatuko dituzte familiakoen, lagunaren eta telebista kameraren aurrean.

Erretiratuentzako oinarriko informatika ikastaroa

Olazar Erretiratu Elkarteak erretiratuei zuzendutako oinarriko informatika ikastaroa antolatu du martxorako. Hain zuzen, Microsoft Windows sistema eragilea izango dute aztergai, eta saioak elkarte bulegoan izango dira, 10:00etatik 11:30era bitartean, honako egun hauetan: martxoak 3, 5, 10, 12, 17, 19, 24 eta 26.

Plazak mugatuak dira, eta Olazar Erretiratu Elkarteko bazkide direnek 30 euro ordaindu beharko dituzte ikastarora joateko. Bazkide ez direnek, berriz, 45 euro ordaindu beharko dituzte.

Ikastarora joateko interesa dutenek informazio gehiago eskatu dezakete Olazar Erretiratu Elkarte bulegoan, eta izena eman gura dutenek martitzenetan edo egueneetan joan beharko dute, 11:00etatik 12:30era bitartean.



OIHANA ELORTZA

Biblioteka txiki geratu da

Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarrak *Al timón de mi barco* bere bigarren liburuaren aurkezpena egin zuen pasa den egubakoitzean, Eskoriatzako bibliotekan. Iñaki Agiriano bibliotekako arduradunak lagunduta egin zuen aurkezpena, eta 70 herritar inguru batu ziren liburuaren nondik norakoak entzuteko.

Emakumeak lehenengo planoan, pausoak emanez

Aresko emakume martxa Martxoaren 8an izango da. Aurtengoa laugarren edizioa izango da, Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan amaituko da eta omenduak izango diren emakumeen izenak proposatzeko epea zabalik dago

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoaren 8an egingo da laugarren Aresko emakume martxa. Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan amaituko da aurten eta parte hartzeko eta omenduak izango diren emakumeen izenak proposatzeko epea zabalik daude. Ibilbidean aldaketa txiki batzuk egongo direla aurreratu dute aurkezpenean antolatzaileek. Hala ere, urterot moduan, lau kilometroko bidea izango du martxak.

"Emakumea bigarren planoan gelditu beharrean, gizonezkoekin batera aurrean" agertzeko aldarrikapena egingo du aurten ere Aresko emakume martxak. Eskoriatzatik Aretxabaletara izango da aurten ere, eta, aurreko hiru aldietan bezala, herri bakoitzeko emakume bana omenduko dute. "Eskoriatzako kirol elkarteak, UDAK eta Aresko saskibaloia eskolako gurasoek hartuko dute erabakia, baina proposamenak egiteko aukera otsailaren 22ra arte dago zabalik", adierazi du Areskoko Maitane Dieguezek.

Aldaketak ibilbidean

Martxa 11:00etan abiatuko da Eskoriatzatik eta 10:45ean egingo diote Eskoriatzako emakume bati omenaldia, plazan. Aretxa-



Ibarraundin egindako Aresko emakume martxaren aurkezpenean. OIHANA ELORTZA

OMENDUAK IZANGO DIREN EMAKUMEAK PROPOSATZEKO AZKEN EGUNA OTSAILAREN 22A DA

baletakoari berriz, martxa amaieran, 14:00 aldera egingo diote bere herrian; kasu honean ere, plazan.

Errepideko zati bat ibilbidetik kanpo utzita, biblioteka albotik pasako direla aurten adierazi

zuten aurkezpenean. "Eskoriatzako plazatik abiatuko gara eta handik biblioteka aldera egingo dugu. San Pedro auzotik Intxaurtxuetara joango gara eta han bidegorrira pasako gara, Aretxabaleta aldera joateko. Han, Aretxabaletan, errepide orokorra hartu beharrean atzeko aldetik joango gara, ibaia dagoen aldetik", azaldu du Dieguezek.

Martxan parte hartzeko izenematea zabalik dago; otsailaren 22ra arte eman ahal izango da, Aretxabaletako eta Eskoriatzako kiroldegietan.

Kamiseta berriak

Aurtengo Aresko IV. emakumeen martxaren leloa *Indarrak batu eta inoiz ez etsi* da.

Izen-ematea, kiroldegietan

Martxan parte hartu nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu, eta, opari gisa jasoko duten nikiaren neurria jarrita, Martxoaren 8an jasoko du parte-hartzaile bakoitzak dagokion kamiseta.



Aurtengo martxarako kamiseta berria. ARESKO



Piano-jole gazteak Beheko Errota musika eskolan. BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA

"Esperientzia ederra" bizita bueltatu dira piano-joleak

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako zazpi ikasle izan dira Andoaingo 15. piano jaialdian

I.B. ESKORIATZA

18 urtetik beherako piano-jole orori zuzendutako jaialdia izan zen joan den asteburuan Andoaingo 15. piano jaialdian: Elene Okina, Oihane Garzia-Etxabe, Nahiare Carrasco, Sofia Casado, Maren Bruña, Madi Gabilondo eta Nerea Larrañaga; eta eurekin batera, Araceli Guridi irakaslea. "Esperientzia ederra" bizi dutela bertan adierazi dute, eta, zapi, diploma eta domina jasota bueltatu dira guztiak.

Egindakoaz "pozik"

Asteburu osoan zehar estilo askotariko obra ugari eskaini zituzten piano-jole gazteek; modalitate ezberdinetan, gainera.

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako honako zazpi ikasle hauek izan dira Andoaingo 15. piano jaialdian: Elene Okina, Oihane Garzia-Etxabe, Nahiare Carrasco, Sofia Casado, Maren Bruña, Madi Gabilondo eta Nerea Larrañaga; eta eurekin batera, Araceli Guridi irakaslea. "Esperientzia ederra" bizi dutela bertan adierazi dute, eta, zapi, diploma eta domina jasota bueltatu dira guztiak.

Batzuentzat ezaguna da Andoaingo jaialdia, aurretik ere izan direlako bertan. Txikiendakoko, ordea, lehen aldian izan da.

Sala Bros & Sabin taldearen bertsioak, gaur, Inkernun

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, Arrasateko Asier eta Igor Sala anaiak eta Bilboko Sabin Gauresti izango dira gaur, Inkernu tabernako ohol-tza gainean, 22:30ean. Formatu akustikoan eskainiko du kontzertua hirukoteak, eta zenbait bertsio ezagun eskainiko dizkiete bertaratzen direnei; besteak beste, Bruce Springsteen, Lynyrd Skynyrd eta Social Distortion taldeen kantuak izango dira entzungai.

Gaurkora animatzeko eskatuz, hurrengo kontzertuen berri ere eman gura izan dute antolatzaileek. Honako hauek lotuta dituztela adierazi dute: Sharon Stoner, Barne Guda eta Siroka.

OHARRAK

Mendi irteera

Makila eskuen-en bueltan, Buztinatek antolatuta. Domekan 09:30ean plazan batuta: Alberja zaharra, Nebera, Mazmela, Buztinate.

Astunera eskiatzera

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, Astunera joango dira eskiatzera asteburuan zenbait herritar. Izena emateko azken eguna gaur da, Namasten belar-dendan, eta prezioa 140 euro da.

Ziklon eta Zumba day

Zapatuan, 09:00etatik aurrera, indoor txirrindularitza saioa, zumba eta strong saioak izango dira frontoian eta Manuel Muñoz kiroldegian.



1970. urtean jaiotakoen talde argazkia, Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL SORIANO



1999. urtean jaiotakoak.



2000. urtean jaiotakoak poteoan.



1969. urtean jaiotakoen talde argazkia.



Argazkia ateratzen.

Urte berekoak batu, bazkaldu eta festa

Kinttaden Eguna egiten den bederatzigarren urtea izan da, eta, beste behin, jende asko animatu da festara. Bazkaltzeko, beteta izan dira herriko taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoak, eta ondoren, festa giroa izan da nagusi Eskoriatzan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa bilakatu da Kinttaden Eguna Eskoriatzan, joan den zapatuan ospatutakoa, eta aurten ere ez du hutsik egin. Bederatzigarren edizioa izan da, eta, ekitaldi berezirik antolatzen ez den arren, urte berean jaiotakoak batu, elkarrekin bazkaldu eta, bide batez, parranda egiteko hel-

burua duen eguna arrakastatsua izan da, beste behin. Horren isla da, herriko taberna eta elkarteak jendez beteta izan direla. Hala ere, gaueko ordu txikietan izan da istiluren bat edo beste.

Dantza eta zapi barik

Ohiturari jarraituz, egun horretan bazkaltzeko batzen diren kintada gehienek zein urtetakoak

diren adierazteko zapia eramaten dute, baina bereizgarri hori barik ere irten dira asko aurten. Horrekin batera, zenbait urtetan Santa Ageda dantzak ere egin izan dira plazan; kintada ezberdinetakoek nahastuta dantzatu ohi izan dutena. Aurten, ez da halakorik izan, baina, herrian errotutako festa izanik, egiten jarraituko dute, seguru.



Iaz, amerindiarren moztorroak jantzita irten ziren kalera zenbait gatzagar. GOIENA

'Itsasoa' da Inauterietarako aukeratu duten gaia

Gaztetxoendako jolasak, herri bazkaria hotelean eta DJa bazkalostean; horiek izango dira Inauteri-zapatuan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagan otsailaren 22an, zapatuan, ospatuko dituzte Inauteriak, eta, urteetan egin duten moduan, gai jakin baten bueltan moztortuko dira zenbait herritar. Aukeratutako gaia *Itsasoa* da, eta horren bueltan jantzi ugari ikusi ahal izango dira herrian. Horrekin batera, herri bazkariak ere ez du hutsik egingo: Soran etxean, hotelean, egingo da.

Gurel guraso elkarteko kideak eta herritarrak elkarlanean aritu dira Inauterietako egitaraua prestatzen, eta, lehenbizi, moztortzeko gai aukeraketa egin

dute. Labidea tabernako arbelean zenbait gai proposatu, eta horietatik boto gehien jaso dituen gaia *Itsasoa* izan da.

Herri bazkaria DJa

"Inauteri-zapatuan, 12:00etan gaztetxoendako jolasak izango ditugu San Miguel plazan eta herri bazkaria, berriz, Soran etxean izango da. Hala, Labidea tabernan jarriko ditugu txartelak salgai egunotan. Bazkalostean, DJ Humerto musikari elgoibartarra izango dugu giroa jartzen", adierazi du Beñat Agirreurretak, Kultura zinegotziak.

'Vasco-Navarro trenaren Arrasaten' dokumentalaren proiektzioa

Otsailaren 28an, egubakoitza, Leintz Gatzagako herri liburutegian izango da ikus-entzunezkoa, 19:00etan

I.B. LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak antolatuta, *Vasco-Navarro trenaren Arrasaten* izeneko dokumentala proiektatuko da otsailaren 28an, 19:00etan, liburutegian. Arrasateko Udal Bibliotekak egindako ikus-entzunezkoa ikusteaz batera, aurkezpena egingo dute gonbidatu izango diren Olatz Bartolomek eta Alberto Loitik.

Vasco-Navarro trenak Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa lotu zituen, 143 kilometroko burdinbidearekin. Leku bakoitzean

jendeak izen bat eman zion: Transarlabaniano, Trenico, Cangrejero... Obrak 1887an hasi ziren eta 40 urte iraun zuten, arazo ekonomiko eta tekniko ugari sortu zirelako. Oztupoak gaitututa, oso tren modernoa eta garrantzitsua izan zen bere garaian; komunikazioa eta industria garapena bizkortu zituen, eta zeharo aldatu zuen herritarren bizimodua. Azkenengo joan-etorriak, berriz, 1967an egin zituen. Hala, historiaren pasarte hori gogorazteko egindako dokumentala da.



2011n berreskuratu ostean, aurtan hamar urte egingo ditu Eguen Gizeneko sorgin dantzak; hartzak ez du hutsik egingo. GOIENA

Sorgin dantzaren bueltan hasita, eguneroko grisari kolorea emateko egunak

Aratusteetako ekintzak otsailaren 19tik 25era arte izango dira eta hilaren 22a izango da egunik indartsuena. Eguen Gizeneko sorgin dantzak hamar urte beteko ditu Xamatx taldekoek berreskuratu zutenetik; azken urteotan, musika eskolakoek interpretatzen dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Otsailaren 19tik 25era bitartean, askotariko ekintzak izango dira Bergaran, Aratusteen bueltan. Ekintzei dagokien ez dago nobedade aipagarriarik, baina badago nabarmentzekoa den urteurren bat. Izan ere, 2011n berreskuratu zuten aspaldiko ohitura den Eguen Gizeneko sorgin dantza, Aratusteei hasiera emateko balio izan duena; aurtan, hamar urte beteko dira Xamatx taldekoek berreskuratu zutenetik. Azken urteotan, musika eskolakoek interpretatu dute, San Martin plazan, Fraiskozurin, Iralan eta Barrenkalean.

Bi ikuskizunetarako sarrerak

Egitarauan, klasikoak diren ekitaldiek ez dute hutsik egingo: Bergarako Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua otsailaren 21ean

frontoian (22:30) *Bildurra nik?* izenburua du aurtengoak; sarrerak atzo iluntzean jarri zituzten salgai lehen aldiz eta agortu ez badira hilaren 18tik aurrera Internetez erosi ahal izango dira. Bestalde, otsailaren 22an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi dantza* emanaldia ikusi ahal da frontoian (18:00). Sarrerak gaur jarriko dira salgai lehen aldiz; Internetez lerro bakoitietako sarrerak eta Seminarioko leihatilan lerro bikoitietako sarrerak: bi ordu egongo dira sarrera fisikoak erosteko, 18:00etatik 20:00etara.

EGITARAURAKO 30.000 EURO BIDERATU DITU UDALAK; FRONTOIKO BI IKUSKIZUNETARAKO, IA 10.000 EURO

Mozorrotzeko dei orokorra

Otsailaren 22a izango da aurtan Aratusteetako egun handiena, Aratuste-zapatua. Aratuste-martitzena, urtero moduan, ikaste-teeetan ospatuko dute, bereziki, eta musika eskolakoek kalejira izango da protagonista.

Frontoiko bi ikuskizunek hartuko dute aurrekontuaren zati handiena –ia 10.000 euro–, eta egitarau osorako aurrekontua 30.000 euro da. Hala, egunerokoaz ahaztu eta aukeratutako pertsonaiaren bitartez disfrutatzen deitu du Udalak, eta mozorrotzeko gonbita egin diete dendariei, tabernariei eta, oro har, herritar guztiei. "Ez dugu zertaz mozorrotuko garen aurreratuko, baina Udala eta herriko merkataria eta zerbitzu emaleak ados jarri gara Aratusteeetan tonu berean mozorrotzeko. Sorpresa izango da".



Kultura zinegotzi Kristina Markina eta kartelaren egile Soiartze Heras. B.U.

Kartela, Soiartze Heras Morerorena

Aratusteetako kartel lehiaketa Soiartze Heras Moreno bergararrak irabazi du eta 350 euro jaso ditu Udaleko bonutan, herriko dendetan trukatzeko. Zazpi kartel jaso dituzte eta udal webgunean 233 lagun izan dira botoa eman dutenak; Herasen kartelak jaso ditu boto gehien.

"Jarrera egunerokoa bada, rolean sartu barik, ez da mozorro ona"

JONE IGARTUA ARGENTINAN BIZI DEN ARATUSTE-ZALE AMORRATUA

Azken bost urteetan herriko Aratusteeetan arrastoa utzi ostean, Jone Igartua (Bergara, 1999) ez da egongo aurtan, Argentinan dagoelako. "Pena handiz" dagoela aitortu du, bidelagun nekaezina duen Izar Odriozolarekin "oso modu berezian" bizi dituelako Aratusteak. "Sorpresaz eta gustu handiz" jaso du GOIENAREN deia Argentinatik. **Zergatik ez duzu Aratusteez gozatzeko aukerarik aurtan?** Argentinan nagoelako. Erasmus antzeko programa batekin etorri nintzen 2019ko uztailean eta, tamalez, Aratusteak hemen pasatzea tokatzen zait. Baina Izar Bergaran egongo da, eta beste lagun batzuekin saiatuko da bion partez ere maila mantentzen.

Zer dira zuentzat Aratusteak?

Oso egun kutuna da. Mozorrotzen garenean, ez gara Izar eta Jone. Ondo pasatzeko, zirikatze eta barre egiteko eguna da! **Zergatik eta noiztik mozorrotzen zarete batera?** 2015ean kuadrillan arazoak izan ziren mozorroa erabakitze, eta gure kasa joatea erabaki genuen. Ordutik, elkarrekin



J.I.

mozorrotu izan gara, eta, dirudienez, ez dugu batere gaizki egiten! **Nola pentsatzen dituzue mozorroak? Eta nola egiten dituzue?** Urtero gai bat jorratzen dugu, eta saiatzen gara aurrekoa gainditzen. Aratusteak bukatu orduko hurrengo urtera begira jartzen gara pentsatzen, baina gero ez ditugu pilak jartzen bi aste geratzen direnera arte. Garrantzitsuena paperean sartzea da. Mozorroa ederra bada baina jarrera egunerokoa bada, ez da mozorro ona. Mozorroak gure eskuekin egiten ditugu; etxeko gauzeekin, gehienbat. Ilerdea da erosten dugun bakarra, eta hori balio erantsi bat da. Esan nahi dudana da ez dagoela aitzakiarik, benetako gogoia izanez gero. **Mihiluze, Tolosa eta Euzkitze... Zein izan da mozorro onena?** Zaila da mozorro bat aukeratzea, guztiei diegu maitasuna. Paper aldetik Mihiluze saioarena izan zen; egun osoan zehar ibili ginen publikoarekin eta telebistan hitz egiten den moduan berba egiten.

"Erabileran asko dugu hobetzeko gazteok"

ASIER KORTABARRIA 'MOTO' 2020KO EUSKARALDIRAKO DINAMIZATZAILEA
Azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango den Euskaraldia dinamizatzeko bere lehen lana izango da lantaldeak egonkortzea: "Talde polita dugu, dagoeneko bagara 50 bat lagun"

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskaraldia dinamizatzeko ardua izango du Asier Kortabarría *Moto*-k (Bergara, 1992). Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua da, eta musika, zinema, literatura eta bertsolaritza ditu zaletasun. Ezaguna da herrian, gazteen artean bereziki; abenduaren 4ra arte egun erdiz arituko da lanean.

Zeintzuk izango dira zure lanak?

Udaleko eta Jarduneko lankideez gain, boluntario asko gerturatu zaizkigu eta talde polita egiten ari gara; 50 bat lagun gara. Nire lana izango da lantaldeen barne komunikazioa bermatzea eta kanporako komunikazioan lotura lanak egitea. Euskaraldia-
ren dinamika berriak gizarte-
ratzea izango da erronka bat.

Zeintzuk dira dinamika berri horiek?

2018ko ariketan norbanakoan zentratu zen Euskaraldia, *ahobizi* eta *belarriprest* figurekin. Figura horiek mantendu egingo dira, oso ondo funtzionatu zutelako, baina orain ireki egingo da entitateetara; izan daitezke enpresak, kultura eragileak, dendak, tabernak... Horieta ariguneak sortuko dira; hori da 2020rako nobedade nagusia.

Zehaztu duzue kronogramarik?

Lurreratu berri naiz eta lehen egitekoa izango da arloz arlo



Asier Kortabarría *Moto*, udaltxeko arkupeetan. BERGARAKO UDALA

banatuta ditugun lantaldeak egonkortzea. Horrez gain, pare bat enpresatan ariguneen simulazioak burutu dira eta laster egingo duguna da simulazio horien berri eman. Oraingo ez dago ekitaldirik aurreikusita, beste lehentasun batzuk ditugu.

Gazte bergarar zarenez, euskarak ze egoera bizi du gazteen artean?

Asko dugu hobetzeko. Bergarako gazteen artean ia %100ekoa izango da euskararen ezagutza, baina kalera irtenez gero bista-
koa da erabileran hutsune handiak daudela. Ezkorra baino,

nahiago dut baikorra izan; hobetzeko asko dugu, baina badugu gaitasuna.

Musikari izanda, ze hizkuntzatan idazten dituzue abestiak?

Kide naizen Ttun Ttun Brigade eta Kaleko Urdangak taldeetan argi izan dugu hasieratik esateko dugun hori euskaraz esatea. **Ze oroitzapen duzu 2018kotik?**

Ona. Ariketa interesgarria eta berritzailea izan zen. Molde batzuk apurtu egin ziren. 2020an eragina handitu behar dugu eta, ahal bada, Euskaraldiko egunez harago jarraikortasuna eman.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Kanonak hautsi ditzagun!

Aurrekoan, ondorengo esaldi hau irakurri nuen –txukun euskaratzen saiatuko naiz–: *Badaude ama izatean beteak sentitzen diren emakumeak, bizitza zeinekin partekatu aurkitzen dutenean ase sentitzen direnak, hiru unibertsitate titulu lortzean asetzen direnak eta beste batzuk bidaiatzean, hain da zaila ulertzea emakume guztiok ez ditugula helburu berdina?* Esaldia irakurri eta *klik* bat izan nuen, eta askotan ezkutatu eta lotsatu nauena ozen esateko gogo sartu zait: 43 urte ditut, emakumea naiz, ez daukat seme-alabarik, ez daukat bikotekiderik eta zorionsua naiz! Nire bizitzak asetzen nau, ez naiz bakarrik sentitzen eta badaukat familia bat, nahiz eta seme-alabarik ez daukadanez batzuek familiarik ez dudala uste duten. Nahiz eta batzuek bikotekiderik ez edukitzeagatik zerbait "arraroa" izango dudala uste duten. Nahikoa da! Agian, hau ez da txikitan irudikatu nuen bizitza... Zeurea bai? Zorionekoa zu, baina aukeratu edota egokitu zaidanarekin eskertua nago. Pozik eta egunero disfrutatzen saiatzen naiz, bizitza zoragarria baita. Baita kanonetatik kanpo bizi zarenean ere.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zaborra dagokion gunetik kanpo Gorlan



Herritar batek bere haserrea erakutsi du Gorlan badagoelako hondakinak uzteko gune bat eta beste herritarren batek zaborra gune horretatik kanpoko utzi duelako.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Parte hartzeko deia, 'Egunean behin'...

Urtarrilaren 22an egin zuten 2020ko Euskaraldia prestatzeko lehen bilera, baina Asier Kortabarría *Moto*-k argi utzi du ekimenean parte hartzeko ateak "erabat zabalik" daudela. Kontaktuan jarri edo ekarpenak egiteko posta elektronikoa helbide bat eman dute: bergaraeuskaraldia@gmail.com.

Bestalde, *Egunean behin* mugikorrerako jokoaren

hirugarren denboraldia martxan jarri dela-eta dei egin diete herritarrei *Euskaraldia Bergaran* izeneko taldera batzeko: "Saillkapen orokor bat eta hainbat sari izateaz gain, erabiltzaileek herri mailako, lagunarteko, enpresa mailako... taldeetan parte hartzea ere ahalbidetzen du, eta horrela sortu dugu taldea. Batu zaitezte gure taldera, eta jokoak ezagutzen ez baduzue,

animatu ezagutzera!", adierazi dute. Aplikazioan *D3A010* kodea sartuta batu daiteke taldera.

Ekintzen berri emateko "ahalegin berezia" egingo dute. Hala, GOIENAKO komunitatean sortu dute kontua (goiena.eus/komunitatea/ *EuskaraldiaBergara*), eta baita Facebooken ([facebook.com/euskaraldiabergara/](https://www.facebook.com/euskaraldiabergara/)), Twitterren (twitter.com/bergaraeuskaraldia) eta Instagramen ([instagram.com/bergaraeuskaraldia/](https://www.instagram.com/bergaraeuskaraldia/)) ere.

Aldi baterako egonaldiak egoitzetan: eskaera egiteko unea

Udaleko Gizarte Zerbitzuek adituzera eman dutenez, menpekotasun edo desgaitasuna duten pertsonentzat Mizpirualden egonaldiak egiteko eskaera epea zabalik dago. Helburua da menpekotasun edo desgaitasuna duen pertsona baten zaintzaileari atsedean ematea. Aste Santuko, udako eta Gabonetako kanpainen egonaldiak hamabost egu-

nekoak dira, gehienez; adibidez, Aste Santurako eta martxoko zubirako eskaerak egiteko azken eguna gaur da –egutegi zehatza jakiteko udaletxean galdetu beharko da–. Kanpainaz kanpo, berriz, hilabete osorako egonaldiak eska daitezke otsailan, martxoan, maiatzean, urrian eta azaroan; kasu horietan, gutxienez egonaldia baino hogeita egun lehenago egin behar da eskaera, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo Bergararren Arreta Zerbitzuan (B@Z).

XV. mendera aurreratu da herriko baserrien sorrera

Eguren, Monasteriobide, Eizmendi, Eduegi, Olabarri eta Garitaomartisaezkoa baserriak XV. mendekoak direla ziurtatu du 2019ko ikerketa batek; azterketaren gaineko azalpen guztiak emateko aurkezpena egingo dute bihar, udaletxeko areto nagusian (11:00)

Jokin Bereziartua BERGARA

Noizkoa da Bergarako lehen baserria? Galdera horri datu fidagarriekin erantzuteko aurkezpen interesgarria izango da bihar, zapatua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (11:00). Herriko sei baserri ikertu dituzte Ibon Telleria arkitektoa, Josue Susperregi dendrokronologoak eta Bergarako baserrietan aditua den Patxi Larrañagak: Eguren, Monasteriobide, Eizmendi, Eduegi, Olabarri eta Garitaomartisaezkoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Arkeolan fundazioak eta Udalak hartu dute parte proiektuan.



Basalgoko Eguren baserriaren egurrezko egitura; XV. mendean eraiki zen. ARKEOLAN

Sorrera-data, ia 50 urte lehenago

Ikertzaileek nabarmendu dute baserrietako jabeen jarrera "ezin hobea" izan dela. Aldez aurretik aukeratutako hamabi baserri bisitatu ondoren, ikerketa kasu izan diren baserrien bukaerako aukeraketa egin zuten; aurreratu dute "arrakasta handikoa" izan dela, sei baserriak datatzea lortu dutelako. "Beti ez da lortzen egurra aproposa izatea dendrokronologia metodoarekin haren jatorria noizkoa den jakiteko, eta Bergarako sei baserrien kasua egurra oso aproposa izan da", aurreratu du Susperregik.

Izan ere, orain arteko teoria hedatuena izan da baserriak XVI. mendean eraiki zirela Euskal Herrian: "Baina bagabiltza teoria hori pixkanaka herri batzuetan desmuntatzen, eta baserrien sorrera data 50 urte gora aurreratzen. Orain, Bergaran egin berri dugu, XV. mendean eraikitako baserriak topatu ditugu eta. Hau da, lortu diren datazioek, kasu guztietan, XV. mendera eramaten gaituzte, batzuk mende hartako lehen erdian kokatuak", gaineratu du dendrokronologoak.

Gainera, Bergarako baserriak "oso karakteristikoak" direla ere baderitza Susperregik: "Harrizko fatxadak dituzte, eta arku ikusgarriak. Horregatik, askok uste izan dute XVI. mendekoak zirela, goiz jota. Ez da horrela. Hasieran, egurrezkoak ziren erabat, eta geroago egin ziren bestelako lanak".

Bergaran, "sekulako ondarea"

Susperregiren arabera, Bergarako "sekulako ondarea" du baserriek dagokienez: "400dik gora baserri daude Bergaran eta



Hiru aditu hizlari, nor bere arlotik

Ibon Telleria arkitektoa, Arkeolaneko dendrokronologo Josue Susperregi eta Patxi Larrañaga historia ikertzailea izango dira bihar udaletxean egingo den aurkezpeneko (11:00) hizlariak. Larrañagak aztertu diren sei baserrien gaineko "zertzelada gutxi batzuk" emango ditu: "Ez naiz asko luzatuko, ordu laurden bat. Hainbat argazki erakutsiko ditut, azalpen labur batzuk eman, eta gero, profesionalei utziko diet lekua". Larrañagaren ostean, ikertu dituzten sei baserrien gaineko ezaugarri arkitektonikoak izango ditu berba Telleriak eta, azkenik, Susperregi ikerketa metodoaz arituko da. Arkeolan fundazioek 800 urteko eraztun-sekuentzia dute erregistratua, eta, beraz, baserri bateko enborren marrazkiak eta sekuentzia horretakoak ze urte-tartetan bat egiten duten ikusita jakin daiteke baserria noizkoa den. Xehetasun guztiak bihar emango dituzte.

horietatik, betiere, Patxi Larrañagaren ezinbesteko laguntzarekin, sei bakarrik aztertu ditugu. Beraz, ikerketa lerroa zabalik dago oraindik. Gu prest egongo ginateke aztertzeke, urtero egiten ditugu halako lanetarako kanpainak, baina Diputazioaren menpe gaude, eman ahal dizkigun dirulaguntzen menpe. Ikerketa lerroa zabalik geratzen dela uste dugu, beste unitate batzuen datazio eta azterketa berriekin ateratako hipotesiak osatu eta ziurtatuko lirakeelakoan".

Aretoa betetzeko aukera asko

Aurreikustekoa da biharko aurkezpenean udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete egingo dela. Gaiak interesa piztu ohi du, bereziki, adinekoen artean; are gehiago, Patxi Larrañagak hartu badu parte proiektuan.

BERGARAN 400DIK GORA BASERRI ZUTIK DAUDELA ETA, DIOTE ORAINDIK ASKO DAGOELA IKERTZEKO

2019an, 7.399 herritar artatu zituzten Gizarte Zerbitzuetan

2018an, 8.305 lagun izan ziren, eta jaitsieraren arrazoi nagusia da iaz Bergararren Arreta Zerbitzua ireki zutela

J.B. BERGARA

Udaleko Gizarte Zerbitzuek 2019ko memoriaren berri eman dute. Datu orokorren artean, nabarmentzekoa da 2019an 2018an baino ia 100 lagun gutxiago artatu zituztela eta horren

arrazoia dela udaletxeko sarrean Bergararren Arreta Zerbitzua ireki zutela iaz eta bertan gizarte zerbitzuekin erlazionatutako hainbat informazio eskaera eta tramitazio kudeatzen direla. Beste datu esanguratsu

bat ere badago, bereziki atzeritarrek Gizarte Zerbitzuek aprobetxatzen direla dioen zurrumurrua gezurtatzeko balio duena. Izan ere, 2019an artatutako pertsonen %87 Euskal Herrikoa edo Espainiakoa da.

Bestalde, tramitatutako espedienteek dagokienez, 2019an, 1.764 espediente administratibo tramitatu ziren, 2018an baino %14,24 gehiago. Espediente kopuru handiena mendekotasunak (%47) eta hirugarren adinaren ingurukoak (%26) izan dira.

OHARRAK

'Euskal Herriko historia eta nortasuna' zikloa

Nabarraldekin antolatzen duen zikloaren barruan, otsailaren 18an, *Euskararen historia* izeneko saio emango du Juan Martin Elempuruk. Olaso dorrean izango da, 19:00etan. Azken ekitaldia izango da *Euskal Herriko historia* izenburu duen ikastaroa, martxoaren 3tik 24ra. Izen-ematea beteta dago dagoeneko.

Boluko Santa Ana ermita ondoko igogailua, itxita
Gutxienez, gaur goizean ezingo da erabili, konponketa lanengatik.

PSE-EE: posta bidezko botoa emateko aukera
Martxoaren 26ra arte irekita egongo da Bidekurutzetako Herriko Etxea; astelehenean egubakoitzera, (10:30-13:30 eta 17:00-20:00).



Burdinolako neskek, joan den asteburuan jokatuak Euskadiko txapelketan. BURDINOLA

Burdinolako neskek, Euskadiko txapeldun

Senior kategoriako liga erregularrean, Euskadiko lerroko patin gaineko hockeyan txapeldun dira Burdinola taldeko neskek. Joan den zapatuan jokatu ziren ligako azken bi partiduak eta bergarrek biak irabazi zituzten; txapeldunak izan ziren

Jone Olabarria BERGARA

Euskadiko lerroko patin gaineko hockey txapelketan nagusitu dira bergarako Burdinola taldeko neskek. Senior mailan aritu dira lehiatzen, baina, kasu honetan, 2006a baino lehen jaio-tako jokalaria aritu daitezke bertan: "Euskadin mailan ez daude hainbeste talde eta hainbeste lagun kirol honetan aritzen direnak. Hortaz, jokalaria seniorrak, 18 urtetik gorakoak bakarrik hartuta zaila izango litzaiteke taldeak eratzea". Agustín Oianguren taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, taldea "oso gaztea" da, baina poliki-poliki indarra hartzen doa: "Harrobia indartsu dago, neska asko datoz behetik, eta, hemendik bost urtera talde indartsuak izango ditugun arren, oraindik lan handia dago egiteko".

Lan horren erakusle, une honetan Euskadiko talde indartsuena den Metropolitan garaitzea lortu du Burdinolak: "Joan den urtera arte inoiz lortu ga-

beko gauza zen. Iaz, ligako azken denboraldia irabazi genuen, eta kopa ere bai".

Euskadiko ligan lau talde

Denboraldi honetan lau talde aritu dira ligan, eta, aitortu dutenez, oraingoan ere Metropolitan izan dute aurkari gogorrena: "Beste taldeak gaztetxoak dira eta ibilbidea dute egiteko oraindik ere. Datorren denboraldira begira, gure helburua Espainiako Urrezko Ligan lekua lortzea da".

Kirol "berezia"

Burdinolan jokalaria gehienak emakumezkoak direla azaldu du Oianguren, eta gizonezkoek baino gehiago jokatzeko auke-

"DATORREN DENBORALDIRA BEGIRA, ESPAINIAKO URREZKO LIGARA JOATEA DA HELBURUA"

ra dutela adierazi du. Horretaz gain, hockeya bestelako kirolekin alderatuta "oso ezberdina" dela aitortu du: "Baditugu bost bat ama, haien seme-alabak hockeyan aritzen dira eta hauek ere animatu egin dira jokatzera". Gurasoak animatu eta afizionatuen ligan lehiatzen dabilta, hain zuzen ere: "Guretzako oso pozgarria da jende nagusia ere animatzea. 15 urtetik beherako jokalaria asko ditugu, 70 bat, baina, aldiz, 15-16 bitarte horretan gabilta jokalaria faltan pixka bat".

Denboraldian aurrera

Euskadiko liga amaituta, bergarrek Gaztela eta Leongo ligan dihardute parte hartzen; izan ere, talde gehiagoren aurka aritzeko aukera ematen die. Asteburu honetan, Gatas eta Hockey Zamora taldeen aurka partiduak jokatu zituzte. Horrez gain, Kopara begira ere jarri dira eta iazko emaitza lortzeko gogotsu daude.

Igeri elkarteak, Gipuzkoako txapelketaren balorazio positiboa

Igerilarien lan "txukunaz" gain, Bergarako eta Oñatiko elkarteek arteko elkarlana azpimarratu dute

J.O. BERGARA

Urtean behin antolatzen du Bergarako igeri elkarteak Gipuzkoako txapelketa Agorrosinen, eta, aitortu dutenez, "erronka" da elkartearentzat: "Lau jardunalditan antolatzen da, asteburu osoan zehar: zapatu goiza eta arratsaldea eta domeka goiza eta arratsaldea". Inaki Yarza Bergara igeri elkartearen kideak azaldu duenez, txanda bakoitzeko 20 lagundik gora behar dira antolaketan eta gurasoek egiten duten lana "berezi eskertzea" dela azaldu du.



Zapatuko txapelketa Agorrosinen. GOIENA

Igerilarien lan "ona"

Orain arte hainbat probatan lehiatu diren arren, Gipuzkoako txapelketa da denboraldiko lehen proba "garrantzitsua", Bergarako igeri elkartearen Xabi Labaka entrenatzaileak azaldu duenez. Igerilarien lanaz galdetuta, ba-

lorazio "positiboa" egin du Labakak: "Txapelketa ondo joan da, igerilariak lan ona egin dute. Hona iristeko minimo batzuk gaituta, gero Euskadira edo Espainiako txapelketara joateko aukera egon daiteke, baina lanean jarraitu behar da".

Partidu garrantzitsua lehen territorial mailako taldearentzat

Etxean jokatu du, bihar, lehen territorial mailako mutilen taldeak, arratsaldeko lauretan. Taldeko entrenatzaile Josetxo Muniategik azaldu duenez, "partidu garrantzitsua" da biharkoa, hain zuzen, aurkari zuzen duen Donibaneren kontra arituko baitira bergararrak: "Aurkari zuzena da klasifikazioan eta irabazi beharreko partidua da.

Talde beterranoa eta fisikoki oso indartsua da".

Donibanen jokatuak partidua galdu egin zuten Muniategiren mutilek eta oraingoa "irabaztea" da helburua: "Denboraldia ez da ondo, defentsako lanean irregulartasuna nabaritzen da eta erraztasun handiak ematen dizkiegu aurkako taldeei".

Lehen territorialarenaz gain, beste hiru partidu hartuko ditu Labegarrietak: larunbatean, infantil neskek; eta domekan, kadete mutilek eta 2. territoriala.

Ariztegiaren aurka galduta, txapelketatik kanpo da Etxaniz

Begarako udal pilotalekuan jokatu zen martitzenean XI. Soralue lau eta erdiko txapelketaren bigarren jardunaldia. Bertan aritu zen Ander Etxaniz, txapelketan diharduen bergarar bakarra, baina ezin izan zuen Ariztegi garaitu, 15-22 gailendu zitzaion aurkaria. Hala, bergararra txapelketatik kanpo geratu da.



Ariztegi eta Etxaniz. PILOTA SAILA

"Feminismoan aitzidari izan zirenen istorioa da"

CELIA SANTOS IDAZLEA

Bere lehen eleberri arrakastatsuen ostean, 'Más rápida que la vida' liburua argitaratu du Celia Santosek, Bergaran jaio eta egun Bartzelonan bizi den idazleak

Jone Olabarria BERGARA

Celia Santos (Bergara, 1972) idazleak *Más rápida que la vida* eleberria argitaratu berri du. Bere bigarren lana da, *La maleta de Ana* liburuaren ostean. 60ko eta 70eko hamarkadetan Alemaniara lanera joan ziren emakumeen istorioa kontatzen zuen lehen eleberria egin eta gero, "bere garaia aurreratu" zuen emakume baten istorioa da *Más rápida que la vida* liburuaren heldulekua. Helduentzako eleberrien aurretik ere ipuinak idatzi izan ditu Santosek, ogibidez lantegi bateko administraria bada ere.

Zergatik Dorothy Levitt? Nola egin zenuen topo berarekin?

Nire lehen eleberrian lanean ari nintzela, autoen pieza bati buruzko informazio bila nenbilen eta bat-batean Dorothyrekin eta hark egindakoekin topo egin nuen. Horrela jakin nuen auto lasterketetan parte hartu zuen Ingalaterrako lehen emakumezkoa izan zela eta, esaterako, berak asmatu zuela autoendako atzerako ispilua. Dena den, hori baino askoz gehiago izan zen Levitt: idazlea, kazetaria, feminista...

Hasieratik harrapatu zintuen Levitten bizitzak, hortaz...

Halako pertsonaia batekin topo egitean, badakizu lehenago edo geroago berari buruz idazten bukatuko duzula. Momentu hartan ezin izan nuen, baina nire barnean banekien bera izango zela nire eleberriren bateko ardatz.

Lan biografikoa da?

Dorothy benetako pertsonaia bat den arren, nobela eran idatzia dago eta, hortaz, fikziozko hainbat une, pertsonaia edota elkarriketa ere baditu: lasterketen toki eta datak errespetatu ditut, pertsonaien izenak...baina baditu ukituren batzuk. Zaila izan da Dorothy Levitti buruzko informazioa topatzea, kontuan



Celia Santos idazle bergararraren irudia. CELIA SANTOS

"BEREN GARAIRA AURRERATUAK BAINO GEHIAGO, BEREN GARAI AURRERATU ZUTEN EMAKUMEAK DIRA"

izan behar dugu XX. mende hasieran gertatutako kontu bat dela, emakume bat protagonista duena, gizonazkoa uste zen arlo batean; Levittetik idatzitako *Emakumea autogintzan* eskuliburu eta pare bat ohar dokumental batzuetan izan dira nire iturri nagusia.

Zer-nolako sortze prozesua izan du lan honek?

Dokumentazio aldetik zaila izan den arren, narrazioa garatzeko orduan askatasun handia eman didan eleberri bat izan da. Fikziozko une asko eratzeko aukera eman dit, pertsonaiak, uneak... asko gozatu dut hori.

Emakumea ardatz du eleberri honek. Garrantzi berezia eman diozu feminismoari?

Gai nagusia izatea gura nuen; hortaz, asko edaten du feminismitik. Benetako pertsonaiak ageri dira; garaiko sufragistak,

esaterako. Beren garaira aurreratutako emakumeak direla esan ohi da, baina nik nahiago dut esatea beren garaia aurreratu zuten emakumeak direla. Ezin dugu ahaztu haiei esker gaude la gauden lekuan, bai oraindik bide luzea dugu egiteko gure egunerokoa. Istorio honek feminismoan aitzindari izan zirenen bozgorailua izan gura du. Berdintasunaren garaia iritsiko delakoan nago. Ez dut uste feminismoa gizonak egiten dituzten gauza berberak egitean datzanik; gizonak egin dituen txorakeria berberak ez ditugu errepikatu nahi. Gizonak hil egin du, gerra egin du, planeta suntsitu du, sufrimendua eragin du... Emakumeon garaia da, gauzak aldatu eta geratzeko etorri gara.

Nola definituko zenuke zure lana?

Zalantza barik, emakumeak ardatz dituen eleberri feminista da. Une dibertigarri ugari ezazten dituen liburua, iragana ezagutzeko tresna bat eta baita etorkizunera begira ikasteko balio izan dezaketen emakumeen kontakizuna. Fikzioaren eta errealitatearen arteko nahastea ere azpimarratuko nuke.

'Ene ba!' antzezlanaren zapatuan iritsiko da Seminarixora

Aitatasuna lantzen duen familia-komedia eramango du Txalo antzerki konpainiak Bergarara, 19:00etan hasita

J.O. BERGARA

Txalo konpainiaren helduendako umorezko azken antzezlanaren Seminarixora iritsiko da zapatuan, hilak 15, arratsaldeko zazpitan.

Aitatasuna hizpide

Laneko protagonistak aita izan behar du lehen aldiz, eta, aitatasuna ospatze aldera, bere arreba eta koinatuaren etxean afalduko du. Ana, bere bikotekidea, berandu iritsiko da afaritara. Aitatasunak sortzen dituen poztasun eta aldarte onak izango dituzte hizpide, ume jaioberriari jarri behar dioten izena aditzera emango duen arte. Egundoko kalapita sortuko du izenak berak, eta eztabaidaren suak bildutakoak erreko ditu, etxeko giroa erabat gaiztotu arte.

Matthieu Delaportek eta Alexandre De la Patellierek idatzi-



Antzezlanaren une bat. TXALO KONPAINIA

tako komedian, Asier Sota, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Joxe Kruz Gurrutxaga eta Alazne Etxeberrria dira protagonistak, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean.

Sarrerak salgai daude *Kutxabank.es* webgunean.

'Anti San Valentín orgasmikoa' gaur kartzela zaharrean

"Maitasun erromantikoak eta kontsumismoak eskaintzen duten eredia gaiztatzeko", musika doinuak izango dira nagusi gaur, hilaren 14a, kartzela zaharrean, gaueko hamar eta erdietan hasita, *Anti San Valentín orgasmikoa* izendatutako gaualdian.


Gaualdia girotzeko, hainbat ar-tistaren emanaldiak prestatu

dituzte: 22:30ean hasita, Nizuri Tazuneri taldeak kontzertua eskainiko du. Jarraian, duela zazpi urtetik Bergaran bizi den Gual.icho DJ uruguai-tarrak ere giro aparta jarriko du kartzela zaharrean, 00:30etik 04:00etara. Musika afro-tropikal giroan murgilduta ibili da orain arte, proiektu ezberdinetan, Nacho A. Ifran Dja.

Turtukiñen txanda iritsiko da ostean. Mundu osoko musika eta erritmo dantzagarriak jarriko dituzte.

Bergarako elektronika topaketak seigarren aldian izango du

Begarako Elektronika Topaketaren (BET) seigarren edizioak Bergarako, Euskal Herriko eta kanpoko artista esanguratsuen batuko ditu, beste urte batez, 2020an ere, kartzela zaharrean. Urtero elektronika topaketaren jarraikortasuna "zalantzan" izaten den arren, 2020ko edizioa izango du, nahiz eta oraindik datak zehazteko dauden.



lazko BETen irudia. GOIENA



goiena

ADI!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatu da. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori. **Famili bakarreko etxeetan**, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: Televisioldigital.gob.es.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

"Segurtasuna bermatu behar da hasi aurretik"

MIKEL FORTUNA INFORMATIKARIA

Teknologia berriak zaletasun ditu Mikel Fortuna informatikari antzuolarrak. Drone grabazioa hasi aurretik inguruko segurtasuna ezinbestean bermatu behar dela dio

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolaren bestelako ikuspegi bat jaso du iruditzen Mikel Fortuna antzuolarrak. Drone bidez grabatutako bideoa egin du eta dagoeneko 1.300 ikustaldi pasatxo ditu bere Youtubeko kanalean (@Fortu). Grabazioa hasi aurretik ezinbestean bermatu behar dela inguruko segurtasuna azpimarratzen du.

Bideoak oihartzuna izan du eta azkar zabaldu da Whatsapez.

Egia ezan, ez nuen espero. Lagunen artean partekatu nuen eta biral egin da antzuolarron artean. Espero baino ikustaldi gehiago ditu Youtuben.

Herritarrek zer esan dizute?

Antzuola zerutik ikusteak herriaren pertzepzioa guztiz aldatzen duela diote gehienek. Hori gaur egun lortzea ez dela oso erraza ere badiote. Jasotako inpresio eta iritziak positiboak izan dira.

Drone bidez grabatu duzu?

Bai; nire lehen drone erdiprofesionala da. Aurretik, pare bat drone txiki izan ditut, baina oso kalitate txarrekoak. Hau, berriz, bideoak eta argazkiak ateratzeko egina dago.

Nolakoa izan da grabaketa?

Grabazio prozesua dronea kaxatik atera aurretik hasten da. Inguruko pertsonen eta norberaren segurtasunerako, lege batzuk bete behar dira. Adibidez, aireportu inguruetan eta natura parke batzuen inguruan ezin da hegan egin. Herri, hiri edo itsasoan hegan egiteko, droneak hartu dezakeen gehienezko altuera ere mugatuta dago. Hortaz, grabazioak non egin nahi diren denboraz jakitea garrantzitsua da. Inguruan dituzun objektuen azterketa txiki bat egitea gomendagarria da: zuhaitzak, elektrizitate dorreak eta hauen arteko kableak, eta abar. Hau dena kontrolpean daukadanean, prest sentitzen naiz dronea airean jarri eta grabazioak egiteko.



Antzuolarra, dronea esku artean duela. MIKEL FORTUNA

"EDOZEIN MENDI IRTEERA EDO BIDAIA EGITEN DUDANEAN, BETI NIREKIN DARAMAT DRONEA"

Eguraldia, haizea... dena kontuan izango zenuen. Egun bakar batean grabatua dago?

Zuk esan duzun bezala, eguraldiak uzten baldin badit, asteburuetan horrelako grabazioak egitea gustatzen zait. Dronearen etsai nagusia haizea da, baita euria ere; baina airean oreka mantentzeko, haize pixka bat ibiltzea ezinbestekoa da. Antzuolako irudiak arratsalde baten grabatu nituen. Nire ideia elizako kanpandorreari pare bat argazki ateratzea zen, zeruan zeuden laino beltzak euria botatzeko prest baitzeuden. Baina azkenean euririk ez zuenez egin, herri gainetik hegaldi batzuk egin nituen bideoak grabatuz.

Edizio lana ere badauka.

Egungo droneek asko errazten dute edizioa, daramaten SD txarretako fitxategiak prest baitaude sare sozialetara igotzeko

edo ordenagailuetako bideo-edizio aplikazioetan erabili ahal izateko. Nik nahiago dut pixka bat editatzea eta musika aproposa eranstea. Antzuolako bideoari, adibidez, lagun baten gomendioz *La mirada mágica* telesailako musika jarri diot.

Dronea gidatzeko lizentzia beharrezkoa da?

Nirea zaletasuna da. Daukadan dronea ez da profesionala, erabilera pertsonalerako egina baizik. Hala, dronearen ezaugarriengatik ez daukat lizentzia atera beharrik. Horrek ez du kentzen legearen ezagutza izan behar ez dudarik, eta, horretarako, Interneten blog eta eztabaida-leku asko daude informatzeko edo zalantzak argitzeko. **Bestelako ikuspegiak jaso dituzu.** Debako hondartzan surfariei grabatutako bideoa daukat Youtuben zintzilikatuta. Mutrikura egin nuen irteera, berriz, Instagramen jarrita daukat (@fortu). Mendi irteera edo bidaiaren bat egiten dudanean, dronea beti nirekin eramaten dut. Noizean behin lortzen ditudan irudiekin ere harritu egiten naizenez, lagunekin konpartitzen ditut, eurek ere eduki ditzaten.



JESUS KORTABARRIA

San Blasko errituari eutsiz

San Blasko ohiturari eutsi diote aurten ere auzotarrek, eliza bete-beteta urteroko opilen bedeinkapena ospatzeko. Argazkian, Tomasa Lete, Justina Lezeta, Maria Luisa Mendizabal eta Madalena Ortiz daude, guztiek 90 urteak pasatxo dituzte, aurten ere ez dute hutsik egin, eta San Blas eguneko ospakizunari jarraipena eman diote.



ARROLA TALDEA

Sasoi bateko aztarnei jarraikiz

Arantzazu auzoko Gesaltza ingurutik abiatu eta Elgea mendilerroan ibili dira Arrolako mendizaleak. "Gesaltzako lepotik San Juan Artixara joan gara eta Arabara zihon galtzada zaharrean ibili gara. Esan ohi denez, Antzuolan zeukan arrebaren etxera joateko asmoz pasatu zen bertatik Iruñetik zaurituta zetorren Ignazio Loiolakoa".

Liburutegiaren lekualdatzea

Asteon hasi dituzte brigadako langileek liburutegiko materiala lekuz aldatzeko lanak. Eguzki auzoan dauden liburuak, beraz, epe motzean Torresoroa berrituan egokitu duten liburutegian izango dira. "Lekualdatze lanak egin bitartean liburutegia itxita dago otsailaren 12az geroztik. Aditzera emango dugu Udaletik noiz zabalduko den Torresoroakoa".



JONE LARRAÑAGA



Askotariko mahai jolasak herritarren eskura, Olarango areto nagusian. IMANOL SORIANO

Gaitasunak eta talde lana indartzeko jokoak

Asko dira mahai joko kooperatibo eta sozialen onurak. Jolasena taldeak herritarrei jolas hauek probatzeko aukera eskaini die, beste behin. Jolas eredu hauek geroz eta jarraitzaile gehiago dituzte eta bailaraz kanpo ere zabaldu dira, arrakastaz

Maidar Arregi ANTZUOLA

Jolaseneak askotariko mahai jolasak gerturatu dizkie herritarrei. Taldeko kideak gustura daude; izan ere, jolas eredu hauek geroz eta jarraitzaile gehiago dituzte inguruko herrietan.

Talde lana

"Joko sozialak dira eta bakoitzaren gaitasunak garatzen la-

guntzen dute. Adin tartearen arabera jolasak ditugu", dio Jolasena taldeko Oskar Lopezek. Arrakasta dutenen artean, dedukziozkoak daude. "Sherlock Holmes ikertzailearen jokoak harrera ona du. Taldean jokatzeke jolasa da, alderdi soziala lantzea ere badugu-eta helburu", argitu du. "6 urtetik gorakoendako jokoak ditugu; izan ere,

adin horretatik gorakoak hasten dira gaitasunak garatzen, eta xarma handia dute. Lehiakortasuna ez dugu helburu. Hain justu, denon artean lortu beharreko helburuak ditugu oinarri".

Eredua inguruko herriek ere aintzat hartu, eta interes handia erakutsi dute: "Ezki-Itsasora, Zumarragara, Ormaiztegi... joan gara eta aretoa bete dugu".

Galeanotarrak, geldiezinak

Emakume Master Cup txapelketaren baitan, hirugarren kanporaketa jokatuko dute Leire eta Nagore Galeano ahizpek etzi, domeka. Aurreko astean Villabonan irabazita, asteburuan Debako pilotalekuan jokatuko dute, 16 urtez azpikoen kategorian. Aurkari izango dute Naiara Trigueros (Bera) eta Ekiñe Otaola (Urduña) bikotea. 11:00etan hasiko da.



IMANOL SORIANO

Mozorro festa, ate joka

Otsailaren 22an, Aratuste-zapatua ospatuko dute antzuolarrek. Lehenengoz, zapatuan egingo dute mozorro jaia, eta dena prest dago. Herri bazkarirako txartelak salgai daude udaletxean; horiek erosteko azken eguna gaur da, otsailaren 14a. Menuaren prezioa 15,5 euro da eta beganoendako ere badago aukera. Alergia dutenek aditzera eman beharko dute.



GOIENA

OHARRAK

Pilota

Eskolarteko pilota txapelketako partiduak bihar, 16:00etan hasita, Udal Pilotalekuan.

Futbola

Antzuolak Soraluzeren aurka jokatuko du, etxetik kanpo. Partidua bihar, zapatua, 17:00etan izango da. 17 punturekin, azken aurreko postuan dago Antzuola.

Landatxoperen irteera

Erretiratuak Extremadurara joago dira maiatzaren 4tik 10era bitartean. Besteak beste, Plazentzia, Caceres, Guadalupeko Monasterioa, Trujillo eta Badajoz bisitatuko dituzte.

Eskoletan ere aztergai

Joko hezitzaileen onurez jabetuta, eskolak ere hasi dira mota hauetako joko sozialak eta kooperatiboak lantzen. "Eskoletan asko erabiltzen dituzte jada jokoak. Haurrek matematikaren eta logikaren bitartez jolas egiten dute. Modu horretan askotariko gaitasunak garatzen dituzte, gainera", azaldu du Jolasena taldeko kide Oskar Lopezek.



Haur bat gaitasun jokoaz gozatzen. IMANOL SORIANO

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Zaldibarko zabortegiak muga egiten du Elgetarekin, bertatik bertara ikusten dute Egoarbitza baserritik. L.Z.L.

"Arrisku handia dago oraindik"

Zaldibarko zabortegian gertatutakoak soka luzea ekarriko du. Teknikariak egoera bideratzen saiatzen ari diren bitartean, kezka eta galdera da nagusi kaltetuen artean. Elgetan ere bai. Manifestazioa dago deituta zaturako, 16:30ean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

"Nik ondo ezagutzen dut zabortegi hori", adierazten du Elgetako Egoarbitza baserriko Jon Olaortuak. Etxetik oso gertu dauka Zaldibarko Verter Recycling zabortegia, eta kamioiarekin ere ibilitakoa da. "Hamabost egun lehenago egonda nengoen", azaltzen du.

Zabortegia bakarrik ez, zabortegiko langileak ere ezagutzen ditu Olaortuak, eta hondakinek azpian harrapatutako bi langileak eta haien familiak ditu bereziki gogoan. "Hau luzatzen doa eta familiek oso kezkatuta nago. Arriskua dago. Noski badagoea. Domekan izan nintzen buelta bat ematen, eta dena dago mugituta. Eta hainbesteko sailean, gainera!". Zer eskatzen duen, galdetuta argi dauka: "Lehenengo eta behin, bi langile horiek ateratzea".

Kea eta usaina etxe inguruan

Tere Descarga emaztearekin batera gertutik jarraitzen du zabortegian dagoen mugimendua. Haizearen norabidearen arabera etxe ingururaino heltzen zaie piztuta dagoen suak eragindako kea. Eguazten eguerdian, esaterako, behe-lainoa moduan izan zuten kea, etxe atarian, denbora luzez. "Usaina ere iristen zaigu. Erretako goma usainaren parekoa da", azaltzen du Descargak.

Egoerarekin larrituta daudela adierazi diote GOIENARI. "Kezkatuta gaude suarekin eta kea

ORAINDIK ERE LURRA GOITIK BEHERA MUGITZEKO ARRISKU HANDIA IKUSTEN DUTE EGOARBITZAKOEK

rekin. Eta kezkatuta gaude ez dutelako sua lehenengo egunetik itzali". Sua, orain, barrurantz doala dio Olaortuak. "Egunak aurrera doaz, eta barruan material asko dago erretzeko. Domekan, helikoptero bat ibili zen Aixolatik ura hartu eta sua zegoen lekura botatzen, baina, nire ustez, alferrik ibili zen. Espezialistak etorri dira hori aztertzerako, baina honek oso luze joko du. Ez dakite ez nondik heldu ez nora eraman hor dagoen zabor guztia, eta material asko dago. Sekulako martxan zihoan betetzen. Ia 200 kamioi egunero, esango nuke nik. Tona asko dira. Uralita, plastiko eta goma asko, fundizioetako hautsak... Denetik. Eta ikusten dudana beste arrisku bat da euria egitea benetan. Ez naiz teknikaria, baina autobidean egiten ari diren horma ere badoa aurretik zabortegian pilatutakoa

berriz mugitzen bada", dio Jon Olaortuak.

Airearen kalitatea aztertzeko neurketak egitea begi onez ikusiko lukete Egoarbitza baserrian. "Alkateak esan digu neurgailu bat jarri nahi duela etxe inguruan, eta, egia esan, gertuen gu gaude".

Eitzagan ere kezka handia

Egoarbitzatik ondo ikusten da Eitzaga auzoa, bereziki zabortegitik gertuen dauden etxeak. Eta Eitzagan egun benetan gogorak doaz. Elgetan bizi den senitartekoetako batek GOIENARI azaldu dio dagoeneko lau bilera egin dituztela, eta oraindik ez dutela datu zehatzik lortu. Sufrimendu handia dutela esan du eta informazio falta azpimarratu du. "Sekulako segurtasun falta sumatzen dugu. Ama etxean dago, eta beldurtuta dago. Negar batean deitu zidan eguenean, mendia gainera zetorrela esanez. Pentsatu zuen inguruko baserriak lurpean zudela. Astebete pasa da eta amak ez du etxetik irten nahi. Beldur da uste duelako irteten bada ez diotela bueltatzen utziko".

Auzotarrek eskatzen dute Eitzagan bertan ere neurketak egitea. "Gutxienez bat! Eibarren eta Ermuan ari dira neurketak egiten. Eta Eitzagan zergatik ez? Jakin nahi dugu ura, airea, eta lurra zelan dauden. 30 auzotar daude Eitzagan. Jende gutxi da, baina Eitzagan baino kutsadura handiagoa non egongo da? Sumatzen dugu ez gaudela lehentasunen artean".

Eguenetik kontrol handiak daudela dio. "Esaten digute parametro guztiak normal daudela, baina ertzainak daude auzotar ez direnak pasatzen ez uzteko, eta arrazoia da kutsadura arriskua. Nola ulertu behar dugu hori? Uste duguna da ez dela neurketa serioerik egin".

Beste lur-jausi baten arriskurik dagoen edo ez jakiteari ere garrantzitsu deritzo. "Ez du inork ezer argi esaten. Etxean gelditu daiteke edo ez? Zer gertatuko da euria egiten badu? Oraindik ere tona asko daude goiko aldean

INFORMAZIO GEHIAGO ETA AUZOAN BERTAN NEURKETAK EGITEA ESKATZEN DUTE EITZAGARREK

eta dena mugituta dago. Gainera, kutsatutako lurrak dira...". Auzotarrei osasun kontrolak egitea ere eskatzen du. "Gure sendagileengana joateko esan digute, eta sendagileak ez daki zein proba egin behar diren".

Hondakindegian harrapatuta dauden bi langileen gorpuak topatzea ere lehentasunezkoztat jotzen du senitarteko honek.

Elgetako Udalaren jarraipena

"Zabortegi hori Elgetatik oso gertu dago, eta hainbat nukleo oraindik gertuago", esan du Elgetako alkate Iraitx Lazkanok. "Uneotan dugun kezka nagusia bertan piztu den suagatik da, eta horrek ekar dezakeen keagatik". Lazkanok dio garrantzitsua dela Elgetako ordezkariak ere deitzea inguruko herrietako ordezkariarekin egiten diren batzarretara. "Azkenean, bertan hartzen diren erabakiek Elgetako herritarrei ere eragiten dietelako".

Atzo goizean koordinazio eta jarraipen mahaia teknikoak bildu zuen Eusko Jaurlaritzak Zaldibarren. Ostean egindako prentsaurrekoan, Ingurumen sailburuorde Elena Morenok esan zuen, besteak beste, areagotu egin dituztela uraren eta airearen kalitatea neurtzeko azterketak, eta Elgetako bi auzotan ere egin dituztela. "Nola da posible Elgetako Udalarekin harremanetan ez jartzea? Zergatik ez dago Elgeta koordinazio mahaian mugakide izanda?", adierazi du Lazkanok sare sozialetan.

Udala harremanetan dago Egoetxeagako bizilagunekin, eta bereziki Egoarbitzakoekin. Esan du inguruko bizilagunek esanda dakiela Udalak neurketak egiten ibili zirela eguaztentean: "Baina ez dakigu beste ezer".

Alkateak lasai egoteko mezua helarazi die elgetarrei, baina baditu bere kezka: "Bestelako agintari batzuek esaten dutenez, ez dago inongo arriskurik. Ez dakit nik zenbateraino den horrela". Udala jarraipena egiten saiatuko dela esan du: "Ditugun baliabideak ditugunak dira, baina jarraipen zorroztzen egiten, eta herritarrak informetzen". Lurpean dauden bi langileak ditu bereziki gogoan Lazkanok. "Uste dut kontu honetan txarre-na hori dela. Bi gorpu daudela oraindik ere harrapatuta".

"Hilerokoak tabua izaten jarraitzen du oraindik"

ENARA I. DOMINGUEZ "HILE TOPAKETA" HITZALDIAREN GIDARIA

'Hile topaketa' izenburupean hitzaldia egingo du gaur Elgetako liburutegian, Bibliobero zikloaren barruan. Hitzaldiak ziklo menstrualaren gaia lantzen du

Naroa Urien Berrio ELGETA

Enara I. Dominguezek ziklo menstrualaren inguruko hitzaldiak ematen ditu. Gaur Elgetan izango da, gaian sakondu nahi duten herritarrekin, 18:30ean.

Zer da Hile topaketa hitzaldia?

Hilerokoaren inguruko esperientziak partekatuzeko topaketa bat da. Ez da ohiko hitzaldi bat, borobilean topaketa egitea da. Lehen hurbilpen bat izango da, nik nire bizipenetatik egiten dudana zerbait da. Hilerokoaren kulturaren inguruan hitz egingo dugu, aurrekari historikoaren inguruan hitz egingo dugu eta azalpen teorikoa egingo da hilerokoaren ziklo eta faseen inguruan. Bakoitzak konpromisoa hartu eta norberaren hilerokoaren erregistroa eginez gero ere, oso interesgarria izango litzateke, besteen esperientzietatik ikasteko.

Hilerokoaren gaia tabua da?

Bai, noski. Bagoaz hitz egiten, baina partekatuzeko beharra dago oraindik. Iragarkiak ikustearekin erraz konturatu gaitezke tabua dela. Izan ere, iragarkietan odola urdina izaten da, edota aktoreak pozik agertzen dira beti. Modu honetan, erraz ikusi daiteke gaia ekiditeko intentziora badagoela. Nire proposamena lehen pausoa eman eta elkarrekin bidean ibiltzen jarraitzea da. Ez daukagu imajinario berria sortua, eta imajinario zaharrek geratzen gara, eta, horretan jarraituz gero, isilpeko gaia izaten jarraituko du.

Hilerokoa odola bakarrik al da?

Hilerokoa bera dugunean edo mina dugunean bakarrik konturatu gara hilerokoaren zikloan bizi garela. Baina hilabete guztian zehar gabiltza hilerokoaren zikloan. Gure gorputza hobeto ezagutzeko helburua dauka hitzaldiak, azken finean; hilerokoaren faseak, emozioak, minak... Izan ere, oso garrantzitsua da zikloaren atal desber-



Enara I. Dominguez. E.I.D.

"HILEROKOAK HAINBAT FASE DITU ETA HAUEK EZAGUTZEA OSO GARRANTZITSUA DA"

dinez hitz egin eta hausnartzea, gertatzen zaizkigun gauzak hobeto ulertu ahal izateko. Guztion esperientzietatik ikasteko topaketa bat da, dibertsitatea aberastasuna da kasu honetan. **Norbera ezagutzeko aukera?**

Bakoitzak bere patroi hormonal propioa dauka, bizipen propioak... beraz, bakoitzaren kasua ezberdina da. Baina, lehen esan bezala, dibertsitatea ezagutu eta informazioa jasotzeko aukera bikaina da. Hitzaldia hilerokoa daukagun gorputz guztientzako jakintza da. Nire bizitza ezberdina izango litzateke 15 urterekin hitzaldian aipatuko den hau guztiau jakingo banu. Horregatik, adin tarte guztietako emakumeak etor daitezke. Esperientzia oso politak suertatzen dira eta guztion ahotsak entzun eta aholkuak eman eta jasotzeko aukera bikaina da.

Bibliobero zikloaren egitaraua

Bibliobero zikloaren barne hainbat ekintza daude:

'Hile topaketa'

- 2020-02-14
- Enara I. Dominguez 18:30ean, hilerokoaren inguruko hitzaldia

'Hitzez pitz berbalagun'

- 2020-02-7
- Irakurketa kluba, 18:30ean, irakurketa erotikoen inguruan

'Eros, eroso, ero'

- 2020-02-28
- Itziar Rekalde 22:30ean, ipuin erotikoen kontaketa

'Kopa menstrual'

- 2020-03-16
- Elkoro farmaziako kideak 18:00etan, koparen inguruko informazio saioa

Bernd Langer alemaniarra Elgetan izango da domekan

Sei eguneko egonaldia egingo du Euskal Herrian, eta Elgetan egingo du egonaldiaren azken geldialdia. Espaloian dagoen Memoria Historikoarekin Euskal Interpretazio Zentroan egin dute hitzordua, domekan, Bernd Langer historialari eta aktibista antifaxistarekin. 10:00etan elkartuko da Intxorta 1937 kultur elkartearen kideekin. "Historialari eta aktibista antifaxista da Langer", azaltzen du Baskale elkartearen Klaus Armbrüsterrek. "40 urteko ibilbide aktibista egin du Alemaniako mugimendu antifaxista. *Geschichte einer linksradikalen Bewegung* liburua ere idatzi du. Alemaniako antifaxismoa ikertzen du lan horretan".

OHARRAK

'Gu ere kontalari' gaur

Neska-mutikoei egindako ipuin kontalari saioa, liburutegian, 17:00etan.

Goibeko: loteria

Gabonetako loteria kobratzeko azken egunak. Otsailaren 14an 18:00etatik 20:00etara eta otsailaren 15era 12:00etatik 13:30era. Ozkarbi elkarteak.

Barrexa, domekan

Barrexa antzerki taldearen *Barre Tourra* ikuskizuna, Espaloian, 19:00etan.

Gerrako umeak

Neska-mutiko boluntarioen bila dabilta. Aurkezteko epea otsailaren 28an bukatzen da.

Kirolaren alde ilunaren gainean hausnartzeko hitzaldia, bihar

'Kirolaren alde iluna kriminologiaren ikuspegitik' hitzaldia gaztelekuan izango da bihar, 17:00etan

Naroa Urien Berrio ELGETA

Elgetako gaztelekuak, Udalarekin elkarlanean, *Kirolaren alde iluna kriminologiaren ikuspegitik* hitzaldia antolatuko du bihar. Hizlariak Oihane Vergara Pueyo eta Ainara Rankin Elvira izango dira, Euskal Herriko Profesionalen eta Ikasleen Kriminologia Elkartearen eskutik. Hitzaldia arratsaldeko bostetan izango da, gaztelekuan, eta herritar guztiak daude gonbidatuta hitzaldian eta ondorengo eztabaidan parte hartzera. "Beti hitz egin dugu kirolaren alde

onez, baina guk argumentu horiek kontrajarri eta genero bazterkeria, arrazakeria... jarriko ditugu mahai gainean", azaltzen dute hizlariak. "Ez dugu kirola kriminalizatu nahi, baina alde ilun hori azaleratu nahi dugu. Horretarako, hitzaldia bukatzerakoan, mahai-inguru bat sortuko dugu denon artean".

Hitzaldira adin guztietako pertsonak gonbidatu dituzte. Ume zein gurasoentzat bideratutako hitzaldia da. Iritzi eta garai ezberdinak kontrajartzeko aukera bikaina", dio Vergarak.

Gaur izango da erraldoiak egiteko lehen tailer irekia

Elgetako ludotekak, Udalarekin elkarlanean, ume eta gurasoekin erraldoiak sortzeko tailerra antolatuko du. Apirilaren 3ra bitarteko neska-mutikoei eta gurasoei zuzendutako eskulan tailer honetan, umeak izango dira protagonista, diseinutik hasi eta sortze prozesua barne, gurasoen laguntzarekin. Lehen tailerra

gaur egingo da, 18:00etatik 20:00etara, ludotekan. Adibideak aurkeztu eta lehen erabakiak hartuko dira. Hurrengo saioetan, diseinua adostu, materiala aukeratu eta muntaketa lanak egingo dira. Tailerra doan izango da gurasoendako. Neska-mutikoei hileko edo eguneko bonuak atera beharko dituzte hirugarren saiotik aurrera. Tailerraren helburua adin desberdineko ume eta gurasoen arteko talde lana bultzatu eta herritarren partaidetza sustatzea da.



Kultura etxean jartzen ari diren hiri-biodibertsitateari buruzko erakusketaren parte. M.S.



Oñatiko Osasun Etxea. M.S.

Astelehenean hasiko dira Ingurumen Jardunaldiak

Natur Eskolak antolatutako jardunaldietan bi arlo nagusi jorratuko dituzte: batetik, hiri-biodibertsitatea eta bestetik, ingurumenarekin lotutako borroka, problematika eta erronkak. Egitarau oparoa antolatu dute; tartean, erakusketa, hitzaldiak eta irteera

Maialen Santos OÑATI

Natur Eskolako arduradunek datozen asteetarako antolatu dituzte Ingurumen Jardunaldiak. Bi gai nagusiren bueltako ekintzak egingo dituzte: hiri-biodibertsitateari "garrantzi berezia" emango diotela azaldu du Aimar Uribealgok, arduradunetako batek: "Gurekin bizi diren espezieen ingurukoak ezagutzera eman nahi ditugu". Horretarako, astelehenetik martxoaren 8ra bitarte erakusketa jarriko dute kultura etxean, eta, publikoari zabalik egongo den arren, bisita-gidaturen bat egingo dutela azaldu du Uribealgok, "azalpenez lagunduta", erakusketa ikustea lagungarria dela iritzita. Astelehenean bertan inauguratuko dute espazio hori; 18:30ean.

Ingurumen borroka, erronkak eta problematika ere landuko dituzte jardunaldietan zehar; esaterako, Lemoizko zentral nuklearraren harira sortutako gatazka, "eta hori ere izango da erakusketaren parte". Ildo beretik, otsailaren 18an, *Ez, eskerrik*

IRTEERA EGINGO DUTE LEMOIZKO ZENTRAL NUKLEARRERA; JOATEKO, IZENA EMAN BEHAR DA AURREZ

asko dokumentala eskainiko dute, Gladys de Estal militante ekologistaren hilketari buruzkoa.

Lemoizko zentralera bisita

Otsailaren 22rako egun osoko irteera antolatu dute jardunaldien baitan. Goizean Lemoizko zentralaren inguruan ibilaldia egingo dute, eta bazkalostean, Jon Betanzos geologoak gidatutako

beste ibilaldi bat egingo dute, "geodibertsitatea lantzea" helburu. Irteerara joateko, izena eman behar da aurrez, eta hori "ahal bezain azkarren" egitea gomendatu dute antolataileek. Interesa duenak, *natureskola@yahoo.es* helbidera mezua bidali behar du, horretarako.

Gainontzeko egitarauaren berri jakiteko, ikus azpiko taula.

Egitaraua

Erakusketa

- **Otsailak 17- martxoak 8:** 'Gure herrikideak: hiri-biodibertsitatea'

Hitzaldiak

- **Otsailak 18:** 'Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa'.
- **Otsailak 19:** 'Mundu mailako ingurumen aktibisten errepresioa eta erahilketak'.
- **Otsailak 21:** 'Biodiversidad urbana. Su manejo y conservación en edificios'.
- **Martxoak 3:** 'COLAPSO: capitalismo terminal, transición ecosocial y ecofascismo'.
- **Martxoak 4:** 'Bai, mesedez! Egungo Ingurumen Erronkak'.

Zine kluba

- **Otsailak 20:** 'O que arde'.
- **Otsailak 27:** 'Capitán fantástico'.

Irteera

- **Otsailak 22:** 'Lemoizko zentral nuklearra eta inguruko geodibertsitatea'.

Gainontzekoak

- **Martxoak 1:** Zuhaitz Eguna
- **Martxoak 7:** Zuhaitz Azoka.
- **Martxoak 8:** Zuhaitz Eguna Aloñako Lagunekin.

Minbizia gaintitu dutenentzako 'Paciente bizia' saioak, hastear

Zazpi saio egingo dituzte, guztira; lehena, astelehenean. Minbizia izan ostean osasuna nola zaindu landuko dute

M.S. OÑATI

Paciente bizia programaren baitan hiru arlo ezberdinetako saioak egingo dira da Osakidetza: diabetesa dutenei zuzendutakoak, gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendutakoak eta minbizia gaintitu dutenei begirakoak. Hala, astelehenean, hilak 17, iritsiko da programa hori Oñatira, eta, zehazki, *Minbizia izan ondoren nire osasuna zaintzen programa* landuko dute. *Paciente Bizia* programaren Debagoieneko koordinatzaile Nerea Arizmendiarririk azaldu duenez, beste herrietako "arrakasta" ikusita erabaki dute honako gai hau jorratzea Oñatin.

Saioak, astelehenero

Datorren astelehenean hasi eta zazpi astez izango dira saioak. Hain justu, astelehenero elkartuko dira Osasun Etxean, 16:00etatik 18:30era bitartean.

Arkaitz Rodriguezek hitzaldia eskainiko du eguaztenean

EH Bilduko mahai politikoko kide Arkaitz Rodriguez eguaztenean, hilak 19, izango da EH Bilgunean hitzaldia eskaintzen. 19:00etan izango da hitzordua, eta gaurkotasan politikoari buruz jardungo du berbetan. Besteak beste, Pedro Sanchezen inbestidura, nazioarteko egoera, estatus berria eta EAEko hauteskundeak izango ditu berbagai.

Minbizia dagoeneko gaintitu dutenei –konkretuki, tratamendua duela urtebete inguru amaitu dutenei– eta gaixoen zaintzaileri bideratuta egongo dira saio hauek; ez, ordea, "oraindik tratamenduan" dauden pazienteei: "Behin minbizia gaintituta bizi kalitatea nola hobetu ikasiko baitute parte-hartzaileek".

12 pertsona inguruk hartuko dute parte programan, bi arduradun lagunduta –biak ere, gaixotasuna "gertutik" ezagutzen dutenak–. Hala, dieta osasuntsua izateko gakoak edo kirola eta erlaxazio ariketak nola egin ikasiko dute saioetan. Bestalde, "emozioak gestionatzeari" ere garrantzi berezia emango diote. Horretaz gain, astetik atera nork bere buruari erronka bat jarri beharko dio, hurrengo saioan aurrerapausoak eta oztopoak taldearekin elkarbanatu eta aurrera egitea helburu.

Euskararen alorreko dirulaguntzak eskatu daitezke dagoeneko

Bi laguntza-lerro kudeatzen ditu Udaleko Euskara Departamentuak: errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen dituzten entitateei zuzendutakoak, eta euskara ikasten ari diren herritarrei zuzendutakoak. 8.575 euroko partida du Udalak laguntza hauetarako, eta dirulaguntza eskaerak udaletxeko HAZ bulegoan egin behar dira.



Dantzari talde bat lekuan geldi, dantzari ekiteko prest. GOIENA

Ikastetxeak elkarrekin batu dira Inauterietara

Eguenean, herriko hiru ikastetxeetako 5. eta 6. mailetako haurrek bat egingo dute Inauterietako ohiko mozorroa jantzita dantza egiteko; zapatuan, kaleak alaituko dituzte herritar dantzariak; eta martitzenean, pailazoak eta txokolate-jana izango dira nagusi

Maialen Santos OÑATI

Inauteriak ate-joka direla eta, asko dira datozen egunetarako herrian antolatu diren ekintzak. Oñatiko hiru ikastetxeetako 5. eta 6. mailetako ikasleak –guztira, 270– izango dira horiei ongietorria egiteaz arduratuko direnak; aurtan, estreinakoz elkarrekin egin dute bat datorren egunean, Ostegun Gizenarekin,

guztiek batera Oñatiko Inauterietako dantzen erakustaldi txiki bat egiteko. Hala, 15:00etan elkartuko dira unibertsitatean, ohiko mozorroa jantzita. Oñatz Dantza Taldearen 50. urteurrenaren baitan hilabetero gai ezberdin bat jorratzen ari dira dantza taldekoak, eta, Inauteriak otsailean izanik, horien antolaketara lana Inauterietako lantal-

dearen ardurapean geratu dela azaldu du taldeko kide Arkaitz Bengoak: "Inauterietako lantaldean pentsatu genuen ikastetxeei gonbidapena egitea, urteurrenean Oñatiko Inauterietan bat egin dezaten". Hala, ikastetxeekin "bilera ugari" egin dituztela azaldu du Bengoak, ikastetxeekin elkarlana "ezinbestekoa" izan dela irizita.

Zapatuan, dantza gehiago

Otsailaren 22an izango da herritarren txanda. 11:30ean Olaiturrin elkartuko dira dantzariak, pertsonaiak eta musikariak. "Guztira, 300 pertsonatik gora elkartuko gara, inoiz baino jende gehiago", adierazi du Bengoak. Orain artean entseguetan prestatutako dantzak kaleetan egingo dituzte, eta jantzien koloreak ere lagungarriak izango dira kaleak alaitzeko. "Berrikuntzarik ez da egongo; dantzak azken urteetako berdinak izango dira, eta jantziak beti bezain koloretsuak", gaineratu du. Goiza dantzan pasa ostean etenaldia egingo dute, Etxe Aundi jatetxean elkarrekin bazkaltzeko. Eta egunari amaiera borobila emateko arratsaldean ere egingo dute dantzen erakustaldia; pla-

zan amaituko dituzte horiek, 20:00 bueltan.

Inauterietako lantaldeko kideak azaldu du dantzan ez ezik, herritar askok azaldu dutela musikari gisara parte hartzeko nahia, eta "baliabide faltarengatik" mugatu behar izan dutela horiendako lekua. Halere, datorren urtera begira musikarrien kopurua handitzeko baliabide gehiago jarriko dituztela iragarri du, jende gehiagok parte hartzeko aukera izan dezan.

Hurrengo egunean, domekan, urtero legez Oñatz Dantza Taldeko kideek egingo dute dantza. 18:30ean plazan izango da hitzordua, eta Luzaideko bolantak eskainiko dizkiete herritarrei.

Martitzenean, pailazoak

Inauterietan jarraitzeko, martitzen arratsalderako ere antolatu dituzte ekintzak. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak 17:00etan iritsiko dira Zubikoa kiroldegira ikusleei barre eragitera. Sarrerak dagoeneko eskuratu daitezke www.onati.eus webgunean edo Txokolateixan, 2,50 euroren truke. Eta soberan egonez gero, egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira Zubikoako leihatilan, 3 eurotan.

Horren ostean, 18:00etan, Oñatiko Elizbarrutiko misio taldeak antolatuta txokolate-jana solidarioa egingo dute plazan, eta 18:30ean, txorimalo eta buruhandiak ibiliko dira kaleetan. Disko festarekin emango diete amaiera aurtengo Inauteriei.

300 PERTSONATIK GORA ARITUKO DIRA KALEETAN, ZAPATUAN; DANTZARI, MUSIKARI ETA PERTSONAIK

Inauteriak, 'Hurretik'-en

Herriko ondarearen transmisioa helburu duen *Hurretik* egitasmoaren baitan sartuko dute Oñatiko Inauterien inguruko unitate didaktikoa. Udaleko Euskara eta Hezkuntza teknikari Iñaki Akizuk azaldu duenez, zortzi unitate didaktiko berri prestatzen ari dira, eta horietako bat izango da *Oñatiko Karnabalak*. Zehazki, 5. eta 6. mailetako ikasleendako da, eta Inauterietako lantaldearekin batera ari dira materiala prestatzen.

Gualbi
asesores

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Urrezko Aizkora eta harri-jasotzeak domekan

Gizonezkoetan, 23 urtez azpiko lau bikote etorriko dira eta hiru pasako dira Azpeitiko finalera. Emakumezkoetan, bi lagunek jardungo dute eta batek egingo du aurrera. Urrezko harri-jasotze txapelketako finalaurrekoan beste bi lehiatuko dira

Oihana Elortza OÑATI

Urrezko Aizkorako eta harri-jasotze txapelketetako finalaurrekoak jokatu dira domeka eguerdian Foruen plazan. Goi mailako aizkolarien artean, baina, aldaketak egon dira eta 23 urtez azpikoak etorriko dira Oñatiko saiora.

36 enbor mutilek

Domekako finalaurrekoak antolatzen ibili den Anjel Billar Santue-ren esanetan, kategoria mailan egon da aldaketa: "Orain arteko probetan, finaleko azken bikotea beti Oñatiko probatik atera izan da, baina aurten erabakita daude finalistak; ez dago finalaurreko horren beharrik. Domekan, Oñatin, 23 urtez azpikoen Urrezko Aizkora egingo da. Lau bikote etorriko dira eta hiru zuzenean finalera pasako dira. Eta emakumezkoetan, azken sailkatua hemendik aterako da martxoaren 7an Azpeitian izango den finalerako". Harri-



Aizkolariek eta harri-jasotzaileak plazan herriko jaietan. GOIENA

jasotzaileetan ere berdin, bitatik bat finalera pasako da.

Eguerdian 12:00etan hasiko da saioa, plazan. Aizkoran, 36 enbor ebaki beharko dituzte mutilek, binaka: Basozabal eta Larrea III.a, Zelai IV.a eta Suharri, Ez-

peleta eta Zabala eta Kañamares anaiak. Emakumezkoetan, Aros-tegi eta Gonzalo lehiatuko dira; sei enbor izango dituzte. Harri-jasotzaileen finalaurrekoan, berriz, Galarraga eta Urdax lehiatuko dira.



Alaitz Kortabarria eta Gaizka Galfarsoro sariarekin Donostian. A.K.

Eskalada eskola saritu du Gipuzkoako Kirol Federazioak

Aloña Mendi kirol elkarteak eta Oñatiko Udalak azken urteetan egindako elkarlanagatik izan da saria

O.E. OÑATI

Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteak Aloña Mendiko Kirol Elkarteak eta Oñatiko Udala saritu zituen, eskalada eskolarekin egindako lanagatik.

Kirol modalitate bakoitzak egin ohi du bere modalitateko proposamena sarirako. Beraz, Gipuzkoako Mendizale Federazioak Oñatiko Udala eta Aloña Mendi Kirol Elkartekoko Mendi Saila proposatu zituen mendizaletasun sarirako. Araotz eta Atxuriko eskalada-guneak birgaitzearen aldeko ekimen berri-tzaileak abian jartzea bultzatu

dutelako saritu zituzten Udala eta herriko kirol elkarteak. "Oso pozik jaso dugu saria. Azken finean, oso proiektu polita da hau, elkarlana ona izan da. Gu urte askoz ibili gara Araotz inguruko paretak eskaladarako egokitzen, eta Udalarekin egindako akordioak lan hori aitortzen du; mantentzean lagunduz, esaterako. Biok ez ezik, hitzarmenean Aldundia eta Federazioa ere badaude. Auzotarrek ere euren lurra utzi dituzte... Alde asko sartzen dira egitasmo honetan", dio Gaizka Galfarsoro eskalatzaileak.

"Kirolaririk ez, baina herri kirolak ikusteko afizioa badago Oñatin"

ANJEL BILLAR ANTOLATZAILA

Anjel Billar Santue da domekan egingo den Urrezko Aizkorako probaren antolatzzaileetako bat. **Ohitura bihurtzen ari da otsailean Urrezko Aizkorako proba bat Oñatin egitea.** Bai; izan ere, izango dira zazpi-zortzi bat urte lehenengoa egin zenetik. **Zenbat zabilzate antolatze lanean?**

Normalean, hiruzpalau ibiltzen gara aurreko lanak egiteko. Egunean bertan zortzi-hamar bat lagun behar izaten dira, eta, zorionez, oraindik topatzen ditugu. Udalak ere beti lagundu



O.E.

izan digu, inoiz ez dugu arazorik izan.

Eguraldi ona egiten badu, herriko plazan izango da. Kiroldegian, txarra eginez gero.

Plaza beti da plaza. Zerbait dagoela ikusiz gero, kalean dabilen jendea ere hurbildu egiten da, eta jendea pilatzen da herri kirolak ikusteko. Kiroldegia ez dago urruti, baina joan egin behar da hara. Guretako alde handia du plazak, bai.

Kirolari asko dago herrian, baina herri kirolan dabilenik, apenas.

Zoritxarrez, kirolaririk ez dugu, ez. Kirol gogorra delako, agian. Sokatiran lehen egiten zen herrian, piztualdi bat izan zuen, baina ez du jarraipenik eduki. Gogorra da denbora askoan irauteko.

Eta afiziorik badago?

Bai, afizioa bai. Oñatin herri kirolen zale asko daude, gustatzen zaizkie herri kirolak oñatiarrei.

GORA ETA BEHERA



M.B.

Aldageletako mezuak, garbitu barik

Zubikoa kiroldegiko aldagelan kirol talde baten aldeko animo mezuak irakurri ditu herritar batek, baina hori ondo bezain gaizki iruditu zaio partidu amaieran idatzitako hori ez kentzea.



Ikastaroetan parte hartu dutenen talde argazki bat. IRAZANO

Helduendako antzerki taldea jaioko da Irazanen

Orain arteko tailerretan parte hartu dutenen gogoia eta antzerki zaletasuna ikusita eman dute pausoa nagusien taldea sortzeko. Otsailean hasita, inprobisazioa eta antzerkigintzako lehen pausoak erakutsiko dituzten ikastaroa antolatatu dute

Oihana Elortza OÑATI

Hainbat ikastaro eta saio antolatatu ditu Irazan antzerki-guneak azken bizpahiru urteetan helduendako, eta, tailerretara joaten zen jende kopurua eta, batez ere, eurek antzerkirako zuten zaletasuna eta gogoia ikusita animatu dira helduendako antzerki taldea sortzea. "Saio horien balorazioa egin genuen, eta, parte-hartzaileen jarrera ikusita, jarraitzeko gogoia sortu zaigu guri ere", dio Irazaneko Amaia Castañedak.

Antzerkira gerturatzeko saioak

Helburua da oinarrian helduen antzerki taldetxo bat sortzea eta taldea osatzen duten kide horien interesekoak diren gauzak egitea. Eta hori martxan jartzeko, hainbat ikastaro antolatatu dituzte datozen asteetarako. "Ikastaro hauek oinarritzako izango dira, lehen pausoak ikasiko ditugu, inprobisazioa lantzekoak, adibidez. Era berean, gura duguna da jendeak deskubritzea gorputz

hizkuntzarekin, hitzik esan gabe, zenbat gauza adieraz daitezkeen", dio Irazaneko kideak.

Castañedak berak emango ditu saio horiek. Hileko azken zapatuetan izango da –apirilean izan ezik– eta goizez egingo dituzte, 10:00etatik 14:30era, Irazan antzerki-guneak Eltzian duen lokalean. Otsailaren 29an izango da lehen saioa eta izena hilaren 22a aurretik eman behar da. Bost saio izango dira, guztira, eta prezioa 100 euro da. Interesa duenak helbide honetara bidali behar du mezua: irazan.eskola@gmail.com. Edozein galdera egiteko edo zalantza argitzeke ere erabil dezake helbide hori. Berez, 16 urtetik gorakoendako izango dira.

BOST SAIO ANTOLATU DITUZTE ETA INTERESA DUENAK HILAREN 22A AURRETIK EMAN BEHAR DU IZENA

Edozein joan daiteke

Antolatutako ikastaro horiek irekiak izango dira; hau da, horra joateak ez du esan gura gero antzerki taldean parte hartuko duenik. "Animatzen den edozein etor daiteke, antzerkira gerturatzeko da ikastaro hauen helburua", gaineratu du Castañedak.

Irazan antzerki-gunea hasieratik aritu da lanean antzerkia gustatzen zaien herritarrei horretako aukerak eskaintzen. Egun, hiru talde daude: umeena, gazteena eta XUT. Sortuko den helduen talde hau laugarrena izango da.

Zein bide hartu erabaki

Castañedak azaldu du sortuko den talde honek berak erabakiko duela zer bide hartuko duen edo zer landuko duen. "Interesa egonez gero, kurtso amaieran mostra edo erakustaldi txiki bat prestatu dezakegu. Edo aurrerago egitea egokiago ikusiz gero, ba, beste egunen batean egin dezakegu".

Beste sei bertsolari lehiatuko dira Dizdaitteko biharko saioan

Joan den astean jokaturako lehen kanporaketan, Mainer Arregik lortu zuten finalera zuzenean joatea

O.E. OÑATI

Bertsolari gazteen Dizdaitte bertso sariketaren bigarren kanporaketa izango da bihar, zapatua. Beste sei bertsolarik hartuko dute parte: Maite Sarasolak, Ane Zuazubizkarrek, Txaber Altubek, Oihana Aranak, Maddi Ane Txoperenak eta Urko Arregik. 17:30ean hasiko da saioa, Ikatz tabernan.

Sei finalista

Dizdaitte sariketako finala hilaren 29an izango da, Antixena gaztetxean, eta sei bertsolari egongo dira sariketa irabazteko azken lehia horretan.

Sariketako lehen finalista Maider Arregi da. Bera izan zen lehen kanporaketan puntu gehien lortu zituen bertsolaria, eta, horrenbestez, zuzenean sailkatu zen finalerako. Biharko saioa onenak ere bide bera hartuko



Maider Arregi, aurreko saioan. I.S.

du. Eta gainerako lau finalistak beste bertsolariek lortutako puntuazioaren arabera sailkatuko dira.

Oñatiko Txinparta bertso eskolak antolatatu du sariketa eta bertako kideak ibiliko dira gaitzartzaile lanetan.

Ez da sarrerarik gelditzen Ordorikaren kontzerturako

Emanaldia egingo dute Ruper Ordorikak eta Mugalariak domekan, Santa Anan. Eta dagoeneko ez da sarrerarik gelditzen. Aurreko asteburuan saldu ziren azken sarrerak. Gertukoei "gozarazteko" helburua dutela esan zuen musikari oñatiarrak eta Santa Ana antzokian egongo diren 253 entzulek baieztatu ahal izango dute hori.

Ameli ipuin kontalaria Txaloka ludotekara dator arratsaldean

Ameli ipuin kontalaria etorriko da gaur, egubakoitza, arratsaldean Txaloka ludotekara. 18:00etan ekingo dio saioari, baina ludotekako ateak lehena gozabalduko dituzte; 17:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Eraberrituta dago Txaloka ludoteka eta herritar guztiei zuzendutako ekintzak antolatzeko asmoa dute hezitzaileek.

Ikastaro berria egingo du Swing elkarteak

Swing musikarekin dantza egiteko ikastaroa antolatatu dute. Lindy hop dantzaren hastapen talde berria izango da eta hasierako pausoak ikasiz ekingo diote ikastaroari. Eguaztenetan izango dira eskolak, 20:45ean, eta izen-ematea zabalik dago. Interesa duenak helbide honetarako bidali behar du mezua: o.lindyhop@gmail.com.

Kabareta ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko

Otsailaren 21ean egongo da kabaret ikuskizuna Santa Ana aretoan. *Simplicissimus* du izena obrak eta umorea du oinarri. Tartean Teatro konpainiako kideak daude honen atzean; Patxo Telleriak idatzitako lana da. Sarrerak salgai daude, 10,50 eurotan, ohiko tokietan: udal webgunean, leihatila digitalean eta Txokolateixan.

"Kanpoko triatletak erakartzea da erronka"

ANDONI CORREAS ALOÑA MENDIKO DUATLOI TALDEKO KIDEA

DUATLOIA Erandion hasiko dute Euskal Zirkuitua, zapatuan, eta tartean egongo da martxoaren 28an Oñatin egingo duten lasterketa; izen-ematea zabalik dago jada

Xabier Urzelai ARRASATE

Hilabete pasatxo geratzen da, baina Oñatiko duatloiko antolatzaileak buru-belarri dabilta herriko lasterketaren 28. edizioa izango dena antolatzen. Gertuko triatletak mimatzen jarraitu gura dute, baina kanpokoak erakartzeko ahaleginetan dabilta.

2018ko hutsunearen ondoren, iaz indarberrituta etorri zen lasterketa –sare sozialetan emanaldia zuzenean eskaini zuten–. Eguraldiak lagundu egin zuen, 200 atleta irteera puntuan...

Bai; 2018an ez genuen nagusien lasterketa antolatu, baina gaztetxoendako lasterketa antolatu genuen goizean, eta horrek balio izan zigun 2019an egun osoko egitaraua antolatzeko. Eta aurten ere dinamika berberari eutsiko diogu: goizean gaztetxoak izango dira protagonistak eta arratsaldean nagusien lasterketa egongo da. Egia da antolaketa ikuspuntutik eguna asko luzatzen dela eta nekagarria ere badela, baina emaitza askoz borobilagoa da, eta horrela jarraituko dugu. **Atletek ere neurria eman zuten iaz. Irene Loizatek ez zuen kontrariorik izan, eta gizonezkoetan nazioarteko atleta bat izan zen irabazlea, Erresuma Batuko James Michael Teagle.**



Andoni Correas. X.U.

Loizatek erraztasun handiarekin irabazi zuen, bai, eta gizonezkoetan borroka handiagoa izan zen, eta triatletek oso maila polita erakutsi zuten. Aurten asmoa da podiumera igo ziren sei kirolariak lasterketara gonbidatzea, ea posible den, agenda guztiak bateratzea ez da-eta erraza izango.

Nobedadeak izango dituzue aurten lasterketan; bereziki, bizikletako tartean.

Distantziari dagokionez, azken urteotakoaren antzerakoa izan-

go da. Atletek 10 kilometro egingo dituzte korrika, ondoren 38 kilometro bizikletan eta azken bost kilometroak korrika egingo dituzte osterera ere. Hala, bizikletako tartean lehenengo kilometroetan ziklistak Elorregiraino joango dira bizikletan, eta ondoren, San Pedroko bidegurutzean –Etxe Aundi ondoan– Usako aldera hartuko dute. Hor dator aldaketa, Arregiko aldapa igoko dute eta –500 metroko aldapa, malda gogorrenekin–. Eta



Duela bi urte, goizean gaztetxoendako egindako lasterketan. GOIENA

Martxoaren 28an, egun osoko plana

2018an Herrizaingo Saitetik trafikoa mozteko baimenekin izandako arazok ekarri zuten nagusien lasterketa bertan behera uztea, eta Aloña Mendiko taldekideek harrobian jarri zuten indarra. Iaz moduan, aurten ere egun osoko egitaraua antolatu dute.

saihesbidera jaitzikoan txirindulariek Arantzazurako bidea hartuko dute, Urtiagaineraino –hiru kilometroko igoera–. Hala, Araotzera joateko bidegurutzean buelta erdi eman eta Oñatira jaitziko dira. Eta hor bigarren itzuliari ekingo diote, baina bigarren itzulian ez dira osterera ere Urtiagainera igoko: Santipillau igoko dute eta herrira jaitziko dira.

Zer lortu gura izan duzue aldaketa horrekin?

Bueno; tarteka, ibilbidean aldaketak egitea ondo etortzen da, eta egia da Arregiko jaitziera nahiko arriskutsu egoten zela, errepidea ez dagoelako ondo. Horrekin batera, lasterketa zuzenean eman ahal izateko bizikletako tarte berrian estaldura hobea izango dugu. Elorrirako errepidea bi orduz itxita egongo da eta Arantza-

zuko errepidea ordubetez itxita egongo da.

Triatleta euskaldunek ondo ezagutzen dituzte etxeko lasterketak. Kanpokoak erakartzea zailagoa da. Zoritxarrez, hemen ez dago mendi lasterketako boom-ik.

Ez; guri izen-ematea betetzea gehiago kostatzen zaigu; kar, kar, kar. Horregatik egingo dugu, besteak beste, lasterketa zuzenean emititzeko ahalegina. Iazko edizioan, emaitza txukuna irten zen, baina hobekuntza batzuk egingo ditugu –Laligasports.com plataforman bidez egingo dute–.

"IAZ PODIUMERA IGO ZIREN ATLETAK GONBIDATUKO DITUGU, EA DENEK ETORTZERIK DUTEN"

Kontrario zuzenak izango dituzte ibarreko ordezkariak

FUTBOLA Mondrak hiru puntu gehiago dituen Touring hartuko du; Aloña Mendik kolpea eman dezake ligan

X.U. ARRASATE

Ohorezko erregionalean, ibarreko hiru ordezkariak kontrario zuzenak izango dituzte aurrean. Mondra izango da etxean jokatuko duen bakarra; zuri-moreek hiru puntu gehiago baino ez

dituen Touring hartuko dute zapatuan (16:30, Mojategi).

Bergarak partidu oso garrantzitsua izango du etxetik kanpora. Euskaldunak 17 puntu ditu, eta azkena da sailkapenean. Eta Bergarak bi puntu gehiago

ditu. Hala, mahoneroak saiaturiko dira bihar Andoingo taldeari oxigenorik ez ematen (16:00).

Eta, azkenik, sailkapenean geroago eta gorago dagoen Aretxabaletak –zazpigarren– Ordizian jokatuko du zapatuan (16:00). Ordiziarrek oso bolada txarra izan dute, baina azken bi partiduak irabazita konfiantza errekuperatu dute.

Aloña Mendik, Azpeitian

Erregional preferentean, Aloña Mendi lehenengo dago, eta biga-



Gorka Euskaldunaren kontra. GOIENA

rren sailkatu Lagun Onaken zelaian jokatuko dute domekan (16:30). Hamaika jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, baina irabaziz gero oñatiarrek 7 puntuko aldea izango lukete.

Leintz eta Bergara, kanpoan

Emakumezkoen ligan, Leintz Arizmendiko neskak lehenengo daude, eta hirugarren dauden Intxaurdikoen zelaian jokatuko dute bihar (15:00). Bergarak, berriz, Urnietan jokatuko du zapatuan (17:30) baita ere.



Bilbao Club Deportivoko mendi lasterkari bat, iaz, azken metroetan antzuolarren berotasuna jasotzen. GOIENA

Antzuolan denboraldi berriari ekiteko prest

MENDI LASTERKETAK Domekan 280 korrikalarik hasiko dute Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Denboraldi hasiera izanda, korrikalariak ilusioak berrituta daude. "Mendi lasterketetan hasi gura duenarendako proba egokia da gurea", dio Gurutz Larreak

Xabier Urzelai ARRASATE

Ez da urteko lehen mendi proba –gaur egun, denboraldiak ez du etenik–, baina domekako Antzuolako 8 Miliak lasterketak (10:30, plazan) denboraldi hasieran harrapatuko ditu korrikalariak. Eta Debagoienean bai izango da 2020ko lehen hitzordua: "Kontuan izanda parte-hartzaileen %70 bailarako jendea dela, bai, denboraldia Antzuolan hasiko dute askok", dio antolaketan lanean dabilen Gurutz Larreak.

Hala, jendea gogotsu dago urteko lehen lasterketa egiteko, bai esperientzia dutenak, bai hasiberriak: "Ez dugu esango gurea lasterketa erraza denik, distantzia luzea ez badu ere –13 km– ondo entrenatuta ebortzea komeni da eta: mendian ibiltzera ohituta, korrika egitera ohituta... Baina bai da egia mendiko lasterketetan hasi gura duenarendako neurriko proba dela". Gainera, domekarako eguraldi iragarpenek diote ona egingo duela,

eta horrek ere izugarri lagunduko du.

Zortzigarren edizioa

Antzuolako lasterketako antolatzaileak ez ditu ezustean harrapatuko egin beharreko lanak, dagoeneko zortzigarren edizioa izango dute eta: "Baina egia da lasterketako izen-ematea ordu gutxitan agortzeak eskatzen duela proba txukun antolatzea. Ez lasterkariak jarritako konfiantzagatik bakarrik, baita antzuolar askoren lana ere egongo delako atzean".

Konturatu orduko, 280 lagun

Kirolprobak.com webgunearen bitartez ordu gutxian eman zuten izena 240 lagunek: "Beste

ZORTZI MILIETAKO PARTE HARTZAILEEN %70 DEBAGOIENENKO MENDI LASTERKARIAK IZANGO DIRA

hogeit lagunendako gonbidapenak gorde genituen eta ondoren konturatu ginen lasterketan parte hartu gura zuten hainbat herrikide kanpoan geratu zirela, eta beste hamar lagun-edo tokia egin genien". Hala, konturatu orduko, 280 lagun batuko dira irteera puntuan: "Puntako atletarik igual ez, baina maila oso politean dabilzanak batuko dira".

Arrasatearrei erreleboa?

Ikusteko dago domekako lasterketan iazko arrasatearren protagonismoa nork hartuko duen, gizonetakoetan Iñigo Alzola (1.05.24) eta emakumeetakoetan Ane Zabala (1.20.21) izan ziren-eta onenak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Euskalduna-Bergara

Zapatua. 16:00. Andoain.

Ordizia-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Ordizia.

Mondra-Touring

Zapatua. 16:30. Moiategi.

ERREGIONAL PREFERE.

Billabona-Mondra

Zapatua. 15:30. Arratzain

Soraluze-Antzuola

Zapatua. 17:00. Ezozia.

Aretxabaleta-Ikasberri

Domeka. 16:30. Ibarra.

Lagun Onak-Aloña Me.

Domeka. 16:30. Garmen.

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Agorros.

Anaitasuna-Mondra

Zapatua. 15:45. Azkoitia.

Tolosa-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00. Usabal.

EMAKUMEZKOEN OHO.

Intxaurdi-Leintz Ariz.

Zapatua. 15:00. Donosti.

Urnieta-Bergara

Zapatua. 17:30. Urnieta.

EMAKU. PREFERENTEA

Leintz Aloña-Intxurre

Domeka. 16:30. Azkoaga.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Zirauntza-Mondrate

Zapatua. 17:00. Araia.

Usansolo-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00. Galdaka.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Mondrate-Tolosaldea

Gaur. 22:15. Tolosa.

SENIOR BIG. MAILA

Eskoriatza-Laskorain

Zapatua. 17:00. M.Muño.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Anoeta-Eskoriatza

Gaur. 22:00. Anoeta.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Gure Au.

Zapatua. 16:30. Iturripe.

F.Industrial-Hondarrib.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Cons. Aloña-Lauko Elg.

Zapatua. 19:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Soraluce Berg.-Doniba.

Zapatua. 16:00. Labegar.

SASKIBALOA

EBA

MU-Solares

Domeka. 18:30. Iturripe.

EUS. BIGARREN MAILA

Mekalki Aloña-Lakua

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Rod.Arizti-Alkideba O.

Zapatua. 18:00. Gasteiz.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Bergara Sor.-Getariako

Zapatua. 20:00. Labegai.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Arri BKL-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Beasain.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE

Bilboko Unib.-ART

Zapatua. 15:30. Bilbo.

HERRI KIROLAK

Domeka. 12:00. Oñati.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

OÑATI

Egubakoitza. 18:30ean

hasita sei partidu.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita bi partidu.

BERGARA

Egubakoitza. 20:15ean

hasita partidu bat.

Panticosara selekzioarekin


Euskal Mendizale Federazioak aditzera eman du oraingo asteburuan ze mendi eskiatzaile izango diren selekzioa ordezkatzeko, eta ez da ezustekorik egon. Senior mailan Oñatiko Axier Alonso izan da hautatuetako bat eta gazte mailan Aramaioko Aitor Ugarte ere Panticosara lehiatuko da. Azken hori La Sportiva taldeak fitxatu berri du.



A.A

Aristi, urtea hastera

Belaunean izandako tendinitis batek urte hasiera apur bat baldintzatu badio ere, Mikel Aristi gertu dago lasterketetan debutatzeko. DKSkio kirolari onenaren irabazleak Algarven (Portugalen) izango du denboraldia hasteko aukera, datorren astean. Bergararrak sare sozialetan erakutsi du normal dabilela entrenatzen.



EUSKADI FUNDAZIOA



Jarduneko Maitane Arizabaleta, Karmele Uribesalgo eta Izar Odriozola irabazleekin. JARDUN

Amodiozko gutunen lehiaketa, sekula baino bergararrago

Bost sarietatik hiru Karmele Uribesalgo eta Izar Odriozola herritarrek jasoko dituzte, eta gainontzekoak Hondarribiko Ainara Elizondok. Sari-banaketa ekitaldia gaur da, Irizar jauregian, 19:00etan; musika eskolako biolin-joleak eta luntxa izango dira

Aitziber Aranburuzabala BERGARA San Valentín eguna da gaur, eta, urtero moduan, Bergarako Jardun Euskara Elkarteak amodiozko gutunak eta esaldia sarituko ditu. 1993an abiatu zuten eta urtez urte gutun gehiago jasotzen dituzte; aurten, 141.

Lan bat baino gehiago bidaltzeko aukera dagoenez, egile batek sari bat baino gehiago jasotzeko aukera du, eta hala gertatu da orainoan: Karmele Uribesalgotik helduen epaimahaia-

ren sari nagusia –500 euro– eta epaile gazteen eskutik Gazteen saria –150 euro– jasoko ditu, bakoitza lan batekin; eta beste bi sari irabazi ditu Hondarribiko Ainara Elizondok, bigarren saria –250 euro– eta esaldi onenarena –100 euro–; eta herriko onenaren saria –150 euro– Izar Odriozolak jasoko du.

Aspalditik parte hartzen

Urtetik urtera idazle berriak agertzen diren arren, gehienek

aspalditik dute Bergarara eskutitza bidaltzeko ohitura. 40 urtetik gorako parte hartzaileen artean gizonezkoak dira nagusi, eta alderantziz gertatzen da 26 urte azpikoen artean; batez besteko adina 33 urte da. Euskal Herriko hainbat tokitatik jaso dituzte aurten ere, baina antolatzaileek "faltan igarri dituzte" Nafarroako eta Iparraldekoak.

Euskaraz idazteko bultzatzeko asmoz sortu zuten eta horretarako gozoki gozoa dela dio aur-

"Izugarri estimatzen ditut bi epaimahaiek esandako hitz gozoak"

KARMELE URIBESALGO LEHENENGO ETA BIGARREN SARIEN IRABAZLEA

Kazetaria da ofizioz, eta aspalditik du idazketa lehiaketetan parte hartzeko zaletasuna; oso pozik dago herrikoan bi sari irabazita.

Zorionak! Bi jasoko dituzu; sorpresa izan da?

Duda barik; bat irabaztea zaila iruditzen zitzaidan; beraz, pentsa bi irabazita. Oso gustura nago!

Garai baten, gazte epaimahaikide izan zinen, eta horrek animatu zintuen, geroago, parte hartzera, ezta?

Batxilergoko lehenengo mailan nuen sariketa barrutik ezagutzeko aukera eta asko gustatu zitzaidan; eta idaztea beti gustuko izan dudanez, hurrengo urtean parte hartu nuen, eta, harrezkero, hala egin dut ahal izan dudan guztietan.

Zeri buruz da sari nagusia irabazi duen gutuna?

Bakardadearen inguruan idatzi nahi nuen, azkenaldian asko entzun dut-eta gaiari buruz; mahai-inguru bat entzun nuen irratian eta horren inguruan

idaztera bultzatu ninduen. Rosario 86 urteko emakumeak idazten dio bere zaintzaileari; ez du igogailurik etxean, eta urtebete doa etxetik atera gabe, eta jende gutxi joaten zaio bisitan eta berarekin dago beti zaintzailea. Euren arteko harremana erakutsi gura izan dut, amodiozko gutun moduan.

"Sinesgarria eta sentsibilizazio handiz idatzitakoa dela" diote helduen epaimahaikideek; zer deritzozu?

Halako gauzak entzutea pozgarria da, oso gustura nago! Diru-saria pozik hartuko dut, baina garrantzi handia ematen diet hitz horiei.

Gazte saria ere zuretzako da; zer kontaktu duzu horretan?

Nere izeneko emakume batek idazten du, etxean Saharako haur bat izan zuten eta urteak doaz haren berririk gabe. Haur horrek 20 urte bete ditu eta zoriontzeko gutun bat idatzi dio Nerek, esanez hura topatu guran ari direla eta urtero idazten diotela, nahiz eta ez duten harengana heltzen asmatzen; hala ere, erantzuna jaso arte idazten jarraituko dutela esan dio amaordeak.

Zenbat eskutitz bidali dituzu aurten?

Bakarra bidaltzea zen hasierako asmoa, baina, azkenean, hiru bidali ditut; irabazi duena idatzi dut aurten eta horretan nenbילהa aurrez idatzita nituen beste bi aurkitu nituen ordenagailuan.

Zuzenketatxo batzuk egin, eta bidali egin nituen. Zortea izan dut!

Idaztera bultzatzeko lagungarriak dira halako sariketak?

Duda barik; gutxienez, urtean behin idazteko aitzakia polita da!



JARDUN

KONTZERTUA, MANEX PAGOLAREN OMENEZ

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 15EAN, ZAPATUAN, 19:00ETAN ETA 23:00ETAN

OTSAILAREN 16AN, DOMEKAN, 15:30EAN

BESKOITZEKO IKASTOLAREN ALDEKO KONTZERTUA,

TXANTXIKU IKASTOLAK ANTOLATUTA

goiena
Zu hemen zaude.



tengo irabazle nagusi Karmele Uribealgok: "Oso gustuko dut lehiaketa, herrikoa delako, batetik, baina, bereziki, lehiaketa ezberdina delako. Bikote harremani buruzko gutunak izan behar direla dirudien arren, nik ez dut hala ikusten, beti pentsatu dut beste buelta bat emanda gauza interesgarriak atera daitezkeela. Ariketa polita da beste baten azalean jartzeko".

Bigarrenez hartu du parte Izar Odriozolak -2017an Gazte saria irabazi zuen- eta berak ere oso gustuko du: "Aurten ere oso gustura idatzi dut, eta ilusioa egiten dit lehiaketa honen historialean nire aletxoak uzteak. Barruan ezkutaturik dugun idazteko gogo berreskuratzen laguntzen du ekimen honek, idazkeran ahalduntzen".

Herritik kanpo ere estimu handia du sariketarak, honela adierazi du Ainara Elizondok: "Oso berezia da, hasteko, kopuruagatik, ehun gutunetik gora aurkezten dira eta izugarria da hori; eta, bestetik, sekulako maila dagoelako. Hori ondo dakit, 2002an epaimahaian egon nintzen eta nahiko lan izan genuen onena aukeratzeko".

Maitasuna, zentzu zabalean

Askotarikoak dira igorleak eta gutunen hartzaileak. Uribealgoren gutun irabazle nagusian, amona batek haren zaintzaileari idatzi dio, eta Gazte saria jaso duen idatzian, Nere amaorde euskaldunak etxean orain dela urte asko izan zuten Saharako haurrari; Elizondok Donostiako San Tomas txerriari eskaini dio gutuna; eta, Odriozolak, "gutun erromantiko bat baino gehiago, misteriozko eleberri txiki bat sortu duela", dio, zera gaineratuta: "Gutuna nire bizitzako erabaki baten ondorioa da. Hartzailea nor den ez dago agerian, eta ez dut esaten nondik idazten diodan. Bukarera dena argitzen da, eta gutuna berriz irakurtzea komeni da, behin hartzailea nor den jakinda dena hobeto ulertzen delako". *Goiena.eus* atarian daude gutun irabazleak irakurgai.

HERRIKO BI IDAZLEK JASOKO DITUZTE GAURKO EKITALDIAN SARIKETAKO HIRU SARI GARRANTZITSU

Helduen epaimahaia literatura eta kultura arloko lagunekin osatu dute: Gari Amundarain musikaria, Ane Zuazubiskar bertsolaria, Goiatz Labandibar idazlea eta Iñigo Legorburu iazko irabazlea izan dira aurten. "Ez dute lan samurra izan", eta Usabiagarena aukeratu zuten, zera azalduta: "Maitasunaren beste alderdi bat ukitzen du. Sinesgarri egiten da eta sentibiltasun handiz idatzitako gutuna da. Benetan egoera hori bizi arte sentitzen ez den maitasuna. Bestearren tokian jartzen zara". Bigarren gutun irabazleari dagokionez, zera esan dute: "Oso gutun freskoa da, ikuspuntu ezberdin batetik idatzia. Umorea eskaintzen du maitasuneari. Estilo egokia eta oso ondo idatzitakoa da. Eta Bergarako onenari dagokionez, berriz, hauxe

diote: "Gutun jantzia, badaki zertaz ari den idazten. Sorpresa faktorea ondo mantentzen du".

Gazteen epaimahaia ikaste-teeekin elkarlanean osatu dute: Aranzadi ikastolako Oier Elortza eta Oier Garitano eta Ipintza institutuko Izar Sanchez eta Elene Perez izan dira aurten; lanen originaltasuna eta ondo idatzita egotea da, bereziki, baloratu dutena. Gazteek erabaki dute, era berean, *Maitasuna, zhotzen berotasuna, bihotzen lasuna* esaldia saritzea.

"Guztiak gonbidatuta"

Sari-banaketa ekitaldi xumea eta gozoa egingo dute Jardunekoek, Irizar jauregian, gaur, 19:00etan. Musika Eskolako biolin-joleek lagunduta irakurriko dituzte irabazleek gutunak, eta ondoren, luntxa izango da.


"Jardunen amodiozko sariketa burua hausteko ariketa polita da"

AINARA ELIZONDO BIGARREN SARIAREN ETA ESALDIEN IRABAZLEA

Bi sari irabazi ditu: bigarren gutun onenarena eta esaldiarena. Ez da hasiberria idazketa lehiaketetan, Euskal Filologian lizentziatua da eta Hondarribiko Udal Idazkaritza Sailean egiten du lan.

Zorionak! Sari bikoitza zuk ere!

Sorpresa handiz jaso dut berria; ezustean harrapatu nau zeharo. **Zeri buruzkoa da gutuna eta nor nori idatzitakoa?** Euskal Herrian urteroko protagonista kuttun bihurtu den animalia bati eskaini diot gutuna: Donostiako San Tomas azokako txerriari. *Ximona* txerriaren izena grabatuta geratu zitzaidan eta gutuna osatzeko ideia polita izan zitekeela pentsatu nuen.



AINARA ELIZONDO

Zelakoa izan da idazketa prozesua?

Animalien ohiturez eta portaerez ezer gutxi dakit, baina nire senarra baserrian jaioa da, eta berak kontatutakoak nahiko baliagarriak izan zaizkit gutuna idazteko. Zailena umorezko gutuna idaztea izan da; barre eragitea negarra eragitea baino dezente zailagoa da.

Zurea da esaldi onena: *Maitasuna,*

2 hotzen berotasuna, bihotzen 1asun; erraz asmatu zenuen?

Egia esan, ez da hasieran pentsatua nuen esaldia. Hasierako ideari hamaika buelta eman nizkion eta ertzak jartzen saiatu nintzen, irakurleak ere buruari eragin ziezaion. Leku txikian errima, zenbakien eta hotsen jolasa uztartzea ez da erraza izan. **Iaz ere zure esaldia saritu zuten; abila zara halakoetan?** Ez dakit abildade kontua den; uste dut egunaren eta aldarrearen arabera dela. Batzuetan, ideia onak asko pentsatu gabe sortzen dira, beste batzuetan, aldiz, ipurdi azpian aulkia berotuagatik ezin da fundamentuzko ezer asmatu. Aurten, esaldi irabazlearen bila joan naiz. Iaz, aldiz, bila joan gabe esaldia etorri zen.

Datorren urtean Bergarakoan aurkezteko asmorik?

Bizi banaiz bai, nola ez. Burua hausteko ariketa ona da.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko otsaileko sariak!

Ebook reader

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremendenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean ogingo da zozketa.

Irabazlearen DPO 15/2018 legearen arabera jakinarazten dugu, zuzendutako datuak Geroa Komunikazio Zerbitzuen Irabazlearen Datu-basean sartuko direla. Datu horien helburua da irabazlearen datuak zuzenean gure datu-basean sartzea. Eskubide irabazlearen datuak ez dira onartzen, haien zuzeneko abantentzarako helburu horretarako. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ERREKI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri eskerrak

"Ene Ba!!" antzerkireko sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailak 23 | 19:30ean

PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN ZORA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "Antzerkire" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean ogingo da zozketa.

Irabazlearen DPO 15/2018 legearen arabera jakinarazten dugu, zuzendutako datuak Geroa Komunikazio Zerbitzuen Irabazlearen Datu-basean sartuko direla. Datu horien helburua da irabazlearen datuak zuzenean gure datu-basean sartzea. Eskubide irabazlearen datuak ez dira onartzen, haien zuzeneko abantentzarako helburu horretarako. kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



2020ko bazkideztza: 56€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA

Ana Mari Vitoria Berecibar

Javier Letamendiren alarguna


2020ko otsailaren 12an hil zen, Hondarrribian, 88 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Arrasaten, 2020ko otsailaren 14an.

ESKER ONA



Joxe Migel Lazkano Oruesagasti

2020ko otsailaren 8an hil zen, 81 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan gurekin izan zareten guztioi, familiaren izenean.

Aupa Joxe Migel!

Bergaran, 2020ko otsailaren 14an.

OROIGARRIA

Eli Sagasta Gavilan

2020ko otsailaren 9an hil zen, 30 urte zituela.



Zure argia ez da itzaliko begiak itxiagaitik borrokalari gailanta eta pertsona hobe izaki. Lagunek oroituko zaitugu eguna joan eta etorri zure indarra beharko degu aurrera egiteko betik zauden lekuan zaudela, Eli eutsi irribarreari.


Gurasoen kuadrilla. Oñatin, 2020ko otsailaren 14an.

ESKER ONA

Luis Olariaga Korta

Julia Jauregiatzoren alarguna

2020ko otsailaren 3an hil zen, 96 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, otsailaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko otsailaren 14an.

ESKER ONA



Gaizka Guridi Urzelai

2020ko otsailaren 5ean hil zen, 48 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, otsailaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko otsailaren 14an.

OROIGARRIA

Amparo Zumalde Zumalde

(Madina Garaikua)
Hilario Igartuaren alarguna

2020ko otsailaren 10ean hil zen, 90 urte zituela.



Gaurkoa da guretzat egun oso tristia itxungi baita Mañan azken argi-izpia eta tokatzen zaigu agurra ematia eskerrik asko bihotzez amama maittia.

Dorleta, Mikel, Aran, Ilargi, Maite, Irune eta Aintzane. Oñatin, 2020ko otsailaren 14an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

HILDAKOAK

Felisa Iturricastillo Ascasibar. Bergaran, urtarrilaren 29an. 95 urte.

Petra Biteri Orobengoa. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 94 urte.

Juan Jose Gurrutxaga Luarizaristi. Bergaran, urtarrilaren 30ean. 74 urte.

Jose Valdivieso Romero. Arrasaten, urtarrilaren 31n. 78 urte.

Jacinto Bruña Gonzalez. Arrasaten, urtarrilaren 31n. 91 urte.

Baltasar Pozo Moreno. Bergaran, urtarrilaren 31n. 77 urte.

Felix Lopez Oianguren. Bergaran, urtarrilaren 31n. 83 urte.

Pilar Zubia Arana. Arrasaten, otsailaren 1ean. 86 urte.

Pablo Gardoki Mazmela. Aramaion, otsailaren 2an. 97 urte.

Luis Mari Mujika Garitano. Bergaran, otsailaren 2an.

Luis Olariaga Korta. Oñatin, otsailaren 3an. 96 urte.

Dionisio Nogales Horrillo. Bergaran, otsailaren 3an. 58 urte.

Vicente Dueñas Fuente. Bergaran, otsailaren 4an. 92 urte.

Aurelio Ot Jimenez. Bergaran, otsailaren 4an. 83 urte.

Gaizka Guridi Urzelai. Oñatin, otsailaren 5ean. 48 urte.

Ana Mari Lasa Elepuru. Aretxabaletan, otsailaren 5ean. 66 urte.

Begoña Azanza Berrueta. Arrasaten, otsailaren 5ean. 87 urte.

Angel Herran Salazar. Arrasaten, otsailaren 5ean. 94 urte.

Joxe Migel Lazkano Oruesagasti. Bergaran, otsailaren 8an. 81 urte.

Mari Cruz Hermida Conde. Bergaran, otsailaren 9an. 51 urte.

Eli Sagasta Gavilan. Oñatin, otsailaren 9an. 30 urte.

Amparo Zumalde Zumalde. Oñatin, otsailaren 10ean. 90 urte.

Ana Mari Vitoria Berecibar. Arrasaten, otsailaren 12an. 88 urte.

URTEURRENA

Mari Carmen Gaztelu Eguren

Jose Joakin Lazkanoren alarguna

1928-11-01 / 2019-02-01



Hutsune handi bat Oroipen goxo bat Maitasun eder bat Itxaropen zabaldua Gure bihotzean betiko.

Urteurreneko meza, igandean izango da, otsailaren 16an, 11:00etan, Uberako San Paulo elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2020ko otsailaren 14an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 14	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 15	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 2
Domeka, 16	IRIZAR: Ercuñ 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 17	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 18	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 19	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 20	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 14	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 15	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 16	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 17	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 18	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 19	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 20	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 14	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 15	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 16	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 17	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 5
Martitzena, 18	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 5
Eguaztena, 19	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 20	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza du beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3

1. San Martin eskolakoak, Goienan
Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleak egon ziren, astekari baten prozesua bertatik bertara ikusten. Erredakzioan eta platoan egon ziren.

2. Bigarren, First Lego League-n
Arrasateko Arizmendi Ikastolako Eguzkiloze taldeak lortu zuen bigarren saria. Hori horrela, Tenerifen jokatu den finalerako txartela lortu dute. Zorionak!

3. Eztarriz sano, Gesalibar auzoan
Arrasateko Gesalibarren ere kantuan ibili ziren Santa Ageda ospatzeko. Baserririk baserri egiten zuten ibilaldia umeez, gazteek eta helduek.

4. Santa Ageda eguna Arexolan
Ohiturari jarraituz, aurreko zapatuan, Santa Ageda eguna ospatu zuten Aramaion, Arexola auzoan. Kuadrilla ederra elkartu zen, eta kantuan ibili ondoren bazkaria egin zuten.

5. Oñatiko kintoak
2002an jaiotako gazteek ospatu dute kinto eguna, bi asteburutan jarraian: hilaren 2an kalerik kale ibili ziren kantuan; eta hilaren 8an, baserri-auzoetan.



4



5

ZORION AGURRAK



BERGARA ETA OÑATI
Aitor Irizar eta Aitor Baleztena
Otsailaren 21ean, 7 urte eta otsailaren 20an, 51 urte! Zorionak, bikote! Primeran pasatu eguna! Amama Felixaren, Julenen eta Enekoren partetik!



OTXANDIO
Haizea eta Bidatz Larragoiti Ibabe
Otsailaren 17an, 15 urte. Zorionak, neskak. Disfrutatu eguna familia eta lagunekaz. Muxu handi bana!



ARRASATE
Inge Garai Elezgarai
Otsailaren 17an, 10 urte. Zorionak eta besarkada handi bat Mutrikuko familia osoaren partetik!



ANTZUOLA
Paule Acosta Seguro
Otsailaren 16an, 3 urte. Zorionak Paule! Zorionak etxeko guztion partetik. Amabx, aita, Maddi, aitita, amonak, eta tio, tia eta Alazne.



OÑATI
Oihana eta Oxel Urbarren Walerjanczyk
Oxelek 4 urte, urtarrilaren 5ean eta Oihanak 9, otsailaren 16an. Aitakoren, amatxoren eta familia osoaren partetik, zorionak bixo! Muxu handi bat bixontzat eta egun zoragarria pasatu!



ARETXABALETA
Xabat Cruz Aranzabal
Otsailaren 15ean, 3 urte. Zorionak familia osoaren partetik. Muak!



BERGARA
Elene Txurruka Jauregi
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Elene, maitxia! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzia!



BERGARA
Mara de Goñi Campos
Otsailaren 15ean, 8 urte. Zorionak, Mara! Topera disfrutatu zure eguna, etxeko guztien



ESKORRIATZA
Alberto Aguiriano Bergaretxe
Otsailaren 15ean, 62 urte. Zorionak, mutil! Ederto ospatu zure urtebetetzea. Muxu pila bat, "Los Txurris" lagunaren partetik.



OÑATI
Ekhi Arregi Madina
Otsailaren 15ean, urtebete. Zorionak, poliitt hori! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunean! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ESKORRIATZA
Danel Enekotegi Oyanguren
Otsailaren 14an, 2 urte. Zorionak, Danel! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familixako danon partetik!



ARETXABALETA
Nerea Olmedo eta Malen Gartziaetxabe
Zorionak, bikote! Ederto pasatu zuen egunean. Nereak, otsailaren 12an, 38 urte eta Malenek, otsailaren 14an, 8 urte. Muxu handi bana, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Xabier Lizaur
Otsailaren 12an, 36 urte. Zorionak, aita! Egunderrera pasatu familia eta lagun artean! Muxu handi bat. Lier, Paule, Aimar, Izar eta Izaroren partetik bereziki!



OÑATI
Aner Ferreira Gomez
Otsailaren 11n, 6 urte. Zorionak, maitia! Asko gozatu zure eguna. Sei urtetxo jada! Asko maitte zaitugu.



OÑATI
Elene Aramendi Fuente
Otsailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Iñaki eta Manex Arriaran
Iñakik otsailaren 10ean urtebetetzea eta Manexek otsailaren 12an, 10 urte! Ondo-ondo pasatu eta edarto ospatuko dogu!



ARRASATE
Malen Zugasti Larrañaga
Otsailaren 10an, 3 urte. Zorionak, potxola! Hiru urte bete dituzu! Ze handia zaren! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, familiaren partetik.



ARRASATE
Gaizka Zabaleta
Otsailaren 10ean, 39 urte. Zorionak, aita! Maite zaitugu pila-pila!



OÑATI
Eki Gartzia Aiausti
Otsailaren 9an, 8 urte. Zorionak, potxolo, etxeko danon partetik! Ondo ospatu!



OÑATI
Ainhize Mendibe Garai
Otsailaren 3an, 9 urte. Zorionak etxeko printzesari, etxeko guztien, eta batez ere, Ganixen partetik. Muxu pilo bat!



OÑATI
Eki Palacin Aldea
Urtarrilaren 31n, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 14

ARRASATE Debagoieneko Enplegu Azoka

09:30etik 14:00etara, arreta standetan; 10:00etatik 14:00etara, enpresen aurkezpenak; eta 09:30etik 14:00etara, elkarriketak. *Garaian.*

ARRASATE Merkemerka azoka

Udazken eta negu denboraldiko produktuak prezio ezin hobean eskainiko dituzte hainbat saltokik. *Herriko kaleetan, 16:30ean.*

ELGETA 'Gu ere kontalari'

Neska-mutikoen egindako saioa. *Liburutegian, 17:00etan.*

ELGETA 'Gure erraldoia sortzen' tailerra familiendako

Gurasoendako eta neska-mutikoendako. *Ludotekan, 17:00etan.*

ARETXABALETA Maskarak egiteko tailerra

Joana Manzisidor artistak gidatuta. *Gu Haziak Gararen egoitzan, 17:30ean.*

ESKORIATZA Mahai-jolas txapelketa

Karta jokoak izango dira nagusi, gaztetxoendako. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ESKORIATZA Aratusteetako maskarak

Umeendako tailerra. *Ludotekan, 17:30ean.*

ARRASATE Antzerkia eta kontzertua ingelesez

3-10 urte arteko neska-mutikoendako Debalde. *Kulturaten, 18:00etan.*

OÑATI Idazketa lantegia

Joxe Mari Iturralde gidatutako saioa egingo dute. *Kulturaten, 18:00etan.*

ELGETA 'Hile topaketa' hitzaldia

Bibliobero zikloaren baitan egingo du berba Enara I. Dominguezek, ziklo menstrualari buruz. *Liburutegian, 18:30ean.*

OÑATI 'Hika laguna' proiektua: batzarra

Taldea sortu ahal izateko, bilera irekia. *Euskaldun Berria gelan, 19:00etan.*

BERGARA Amodiozko gutunen lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia. *Irizar jauregian, 19:00etan.*

ESKORIATZA 'Sexua. Mitoak hausten' hitzaldia

Laura Moran sexologoak egingo du berba esperientzia klinikotik eta umoretik, gaztelaraz. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

BERGARA 'Anti-San Valentín orgasmikoa' gaua

22:30ean, Nizuri Tazuneri taldearen kontzertua; eta 00:30ean, DJ emanaldiak. Sarrerak, bost euro. *Kartzela Zaharreen.*

ESKORIATZA Sala Bros & Sabin

Sala anaiek eta Sabinek egingo dute kontzertua. *Inkernu tabernan, 22:30ean.*

ZAPATUA 15

ESKORIATZA Ziklon eta zunba saioa

09:00etan eta 10:30ean, areto bizikleta saioak kiroldegian; eta 09:30ean, zunba saioa pilotalekuan. *Pilotalekuan eta kiroldegian.*

OÑATI Aurreko Mendira irteera

Eperrak taldearen eskutik. *Gaztetxean, 09:00etan.*

ARRASATE Merkemerka azoka

Udazken eta negu denboraldiko produktuak prezio ezin hobean. *Herriko kaleetan, 10:00etan.*

OÑATI 'Joko eszenikoa eta inprobisazioa' tailerra

Patricia Urrutiaren eskutik. *Eltzian, 10:30ean.*

BERGARA Bergarako baserrien gaineko ikerketaren aurkezpena

Ibon Telleriak, Josue Susperregik eta Patxi Larrañagak sei baserri ikertu dituzte. *Udaletxean, 11:00etan.*

OÑATI Euskal Errepublikaren Eguna

Hainbat arlotan burujabetza lantzen diharduten elkarte batzuk ezagutzeko azoka. *Foruen plazan, 11:00etan.*

ARETXABALETA Kantari saioaren grabaketak

Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako umeekin. *Arkupen, 11:00etan.*

ARRASATE Detox-xaboi ikastaroa

Baserritarren azokaren baitan, Ekoudalatz mintegiko lagunekin. *Seber Altuben, 11:00etan.*

ARETXABALETA 'Liburutegiko sekretuak' ipuin kontaketa

Ane Gebararen eskutik, 4-5 urte arteko umeendako. *Haur liburutegian, 11:30ean.*

ARETXABALETA Txapel Txin Eguna

12:00etan, kalejira; 13:00etan, *Love truck party*; 14:30ean, bazkaria eta bingo musikatua; 18:00etan, *AZ Gaubelak* taldeak; 18:30ean, *Love truck party*; 19:00etan, pregoia eta txapel lehiaketa; eta 19:30ean, elektrotxaranga. *Herriko kaleetan.*

OÑATI Aratusteetako entsegua

Otsailaren 22ko ikuskizuna prestatzeko. *Eltzian, 12:00etan.*

ELGETA 'Kiroloren alde iluna kriminologiaren ikuspegitik' hitzaldia

Oihane Vergarak eta Ainara Rankinek egingo diete berba gaztetxoei eta gurasoei. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

OÑATI 'Dizdaitte': bigarren saioa

Maita Sarasola, Ane Zuazubizkar, *Txaber* Altube, Oihana Arana, Maddi Ane Txoperena eta Urko Arregi bertsotan. *Ikatz tabernan, 17:30ean.*

BERGARA 'Ene ba' antzezlan

Aita lehen aldiz izatekotan dagoen protagonistaren bizipenak kontatzen dituen lana. Asier Sota, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Joxe



DUPLA

OÑATI Dupla eta Xatiro

Aguraingo bikotearen eta Bilboko bakarlariaren kontzertua. Elkarrekin dihardute Cassiopeia & Folklore bira egiten. Sarrera, bost eta hiru euro (ikasleak eta langabeak). *Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.*

Kruz Gurrutxaga eta Alazne Etxeberria dira protagonistak. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 19:00etan.*

ESKORIATZA 'Jakinduriek mundue erreko dau!' ikuskizuna

Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek; Iker Badiola Medikuntza Fakultateko ikertzaileak; Plentziako Itsas Estazioko ikertzaile Eider Bilbaok; eta Onintze Salazar meteorologoak egingo dute berba. *Zaldibar antzokian, 19:30ean.*

DOMEKA 16

OÑATI Aramotz mendikatera irteera

Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik. *Postetxean, 07:00etan.*

ELGETA Bernd Langerren bisita

Alemaniko mugimendu antifaxistako ordezkariak Memoria Historikoaren Euskal Interpretazioa Zentroa eta Intxortako Atea bisitatuko ditu. *Espaloian, 10:00etan.*

ARRASATE 'Nire baitan' tailerra

Jabetze Eskola egitasmoaren baitan Argenis Mesa Ruizek gidatutako solasaldia, gaztelaniaz. *Emakume txokoan, 10:00etan.*

ANTZUOLA Zortzi Miliak proba

10:30ean, helduen lasterketa, eta ostean, hamaiketako; 11:00etan, motortxoan lasterketa

txikienendako; eta 13:00etan, sari banaketa ekitaldia. *Herriko plazan.*

ARETXABALETA Zuhaitz Eguna

Zazpiko futbol zelaiaren ingurura joango dira landaketa egitera. *Herriko Plazan, 11:00etan.*

BERGARA 'Domeketan familian gozatzen' ekimena

Jardunen eskutik. *Oxirondon, 11:30ean.*

OÑATI Urrezko Aizkora saioa

23 urtez azpikoen binakako eta emakumeen banakako txapelketako saioak, eta Urrezko Harri-jasotze Txapelketako finalurrekoa. *Foruen plazan, 12:00etan.*

OÑATI Aloña Mendiko txirridulari taldeen aurkezpena

Gazte, kadete, infantil eta alebin mailako ziklistak. *Sancti Spiritus Unibertsitatean, 13:00etan.*

ARETXABALETA Kantari saioaren grabaketak

Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako umeekin. *Arkupen, 15:30ean.*

OÑATI Photoshop tailerra

Saio irekia, debalde. *Gaztetxean, 16:30ean.*

ESKORIATZA 'Zientzia edo magia?' ikuskizuna

Jon Kepa Eureka zientzialarik era praktikoan, dibertigarrian eta

ikusgarrian egingo ditu esperimentuak, etxean egoten diren gauzak erabilia. Sarrerak, bi euro, aretoa bete arte.
Zaldibar antzokian, 17:00etan eta 18:30ean.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0-8 urte arteko umeendako eta euren familiendako ekintzak.
Okendoko ludotekan, 17:30etan.

ELGETA 'Barre Tourra'
ikuskizuna

Barrexerka antzerki taldearen eskutik. Sarrerak, bost euro.
Espaloian, 18:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa
2001ean jaiotakoak.
Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI Ruper Ordorika
Ez dago sarrearik.
Santa Anan, 19:00etan.

ASTELEHENA 17

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

OÑATI 'Minbizia izan ondoren, nire osasuna zaintzen' ikastaroa
Bi ordu eta erdiko saioa.
Osasun zentroan, 16:00etan.

ARRASATE 'Ikusmen murriztua esperimentatu' erakusketa
Gaurtik, hilaren 21era arte.
Kulturaten, 17:30etan.

OÑATI Ingurumen Jardunaldiak: erakusketaren irekiera
Lemoizko borroka anti-nuklearra eta Gure herrikideak: hiri-biodibertsitatea bildumak egongo dira ikusgai gaurtik, martxoaren 8ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 18

OÑATI Bingo jokoa
Erretiratuendako.
Lagun Lekun, 17:00etan.

ARRASATE Autofikzio feminista tailerra
Jabetze Eskola egitasmoaren baitan.
Emakume txokoan, 17:30etan.

BERGARA 'Blogerrak eta influencerrak: zeintzuk dira zure seme-alaben ereduak Interneten?' hitzaldia
Mertxe Gordillok egingo du berba, gaztelaraz.
Mariaren Lagundian, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Kontsumo greba feministarantz martxoan eta beti' hitzaldiak
Ekologistak Martxan taldearen eskutik.
Arkupen, 18:30etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Jose Ignacio Careroren *Ama* liburuaren gaineko saioa, Ivan Repilarekin.
Liburutegian, 18:30etan.

OÑATI 'Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa' dokumentala
80ko hamarkada hasieran zegoen mugimendu antinuklearraren erretratua egiten duen lana. Euskaraz emango dute.
Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Zer da elikadura osasungarriaren kontu hori?' hitzaldia
Bittor Rodriguez nutrizionistak egingo du berba, eta jarraibideak eman.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Aratusteetako entsegua
Otsailaren 22ko ikuskizuna prestatzeko.
Eltzian, 20:00etan.

ARRASATE 'El hoyo' filma
Galder Gaztelu-Urrutia bizkaitarraren pelikula.
Amaia antzokian, 20:30etan.

EGUAZTENA 19

OÑATI 'Poderes para las futuras situaciones de incapacidad' hitzaldia
Mercedes Hernaiz notarioarekin.
Pake Lekun, 17:30etan.

BERGARA Torradak eta pelak egiteko ikastaroa
Gorka Lobatorekin.
Gure Ametsa elkartearen, 18:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa
Lur Kortaren saioa, 2-5 urte artekoendako.
Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

ARRASATE Amiantoaren gaineko jardunaldia
CCOO, ELA eta LAB sindikatuek eta Asviame elkarteak antolatuta.
Kulturaten, 18:30etan.

OÑATI Arkaitz Rodriguezen hitzaldia
Pedro Sanchezen inbestidura eta hauteskundeak, besteak beste.
EH Bilgunean, 19:00etan.

EGUENA 20

ESKORIATZA Urdelardero Eguna
10:30ean, kalejira; 11:30ean, txistorra jana; 17:30ean, pailazoan emanaldia; 18:30ean, txokolate-jana; eta, 18:45ean, Aratusteetako dantzak.
Fernando Eskoriatza plazan.

ARRASATE Sasoibide irteera
Kulturateko erakusketa ikusteko.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI Oñatiko inauteri txikia
Herriko hiru ikastetxeekin.
Foruen plazan, 15:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea
Deialdi irekia.
Durana kalean, 16:45ean.

OÑATI Eguen-gizen eguna
Erretiratuendako.
Pake Lekun, 18:30etan.

OÑATI 'Mundu mailako ingurumen aktibisten errepresioa eta erailketak' hitzaldia
Martin Mantxoren eskutik.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE Xabi Bandini
Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Adú
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Lur eta Amets
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Richard Jewell
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Spy cat
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

1917
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Lur eta Amets
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Araña

Astelehena: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Las aventuras del doctor Dolittle
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
El escándalo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Aves presas y la fabulos emancipación de Harley Quinn
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

ANTZOKIA

Aves presas y la fabulos emancipación de Harley Quinn
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Frozen II
Zapatua: 16:05.
Domeka: 12:00, 16:05.

Parásitos
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:50, 22:30.
Domeka: 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:10.

Jumanji
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:30.
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

Espias con disfraz
Zapatua: 16:15.
Domeka: 12:15, 16:15.

1917
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

Bad boys for life
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 11:45, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Las aventuras del doctor Dolittle

Egubakoitza: 18:20, 20:25.
Zapatua: 16:15, 18:20, 20:25.
Domeka: 11:45, 16:15, 18:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Adú
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:45, 22:10.
Domeka: 17:20, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Volando juntos
Egunero, domeka izan ezik: 17:30.
Domeka: 11:45, 17:30.

Operación Panda
Zapatua: 16:20.
Domeka: 12:00, 16:20.

Aves de presa
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:20, 22:30.
Domeka: 12:15, 18:10, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Joker
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:25.

KRITIKA

El escándalo ★★★★★

Zuz.: Jay Roach. **Herr.:** AEB (2020). **Aktoreak:** Charlize Theron, Nicole Kidman, Margot Robbie.

Informazio bonbardaketa

ANTONIO ZABALA

Roger Ailes Fox News telebista kanaleko zuzendaria zen. Kanalak bere zuzendaritzapean lortutako arrakasta izugarria izan zenez, Aileen boterea handitu egin zen. Nahiz eta bere portaeran oso nabarmenak izan jauntxokeria eta sexu-abusuak, inork ez zuen jokaera horren kontrako salaketarik egin. Baina 2016. urtean gauzak aldatu egin ziren, kanaleko aurkezle Gretchen Carlonek lehen pausoa eman zuen eta. Hortik aurrera, isilik zeuden emakumeek Carlone bidea jarraitu zuten. Banakako mugimendua izatetik, taldeko mugimendua izatera pasa zen. Pelikulan, hiru pertsonaiaren bitartez, prozesuan gertatutako aldaketak kontatzen ditu zuzendariak.

Jay Roachek istorioa azaltzeko filmari kazetaritza-erreportaje baten itxura ematen dio. Informazioaren eritmoa frenetiko da: pertsonaia eta datu ugari; bakoitza nor den eta eszena bakoitza noiz geratzen den pantailan agertzen da; muntaia, zoomaren erabilera eta kameraren bat-bateko mugimenduak... Egoera oso konplexua da. Interes desberdinak daude: Aileen gainetik Fox Newseko mandatariak daude gatazkatik ondo atera nahian, eta Aileen azpitik iazera desberdineko hiru emakumeak. Azaltzeko gerra-gune asko zabaltzen dira, eta, azkenean, emaitza, azkarregi garatutako informazio bonbardaketa batean geratzen da.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

'Brexit'-a

Brexit-aren goizean alderdi politikoen tertulia zegoen irratian eta komentario guztiak kritikoak izan ziren. Esan zuten, adibidez, 2016ko erreferendumaren kanpainan gezur asko egon zirela. Baina ez al da gezurra edozein kanpainatan promes egitea bete ezin daitekeena? Edota zergatik esaten da hemengo ia hauteskunde gau guztietan "inoiz izan den kanpainarik zikinena" izan dela? Edonola ere, erreferendumaren ostean gezurrak agerian geratu baziren ere, 2019ko abenduan britainiarrek berriro bozkatu zuten *brexit*-aren aldeko posizioa.

Brexit-ak baditu kontuan hartzekoak. Funtsezko gaietarako esan ohi dugu gehiengo zabalak behar direla. Hala ere, Erresuma Batuan, munduko estatu demokratikoen artean dagoena –inon demokraziarik badago–, *brexit*-ak aurrera egin du aldeko botoak %52 direla. Gainera, horrelako prozesuetan kontrakoek zabaltzen duten beldurra –"Europatik kanpo ez dago ezer" edo "gainbehera ekonomikoa izango duzue"– gairitu dute.

Ez dakit lagun britainiarrek etorkizun hobea izango duten, baina bozketak "demokraziaren jaia" badira, errespetu gehiago merezi dute, emaitzak direnak direla.

BUKATZEKO

Ardi latxen artilearekin egindako jaka, gertu

Ardi latxen artilea hondakin izatetik Ternuako isolatzaile termikoa egiteko lehengai izatera igaro da, 'Latxa artile' proiektuari esker. Hainbat eragilek parte hartu duten proiektu horretan, Antzuolako Lamariano Azpikoa baserriko ardien artilea erabili da

Maialen Regueiro ARRASATE

Ternuak ardi latxen artilearekin egindako kalitatezko isolatzaile termikoa aurkeztu berri du. *Latxa artile* izenarekin bataiatu duten proiektu honetan, Ternuarekin batera Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak, Iletegiak, Muturbeltz elkarteak eta Antzuolako Lamariano Azpikoa baserriak hartu dute parte, elkarlanean.

Proiektuaren helburuak

Proiektu honi esker, gaur egun hondakin gisa kudeatzen den ardi latxen artileari irteera eman zaio. Izan ere, ardi bakoitzeko 2,5 kilogramo artile sortzen dira, urtean batez beste 625 tona artile eta 2.000 tona Euskal Herrian. Gauzak horrela, Txomin Alberdi Antzuolako Lamariano Azpiko baserriko artzaina pozik azaldu da, proiektu hau lehen sektorearentzako bultzada delako, eta adierazi du orain arte ardiei urtean birritan ilea moztearena arazoa izan dela eta proiektu honi esker konponbidea aurkitu zaiola. Proiektu honen garapenarekin, gainera, ardi latxen artileari balioa emango zaio, ingurumen eta ekonomia mailan.



Edu Uribesalgo, Ternuako Berrikuntza zuzendaria, jaka eskuan duela. AITOR AGIRIANO

2009az geroztik

Edu Uribesalgok, Ternuako Berrikuntza zuzendariak, aipatu du enpresa 2009an hasi zela ardi latxen artilearekin ezer egiterik zegoen aztertzen: "Hasiara batean, haria egitea zen gure asmoa, baina artilearen kalitateak ez zuen berau egitea errazten". Hala ere, materialaren ezaugarriak ikusita, isolatzaile gisa



Txomin Alberdi artzaina. AITOR AGIRIANO

erabiltzea baliagarria zela erabaki zuen Ternuak. "Gure jakak egiteko luma edo isolatzaile sintetikoak erabiltzen ditugun moduan, produktu bera egiteko artilea erabiltzea posible zela ikusi genuen", aipatu du Uribesalgok. Horren ostean etorri ziren, batetik, Muturbeltz elkar-tekoekin harremanetan jartzea eta, bestetik, Iletegiak ilearen tratamendurako erabiltzen dituen makinaren azterketa egitea. Azkenik, Ternua Antzuolako Lamariano Azpikoa baserriko Txomin Alberdirekin harremanetan jarri, eta hark proiektuarekin bat egin zuen.

Ternuak, gainera, *Artileshell* teknologia sortu du berrikuntzarekin, ingurumenarekin eta gizartearekin duten konpromiso nabarmentzeko, eta, modu horretan, hondakina enpresaren arropentzako lehengai bilakatu dute. Hain zuzen ere, Uribesalgok proiektu hau enpresarentzat proba bat dela aitortu du: "Gauzak ondo atertzen badira, gure markako beste produktu batzuk ekoizteko artilea erabiltzea posible izango da".

Artile Jacket

Isolatzaile termiko horrek, beraz, honako ezaugarri hauek ditu: kanpotik birziklatutako plastikozko botilen ehunaz egina dago eta barrutik arto azukrearekin egindako mintza, ardi latxen artilea eta poliester forrua ditu. Jakak *Artile Jacket* izena du eta, uretik zein haizetik babesteaz gainera, arina da. Ternuako udazken eta neguko 2020-2021 bildumaren barruan egongo dira eta irailetik aurrera dendetan egongo da 229,95 eurotan, gutxi gorabehera.

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIKURUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Soroluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soroluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabiloia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)